

berria



«Israelek beti eraman du guda etsaiaren eremura; lehen aldiz, beren kuarteletan pairatu dute gerra»

Majed Dibsi • Palestina Askatzeko Herri Fronteko bozeramailea

MUNDUA • 14

Madril. Pedro Sanchez (PSOE) eta Andoni Ortuzar (EAJ), Espainiako inbestidurarako akordioa sinatzen, atzo.

FERNANDO VILLAR / EFE

Presidente izateko gehiengoa bermatu du Sanchezek

Espainiako jarduneko gobernuburuak inbestidurarako akordioa egin du EAJrekin • PSOEko hautagaiak eta jeltzaleek hitzartu dute bi urteko epean adostea «etorkizuneko autogobernua»

HARIAN • 2-4

EBko erakundeek adostu dute Natura Leheneratzeko Legea malgutzeara

Hasieran proposatu baino eremu gutxiago leheneratzea hitzartu dute, baita derrigortasuna murriztea ere

MUNDUA • 13

Mendekotasun laguntzen itxaron zerrenda erdira laburtu da Nafarroan

Gobernuaren arabera, eten egin da itxaron zerrendak luzatzeko joera. Gero eta herritar gehiagok dute, ordea, mendekotasunen bat.

EUSKAL HERRIA • 5

Lurrama. Emazte laborariei aitortza

BIZIGIRO • 31-39



Ondarroako portuan 66 urteko arrantzale bat hil da

EKONOMIA • 12

Hizkuntza ereduak: bide ahitu bat

Egungo sistemak mugak dituela uste dute aditu askok.

EUSKAL HERRIA • 6-8

'Persepolis'. Irango historia eta istorioak, euskarara ekarriak

KULTURA • 22

Irene Arrarats itzultzailea, atzo, Donostian.

GORKA RUBIO / FOKU



ITSAS MENDI Karabanak

KARABANAK KNAUS • ERIBA
AUTOKARABANAK HYMER • KNAUS • BENIMAR • PILOTE

Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

20140 ANDOAIN - Gipuzkoa (saihesbidearen ondoan)
 Tel.: 943-59 32 90
www.itsasmendi.com



Pedro Sanchez Espainiako jarduneko gobernu buru eta PSOEko idazkari nagusia eta Andoni Ortuzar EAJren EBBko presidentea, atzo, Madrilén, Espainiako Kongresuan. SINADURA / AGENTZIA

Autogobernu berria bi urteko epean adostea itundu dute EAJk eta PSOEek

Negoiazioaren oinarria «nazio aitortza» izango da • Eskumenak eskualdatzeko ere bi urteko epea ezarri dute • EAJk Sanchezen inbestidura babestuko du, eta sozialistak gehiengo osoa bermatu du

Iosu Alberdi

PSOEko idazkari nagusi Pedro Sanchez EAJren baietza soilik falta zitzaion gehiengo parlamentarioa eskuratu eta Espainiako gobernu buru izateko. Sozialistek eta jeltzaleek atzo lortu zuten akordioa. EAJko bost diputatuak jarduneko gobernuaren presidentaren hautagaitza babestuko dute, eta Espainiako Gobernuak eta Alderdi Sozialistak urratsak egingo dituzte autogobernuaren alorrean. Bai Gernikako Estatutua osorik betetzeko, baina baita «etorkizuneko autogobernuaren» inguruko akordio bat erdiesteko ere. Hori guztia, bi urteko epean, sinatutakoaren arabera. Nafarroarentzat ere beste biekumen hitzartu dituzte.

Sanchezek eta Andoni Ortuzar EAJren Euzkadi Buru Batzarreko presidentek atzo goizean sinatu zuten bi alderdien arteko akordioa, Espainiako Kongresuan. So-

zialistek «lehenasunezko» bazkide bati egindako keinua izan zen, PSOEren Kongresuko ele-dun Patxi Lopezek aitortu zuenez. Izan ere, Espainiako jarduneko gobernu buruak sinatutako akordio bakarra izan da. EAJk soilik izan du argazki hori.

Hamar orrialde eta sei atal dituzten testuak: autogobernua, segurtasuna, ekonomia eta fiskalitatea, kultura, Nafarroa eta Europa. Horien artean, baina, autogobernuaren ingurukoak nabarmendu dira, afera hark biltzen baititu gainerako ataleko asko ere. Gainera, Ortuzarrek berak azpimarratu zuen afera horretan «aurrerapen argi» bat egiteko balioko duela.

2019ko inbestidurari bide emateko, PSOE eta EAJk adostu zuten eskualdatu gabe zeuden eskumenak 2020an transferitzea. Azken urteetan zenbait eskualdaketa egin dituzten arren –besteak

beste, espetxeetakoak –, akordioa ez da osorik bete, eta jeltzaleek berriz heldu diote gaiari.

Lehenik eta behin, akordioan lehenetsi dute aurretik zehaztutako hiru eskumenen transferentzia hiru hilabeteko epean hitzartzea: aldiriko trenen, atzerriko tituluen homologazioaren eta «estatuko harrera sistemaren au-

Oraindik eskualdatu gabeko eskumen guztiak transferitzea lortu dute; zerrendan sartzen azkena, Gizarte Segurantzza

tonomia pertsonalerako fasearen» ingurukoak. Aldiriko trenen kasuan, aferak hilabeteak daramatza negoziazio mahaian, eta Eusko Jaurlaritzak sarri salatu du Espainiako Gobernuak ez diola erantzun bere azken proposamenari. Akordioaren arabera, ordea, termino horietan gauzatuko da orain transferentzia.

Gainera, Gernikako Estatutuan

jaso baina oraindik eskualdatu gabeko «eskumen guztiak» transferitzea adostu dute berriz, Ortuzarren esanetan, eta bi urteko epe «luzaezina» itundu horretarako. PSOE prest azaldu da Gizarte Segurantzaren kudeaketaren inguruko ere zaku horretan sartzeko. Aitor Esteban EAJren Kongresuko leledunak arratsaldean zehaztu zuen sartzen azkena izan dela.

Prozesuaren jarraipena egiteko, bi aldeko batzorde bat eratuko dute, eta, horrekin batera, sei hilabete behin aferaren inguruko aurrez aurreko bilkura bat egitea adostu dute. Bileretan Pedro Sanchez eta Iñigo Urkullu izango dira.

Eskumenen ingurukoak, ordea, ez dira mugatu Araba, Bizkai eta Gipuzkoara. Nafarroari dagokionez, sei hilabeteko epea ezarri dute Espainiako Gobernuak I+G+B eta beka eskumenak Nafarroako Gobernuaren esku utz ditzan. Aurreko legegaldian, hiru es-

kumen eskualdatu ziren –horien artean, trafikoarena–. Aurretik, Geroa Baik aldarrikatu zuen euren hurrengo helburua zirela ikerketa eta garapena eta bekak. Hartara, koalizioko bazkide den alderdiak konpromiso hori sartu du akordioan.

«Nazio aitortza»

Aurrera begira, bi alderdiek itundu dute Eusko Legebiltzarrean eta Espainiako Gorteetan «etorkizuneko autogobernuaren» inguruan «fede onez» negoziatzea eta akordio bat egitea. Hau da, autogobernu berriaren inguruko elkarriketa izatea EAJren eta Alderdi Sozialistaren artean.

Testuak ez du aipatzen Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako estatus politiko berri baten beharra. Ortuzarrek azaldu zuenez, ordea, adostutako prozesu horrek «nazio aitortza», «euskal eskuduntzak babestea» eta «aldebikotasunaren eta foralatasunaren ber-

CCk inbestidura babestuko du, baina amnistia ez

+ CC Koalizio Kanariarrek ere itun bat egin du PSOErekin, eta, horren ondorioz, Pedro Sanchezen inbestiduraren alde bozkatu du. Hori bai, CCren Antolakuntza idazkari David Toledok atzo azaldu zuen alderdiaren Espainiako Kongresuko diputatuak ez duela babestuko amnistia lege proposamena. CCk Alberto Nuñez Feijooen (PP) alde bozkatu zuen joan den irailean.

me sistema» izan behar ditu oinarri, eta lortutako akordioak Eusko Legebiltzarreko gehiengoaren eskaerei erantzun beharko die. Elkarriketa horietarako, bi aldeen arteko batzorde bat eratu dute, eta epemuga ere izango du: urte eta erdikoa, Eusko Legebiltzarrean hurrengo legealdia hasten denetik; gehienez ere ekainean izango dira Eusko Legebiltzarreko bozak, baina zenbait alderditako ordezkariak azaldu dute litekeena dela Urkulluk martxora aurreratzea.

Autogobernuak zeharkatua

Akordioak jasotako gainerako puntuetan ere autogobernuaren inguruko eztabaidaren presentzia nabari da. Arlo ekonomikoan, jeltzaileen «aldarrikapen historikoetako» batzuei ere erantzun dietela azaldu zuen Ortuzarrek. Akordioan jaso denez, erkidego mailako lan hitzarmenak gaineratik. Hain justu ere, afera hori izan zen iazko otsailean EAJk Espainiako lan erreformaren kontra bozkatu izanaren arrazoietakotzat.

Era berean, kontzertu ekonomikoaren zenbait artikulua adostu dute. Gainera, urteko defizitaren inguruko helburuak hitzartu beharko ditu Madrilek EAEko Kontzertu Ekonomikoaren eta Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren batzorde mistoekin, hurrenez hurren. Halaber, batzorde horietan «adostu ahal izango dira» lan eskaintza publikoetako tasak eta langile publikoaren ordainsariaren igoeraren gehiengo globalak ere.

Segurtasun arloan, berriz, Er-

tzaiztaren eskumenak «indartuko» dira: Bilboko portuko segurtasuna eta «ingurumenarekin lortutako delitu administratiboaren ikerketa» bere gain hartuko du, eta Espainiako Barne Ministerioak zuzendutako zenbait batzordetan parte hartuko du. Horren inguruan, Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkulluk adierazi du urrats bat dela Er-tzaiztza «polizia oso» gisa indartzeko: «Erakunde honentzat, autogobernuaren oinarri denarentzat, beste pauso bat izango da». Hitz horiekin, «aldebikotasunaren» garrantzia nabarmendu zuen, autogobernuan «sakontze-ko» bidea delakoa.

Horrez gain, Usansoloko (Bizkaia) kasuari erreferentzia eginenez, PSOEek eta EAJk adostu dute udalerri bilakatzeko gutxieneko biztanle kopurua 4.000ra murriztea, erkidegoetako araudiak hala adierazten duenean. Euskararen sustapenari dagokionez, berriz, lau urtean euskal erakundeei 100 milioi euroko finantzaketa ematea itundu dute, euskara «aro digital berrira» egokitzeke.

**Espainiako
inbestidura ituna**
EAJ-PSOE akordioa

Txibite: «Autogobernua sendotzen du akordioak»

UPNren eta PPren ustez, «onartezina» da EAJk Nafarroako eskumenak hitzartzea • Bolañosek dio legealdi luze baterako oinarriak daudela

Jonxerra Senar

Nafarroan oihartzun zabala izan du, sei hilabeteren buruan beste bi eskumen hitzartzeko konpromisoa hartu duelako PSOEek, EAJrekin eginiko akordioan. Maria Txibite Nafarroako Gobernuako lehendakariak ongiatorria egin dio edukari: «Gure Foru Hobekuntza zabalduko du. Gure autogobernua sendotuko du. Nafarroako Gobernu gisa, atsegin dugu jakitea mahaiaren bestaldean egongo den gobernuak erraztu egingo duela hori al bait arinen iristea Nafarroara».

Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko lehendakari eta EAJren Nafar Buru Batzarreko presidentearen ustez, «oso positiboa» da akordioa Sanchezen inbestidura bermatu duelako. Hualderen arabera, Nafarroarentzat aurreikusitako bi eskumenak Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoa zeuden, baina oraingoak epea zehaztu du, sei hilabeteke.

Guztiz bestelako interpretazioa egin zuten eskuineko alderdiek. UPNren esanetan, Foru Hobekuntzaren gaineratik jauzi egin dute bi aldeek: «Onartezina da: nafarrei irain egin zaie». Txibiteri leporatu zioten «umiliazio hori bait mendu izana». Bide beretik jo zuen PPko Javier Garciak, eta jeltzaileei aurpegiaratu zien «pater-



Maria Txibite eta Unai Hualde, atzo, Iruñean. JESUS DIGES / EFE

nalismoz jokatu nahi izatea». Haren ustez, «nafarren izenean hitzartzera ausartu da» EAJ.

ELAk ohar bidez kritikatu zuen akordioa «nahita» dela orokorra eta «zehaztugabea». Sindikatu horren ustez, ez du lotzen PSOE, eta «alderdi horren borondatearen arabera da». Zehaztutako puntuetako bat da lan arloan erkidego lan hitzarmenak lehenes- tea. ELAk nabarmendu zuen sindikatuak «lan erreformen aurka egindako mobilizazioen ondorio» dela lorpen hori.


CCOOK ere gai hori izan zuen hizpide. Nabarmendu zuen erkidego lan itunak «blindatu» egin direla. Ontzat jo zuen akordioa, PSOEren eta Sumarren arteko gobernua osatzea bermatuko

duelako eta «agenda soziala bultzatzen» jarraituko delako.

Lau urterako

EAJren eta PSOEren arteko akordioa legealdi osorako da. Bide horretatik, Felix Bolaños Espainiako Presidentetzako ministroak esan zuen akordio guztiek «legealdi luze bat» izateko oinarriak dituztela. «Akordio guztietan badugu berme bat dioena lau urteko legealdi bat nahi dugula», azaldu zuen SER irrati katean.

Halere, Ortuzarrek berak abisatu du ezen, zenbaterainoko aurrerapenak egiten diren eta adostutakoa zenbateraino betetzen den, horren arabera akordioa dela akordioa eta, beraz, «legealdiaren egonkortasuna».



ZAINKETEI BURUZKO KONGRESUA

— ZAINKETEN
ALDEKO
EUSKAL ITUNA
ERAIKITZEN

congresocuidados.eus/eu



— DONOSTIA
TABAKALERA
azaroak 15/16

Euskadi,
auzolana



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Asens: «Jazarpen judizialaren kontzeptua ez dago arauan»

Sumarren negoziatzailearen esanetan, JxC-PSOE itunaren «prentsa oharrean» jaso dute politikaren judizializazioaren kontzeptua • Espainiako magistratu taldeak, arauaren aurka

Igor Susaeta

Espainiako lau justizia elkarte nagusiek, hala kontserbadoreak nola progresistak, ohar bateratu baten bidez kritikatu dute PSOE eta JxC Junts Per Catalunyak egindako akordioaren alderdie-tako bat: Espainiako Kongresuan batzordeak sortzea ikertzeko ea *lawfare*-rik egon ote den –alegia, politikaren judizializaziorik– Kataluniako buruzagi subiranisten kontra. Jaume Asensek atzo nabarmendu zuen, ordea, bi alderdi horiek amnistia legeari buruz adostutako testuan ez dutela kontzeptu hori jaso.

«Ez dago arauan; bi alderdi politikoei egin duten prentsa oharrean dago kontzeptua», azaldu zuen, SER irrati katean egin dioten elkarrizketa batean, Sumarrek hala eskatuta bi aldean arteko negoziazioetan parte hartu duenak, En Comu Podemen diputatu ohiak. Adierazpen horrek, beraz, zalantzak areagotu ditu.

Datorren astean dira xehetasunen berri ematekoak, Espainiako Kongresuan lege proposamen gisa erregistratu eta Pedro Sanchez Espainiako Gobernuako presidenten izendatzeko inbestidura saioa egin aurretik. Iturri parlamentarioek Espainiako zenbait hedabideri esandakoaren arabera, hilaren 15ean eta 16an egingo dute.

Politikarien aurkako jazarpen judizialaz hau jaso dute, zehazki, PSOE eta JxC sinatutako lau orriko dokumentuan: «Alde horretatik, hurrengo legegintzaldian



Ezkerretik eskuinera: Laura Borrás, Jordi Turull, Carles Puigdemont eta Miriam Noguera, Bruselan. DANI ROVIROSA / EFE

sortuko diren ikerketa batzordeen ondorioak kontuan hartuko dira amnistiari buruzko legea ezartzekoan, betiere *lawfare* edo politikaren judizializazioari lotutako egoeretan. Alako kasuetan, auzitara jotzeko edo legeak aldatzeko aukera egongo litzateke». Hau da, ez dute oso argi uzten jazarpen judiziala pairatu duten politikariak ere barruan hartuko dituen legeak, nahiz eta hori iradokitzen duen. Asensek adierazi duenez, baina, kontzeptua politikoa da, eta ez «juridikoa».

Magistraturako Elkarte Profesionala eta Francisco de Vitoria talde kontserbadoreek, eta Demo-

kraziarako Epailak eta Justiziarren Foro Independentea progresistek sinatu dute oharra, eta azpimarratu dute politikaren judizializazioaz PSOEren eta JxCren itunak dioenak «praktikan» ekar dezakeela «gainbegiratze parlamentarioaren» esku utzi behar izatea auzitegien erabakiak eta prozedurak; «hori justiziaren independentzian sartzea litzateke, eta botere banaketa haustea».

Espainiako Estatuko 80 bat epaile dekanok, gainera, lau justizia elkarte horien oharrarekin bat egin dute, eta salatu egin dituzte PSOEren eta JxCren dokumentuan «justiziaren politizazioari eta horren ondorioei egindako aipamenak». Erabaki horiei gehitu behar zaio CGPJ Espainiako Bote-re Judizialaren Kontseilu Nagusiak amnistia lege posiblearen aurkako adierazpen bat onartu zuela astelehenean, argudiatuz horrek zuzenbide estatuari «eraso» egiten diola. Atzo bertan jakinarazi zuen, gainera, hori Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidenteari bidali diotela.

Horrekin lotuta, PPren asmoa da, gainera, Kongresuko Mahaian lege proposamena erregistratzeko lehen tramitei helegitea jar-tzea, baita auzia Auztegi Konsti-

tuzionalera eramatea ere, han babes helegite bat jarri auzitegi horrek kautelazko neurriak ezar ditzan proposamenaren debate parlamentarioa eragozteko. Hori argitaratu dute komunikabide batzuek, PPren iturriak aipatuz. Eta PPren Antolakuntza idazkariorde Miguel Telladok Konstituzionalaren aurkako adierazpenak egin zituen atzo, SER irratiari: «Izan duen portaeragatik eta gobernuaren esku sartzeengatik, argi dago Konstituzionala auzitegi partzial bat dela».

Eta politikaren judizializazioaren auziaz mintzatu ziren JxCko eta PSOEko buruzagiak atzo, hedabideetan. Laura Borrás Kataluniako alderdi subiranista horretako presidentea esan du, Katalunya Radio irrati katean, negoziazioetan ez dela hitz egin «norbanakoen kasuez», eta gaineratu du legea «erreparatzailer» izango dela eta ez duela «inor atzean utziko». Borrásen salatu izan du berea jazarpen judizialeko kasu bat dela. Lau urte eta erdiko zigorra ezarri zion Kataluniako Auzitegi Nagusiak aurreko martxoan, prebarikazioa eta dokumentuak faltsutzea egotzita. Felix Bolaños Presidentetzarako eta Memoria Demokratiko-

rako ministroak hau adierazi du gaur, SER-en: «Kataluniako prozesu subiranistako kasuak amnistiari egingo dira, eta hortik kanpo daudenak, ez. Hori epaile batek erabaki beharko du; guk ez dugu zerikusirik».

Fiskalaren helegitea

Borrásen aurreratu du Carles Puigdemont Kataluniako Generalitateko presidenten erbesteratutak berak (2016-2017) parte hartuko duela PSOE eta JxC hilero Espainiako Estatutik kanpo egitekoak diren bileretan. Ez du argitu zer bitartekari arduratuko diren «akordioak betetzen diren edo ez» egiaztatzeaz, baina azpimarratu du «goi mailako espezialistak direla» eta «fidagarritasun eta prestigio egiaztatua» dutela. Bolañosek, era berean, defendatu egin du «nazioarteko mekanismoak» negoziazioetan izango duen rola, aldeak ez direlako bata besteaz «fidatzen».

Espainiako Auzitegi Nazonaleko Fiskaltzak uko egin dio Puigdemont eta Marta Rovira ERC Esquerra Republicanako idazkari nagusia Tsunami Demokratikoa-ren kontrako auziagatik ikertzeari. Auzitegi horretako epaile Manuel García-Castellón biak iker-tzen ari da ikusteko ea «terrorismo» delituri izan ote zen 2019ko udazkenean buruzagi subiranisten aurkako epaiaren harira Katalunian egindako protestetan. Fiskaltzak, baina, helegitea jarri dio García-Castellónen autoari, argudiatuz ez dagoela egiaztatuta Tsunami Demokratikoa talde kriminal antolatuta bat zenik, ez eta «terrorista» zenik ere. Horregatik, instrukzioa Bar-tzelonako auzitegi-tara bidera-tzeko eskatu dio.

JxCren eta PSOEren akordioaren aurka egin du Ponsatik

 Clara Ponsati JxC Junts Per Catalunyak Europako Parlamentuko diputatuak Carles Puigdemont JxCren buruak kritikatu du, iruditzen baitaio JxCren eta PSOEren itunak «gutxietsi» egiten duela Kataluniako Generalitateko presidenten ohi «babestu» duen jendea. «Umiliazio bat da herrialdearentzat, eta kostatuko zaio burua altxatzea. [...] Ikusiko dugu nola zehazten den amnistia legearen promesa», idatzi du Vilaweb hedabidearen amaiera) izenpean kaleratutako gutun batean.

berria lagun iragarlea

BASALBEITIKO TXAKOLINA


Dastatu eta Gozatu LEZAMAko Txakolina

BIZKAIKO TXAKOLINA mesedez!




MEDEKOTASUNA NAFARROAN

Mendekotasuna duten herritarrek, proiektzioa eta populazioaren ehunekoa (2015-2022)




Mendekotasunaren balorazioak (kopurua)




ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA

Mendekotasuna duten herritarrek, adinaren eta sexuaren arabera (%)



Mendekotasunaren balorazioa egiteko batez besteko itxaron denbora (hilabeteak)



Mendekotasun laguntzen itxaron zerrenda erdira jaitsi da Nafarroan

Mendekotasunari buruzko VI. Txostena aurkeztu du Nafarroako Gobernuak • Gorantz doa mendekotasunen bat dutenen kopurua: herritarren %2,61 dira • Inbertsioa handitu dute

Ion Orzaiz Iruñea

Gero eta zaharragoa gizartea, orduan eta beharrezkoagoak dira mendekotasunerako laguntzak eta zerbitzuak. Erakunde publikoek urteak daramatzate errealitate horretaz ohartarazten: urte-tik urtera gorantz doa mendekotasunen bat aitortua dutenen kopurua, eta uste izatekoa da eritmo berean haziko dela etorkizunean ere. Nafarroan, herritarren %2,61 dira mendekotasunen bat aitortua dutenak, eta 64 urte-tik gorakoen kasuan, nabarmen handiagoa da ehunekoa: %10,34. Nafarroako Gobernuak Gizarte Eskubideetako kontseilari Carmen Maeztu Villafrancak eman zituen atzo datuok, Mendekotasunari buruzko VI. Txostenaren aurkezpenean.

Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia publikoak egin du ikerketa, 2022. urteko datuak erabilita. Behatoki horretako zuzendari kudeatzaile Ines Frances Romanek azaldu du mendekotasunaren gorantzko joeraren oinarrian bi faktore daudela nagusiki: «Nafarroako gizartearen zahartze progre-

sioa», eta «COVID-19aren pandemiaren ostean, bizi itxaronak gora egin duela atzera ere».

ITXARON ZERRENDAK, BEHERA

Mendekotasunen bat dutenen kopuruak gora egin izanaren ondorioz, azken urteetan ohikoa izan da itxaron zerrendak ere luzatzea, eta eskatzaileek denbora gehiago behar izatea diru laguntza bat edo zerbitzu bat jasotzeko. Aurtun, baina, joera hori eten egin da Nafarroan, laguntza edo zerbitzu baten zain direnen zerrenda erdira murriztu baita urte-betean: 749 ziren 2021eko txostenean, eta 328 dira 2022koan. %56 laburtu da, beraz.

Maeztu kontseilariaren arabera, joera aldatuta horrek erakusten du azken urteetan «hobetu» egin dela mendekotasun sistemen kudeaketa. Xehetasun gehiago eman ditu Francesek: «Iaz 7.719 balorazio egin ziren –eskatzaileei mendekotasuna aitortzen zaien ebazteko prozedurak dira–, balorazio gehien egin diren urtean artean bigarrena; eta mendekotasuna aitortua izateko batez besteko epea 2,85



Maeztu eta Frances, atzo, txostenaren aurkezpenean. IÑIGO URIZ / FOKU

hilabeteakoa izan zen, Mendekotasun Legeak ezartzen dituen sei hilabeteko epea baino dezente gutxiago».

GORANTZKOAN DEN ARAZOA

Itxaron zerrenden murrizketak, baina, ezin du fenomeno oroko-

rra ezkutatu: gero eta pertsona gehiagok behar dute laguntzaren bat egunerokoan. Batzuek telelaguntzarako dispositibo baten bidez behar dute. Beste batzuek, berriz, etxeko arta zerbitzuen bidez jasotzen dute laguntza, edota profesionalak kontratatzeke la-

guntzen bitartez. Badira ere eguneko zentroetan edo zahar etxe batean laguntza jasotzen dutenak.

2022ko datuen arabera, 17.334 pertsona daude mendekotasuna dutenen erregistro ofizialean izena emanda, aurreko urtean baino 290 gehiago (%1,7ko hazkunde). Uneotan, herritar guztien %2,61 dira, baina gobernuak uste du datu hori handituko dela. Zehazki, uste du datozen 10-15 urteetan kopuru hori bikoiztuko dela. «2037. urterako, mendekotasuna aitortua dutenen ehunekoa %3,1ekoa izan daiteke; ez dirudi asko denik, baina erronka oso handia izan da ongizatearen estatuari begira, zerbitzuen eskatzaileak bikoiztu egingen baitira, eta administrazioak prest egon beharko du horretarako», esan du Maeztuk.

MEDEKOTASUNAREN SOSLAIA

Laguntzak edo zerbitzuak eskatzen dituztenen ezaugarriak ere aztertu dituzte mendekotasunari buruzko txostenean, eta ondorio nagusia da laguntza behar dutenen soslaia «oso feminizatua» dagoela. «Gailentzen den soslaia da 80 urtetik gorako emakume batena, mendekotasun gradu apala duena», azaldu du kontseilariak.

Jasotzen duten prestazioari dagokionez, zerbitzu bat eskatzen dute gehienek (%55ek). «Kasu askotan, zahar etxe batean izena ematea eskatzen dute, larrialdietarako telefono bidezko dispositibo bat edo etxeko arta zerbitzua», zehaztu du Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendariak. Gainerakoek (%45ek) diru laguntza bat eskatzen dute, mendekotasuna duen pertsona etxean zaindu ahal izateko.

INBERTSIO HANDIAGOA

Laguntzak bermatu ahal izateko, Nafarroako Gobernuak nabarmendu du handitu egin duela mendekotasunera bideratutako diru kopurua: 2022an, guztira, 161,9 milioi euro inbertitu zituzten. Horietatik, %81,6 izan ziren Maria Txibiteren gobernuak berak jarritakoak, eta %18,4, berriz, Espainiako Gobernuak emanak.

«Inbertsioa handiagoa da urte-tik urtera, eta ez soilik eskatzaileen kopuruak gora egin duelako, baizik eta horren aldeko apustu garbia egin dugulako», esan du Maeztuk. «Inbertsioa %12,1 handitu da iazkoarekin alderatuta, eta %61,6, 2015ekoarekin alderatzen badugu».

Baina zergatik? Soziolinguistika Klusterreko ikertzailea da Pablo Suberbiola, eta argi du eredu bakoitzak euskarra gaitasunean denera eragina neurtzeko aldagai askori erreparatu behar zaiela. «A eredia zona eraldatuenetan hautatzen da nagusiki; herritarren %60 eskaldun diren eremuetan inor ez doa A eredia: ez dago A ereduko talderik. B eredukoak ere erdi edo behe mailako ezagutza dagoen tokietan kokatzen dira gehienbat. Halaber, etxetik eskaldun diren oso gutxi joaten dira A eredia. Orduan, alderak daitezke datuak, baina alderaketak egitean kontuan hartu behar da emaitzak ez direla ereduaren ondorioa bakarrik». Zehatzago azaldu du bere esana: «Izan ere, A eta B ereduetan ari direnei eskolara D ereduko-



ei baino euskara gutxiago ematen die, oinarri ahulagoa. Horrez gain, hautu hori egiten dutenek batez beste familia erdaldunak dituzte, aisialdian euskara gutxiago darabilte... Aldagai bat baino gehiago elkartzen dira».

Eta D eredu bera ere aldatu egiten da hedatu ahala, Suberbiolaren hitzetan: «Eredu horretan gero eta populazio askotarikoagoa biltzen da, gero eta erronka handiagoa du: zailtasun gehiago dauzka ere du bezala eskolan ingurune euskaldun bat eskaintzeko. 'Eskola hau D eredukoa da', esaten da. Baina hori 2000. urtean edo orain esatea ezberdina da».

Garroren irudiko, bi faktorek eragiten dute euskalduntzean. Bat: eskolaz kanpokoak. «Eskolaz kanpoko faktoreek eragin zuzena daukate ikasleen hizkuntzen ikaskuntzan eta euskaldun-

tzean: familiek, eskolaz kanpoko jarduerak, kultura kontsumoak...». Eta bi: ikastetxe barruko egiteko moduek. «D ereduak kopurutan ulertzen dugu, zenbat ordu egiten diren euskaraz; ez da hori bakarrik. Kantitateaz gainera, kalitatea dago: hizkuntzen irakaskuntzarako jartzen diren baliabideak, alderdi pedagogiko-didaktikoa, euskararen eta euskal kulturaren zer-nolako lanketa egiten den, zein toki eskaintzen diren euskaraz hitz egiteko... Horrek denak eragina dauka».

Segregaziorako bide

Euskara ikasteko muga ez ezik, aukera berdintasuna ukatzeko bide ere izan daitezke ereduak. Izan ere, segregazioa hauspotzen duten faktoreetako bat da -nagusia ez bada ere-. Hori frogatzen du Eusko Jaurlaritzak 2017-2018ko

matrikulazio datuak aintzat hartuta egindako *Atzerriko ikasleen eskolatzeari EAEko eskola sistemantxostenean*. Hiru ikasle mota aztertu dituzte: bertakoak, aurrekoak atzerriarrikak dituztenak -ikaslea Espainiako estatuan jaio denean-, eta, gutxienez, gurasoetako bat handik kanpo jaiotakoa denean-; eta atzerrian jaiotakoak -ikaslea bera Espainiako estatutik kanpo jaiotakoa denean-.

Eta mahai gainean jarri du ereduaren arteko aldea. Hiru taldeen argazkia desberdina da. Bertakoenak: hamarretik zazpik D ereduak aukeratzen dute, bik Beredura, eta batek A ereduak. Aurrekoak atzerriarrikak dituztenak: hamarretik seiak jotzen dute D ereduak, hiruk Beredura, eta batek A ereduak. Eta atzerrian jaiotakoena: hamarretik lau joaten dira D ereduak, hiruk Beredura eta beste hiru A ereduak.

EZAUGARRIAK

EAEko Eskola Kontseiluak egindako Euskadiko Hezkuntza Sistemari Buruzko Txostena 2017-2019 azterketan eredu bakoitzaren ezaugarri nagusiak xehatu zituzten, 2017ko ebaluazio diagnostikoko datuak oinarritzat hartuta. Hona hemen laburpena:

A EREDUA

Publikoa

Ikasleen ezaugarriak. DBH2ko ikasleen artean, batez besteko ISEK Indize Sozioekonomiko eta Kulturala baxua da; ikasleen % 65,2 etorkinak dira; eta %0,1ek dituzte guraso euskaldunak.

Emaitzak. 2017-2018ko ikasturtean, DBH2n hamar ikaslelik hiru gaitzen zituzten ikasgai guztiak, eta hamarretik zazpik lortu zuten hurrengo mailara igarotzea.

Itunpekoa

Ikasleen ezaugarriak. Eredu guztien artean, honek jasotzen du batez beste ISEK handiena dutenak; maila altukoak dira ikasle gehienak. Halaber, DBH2n %11,8 dira etorkinak, eta %0,7k dituzte guraso euskaldunak.

Emaitzak. DBH2ko hamar ikaslelik zazpik gaitzen zituzten ikasgai guztiak, eta hamarretik bederatzi igarotzen dira hurrengo mailara.

B EREDUA

Publikoa

Ikasleen ezaugarriak. B eredu publikoan ikasleen batez besteko ISEK maila baxua da. Gainera, gero eta ikasle etorkin gehiago eskolatzen ditu, eta, egun, hamar ikaslelik hiru dira. Euskaldunek, berriz, oro har ez dute eredu hori aukeratzeko seme-alabentzat: DB2koen familien %0,4 dira euskaldunak.

Halere, aldea dago sarearen arabera. «Bereizketa garrantzitsua» da, txostenaren arabera: «Sare publikoan D ereduak eskolatzea nagusitzen da, eta itunpeko sarean, berriz, atzerriko ikasleak baturagoak daude hiru ereduaren artean». Pare bat adibide: publikoaren doaz atzerriarrikak jotzen diren artean, DBHn hamarretik zortzik aukeratzen dute D ereduak, hamarretik batek B ereduak, eta beste batek A ereduak; itunpekoaren artean, berriz, hiru joaten dira D ereduak, bost Beredura, eta bi A ereduak.

Ikusitakoak ikusita, aurrerantz zentzuzko ereduak ez dago ezkerreko bueltarik EAJK eta PSE-EEK EAEko Hezkuntza Lege proiektuari hizkuntza ereduak aipatuz jarritako zuzenketak. Garrok, berriz, beste sistema batera jotzeko be-

Emaitzak. DBH2ko hamar ikaslelik lau gaitzen zituzten ikasgai guztiak, eta hamarretik zazpi dira hurrengo mailara pasatzeko gai.

Itunpekoa

Ikasleen ezaugarriak. Ikasleen batez besteko ISEK maila ertain altua da. Ikasleen familia jatorri dagokionean, %9,4 dira jatorri atzerriarrek, eta ikasleen %2,9k dute familia euskalduna.

Emaitzak. Hamar ikaslelik zazpik gaitzen zituzten ikasgaiak, eta ia-ia guztiak igarotzen dira mailaz: hamarretik bederatzi.

D EREDUA

Publikoa

Ikasleen ezaugarriak. Mota askotako ikasleak jasotzen ditu. ISEK maila ertain baxua da LHn, eta ertain-altua DBHn. Eskolatutako ikasleen familien ezaugarri errepertatua, etorkinak dira ikasleen %6,2 DBH2n. Familia euskaldunen presentzia, berriz, «nahiko egonkorra» da: %23,2 dira DBHn.

Emaitzak. Oro har, emaitza onak lortzen dituzte: ikasleen %65ek ikasgai guztiak gaitzen zituzte, eta %88k lortzen dute hurrengo mailara igarotzea.

Itunpekoa

Ikasleen ezaugarriak. ISEK mailari dagokionez, itunpeko A ereduaren ostean maila altueneko ikasleak jasotzen ditu. Bestelako ezaugarri begira jarrita, berriz, DBHn ikasleen %3,4 dira etorkinak, eta ehunekoetan familia euskaldun gehien jasotzen duena da: %32,5 dira DBHn.

Emaitzak. Emaitza akademikoak «oso positiboak» dira: %83k ikasgai guztiak gaitzen zituzte, eta ikasle ia guztiak igarotzen dira hurrengo mailara: %95,7.

harra ikusten du: «Zaila egiten zait iruditzea ereduak bere horretan mantentzen diren etorkizun bat». Izan ere, haren esanetan, hizkuntzen irakaskuntzan ari diren artean beste eztabaida batzuk dituzte: «Iruditzen zait askoz eztabaida inportanteagoa dela zer ikasle profil nahi dugun, eta ikasle profil horren arabera ondorioztatuko da nola egin behar den irakaskuntza». Azaldu du: «Argi badago ikasle euskaldun eleaniztunak izatea dela gure helburua, pentsatu beharko dugu zer egin beharko den horiek heztere. Ildo horretan, nahiko argi dago ereduak ez direla horretarako bideak». Kontrara, uste du badaudela bi norabide urratzeko: euskara eskolaren eta eskolaz kanpokoaren ardura gisa hartzea, eta kontuan izatea hizkuntza gutxitua dela eta arriskuan dagoela.

EAErako ontzen ari diren Hezkuntza Legeko zuzenketetan PSEk eta EAJk hizkuntza ereduak eta Euskararen Legea «propio» aipatu izanak, eta aipatzeko erak, biek sortu dituzte galderak.

Hizkuntza ereduaren tokiaz

Arantxa Iraola

Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako ontzen ari diren Hezkuntza Legea tarteko, hizkuntza ereduaren gaineko gogoeak eta iritzi trukaketak hedabideen lehen lerroetan daude. Eredu horiek aipatzen ez dituen testu baten gainean lortu zuten lehen akordioa talde politikoei, eta horren defentsan jarraitzen du, adibidez, EH Bilduk. EAJk eta PSE-EEK, ordea, zuzenketa bat hitzartu zuten orain dela aste batzuk; irakas-hizkuntzei buruzkoak Euskararen Legeak zedarritutako lege esparruan finkatu behar direla zehaztu zuten, eta hizkuntza ereduak indarrean daudela. Horren aldeko arrazoibideak ematen jarraitzen dute. Asteburu honetan bertan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu Jokin Bildarratzek argudiatu du aldaketa horretan ez dagoela deus okerrik, eta erantsi du «ereduak existitzen» direla Euskararen Legeak jasotzen dituelako. Baina ez dago adostasunik horretan.

EHUko irakaslea da Iñigo Urrutia, legegaria, eta hizkuntza eskubideetan aditua: «Galdera juridikoa izango litzateke: lege berriak indargabetzen al du Euskararen Legea? Izan ere, lege horrek hezkuntzan hizkuntza aukatatzeko eskubidea aitortzen du». 1982koa da Euskararen Legea, eta hizkuntza politikaren irizpideak jarri ditu iragan lau hamarraldietan, baita hezkuntzara begira ere.

«Irakaskuntza osoa euskaraz edo gaztelaz jasotzeko eskubidea aitortzen da», nabarmendu du Urrutiak. 15. artikuluan zehazten da, hain justu, eskubide hori Euskararen Legean. Halaxe dago jasota: «Ikasle guztiei aitortzen zaie irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietan». Eskubide horren beste aipamen bat ere bada: 16. artikuluan lehen puntuan, hain zuzen ere. Artikulu horren lehen puntuak dio euska-

razko irakaskuntzaren alde egiten bada, gaztelera ikasgai bezala ikasi beharko dela; eta alderantziz, gauza bera, gaztelarazko irakaskuntzaren alde egiten bada, euskara irakasgai modura ikasi beharko dela», azaldu du Urrutiak.

Testuan behin bakarrik aipatzen dira hizkuntza ereduak, 16. artikuluan bigarren puntuan. Horra: «Jaurlaritzak ikastetxe bakoitzean irakatsi beharreko hizkuntza ereduak finkatuko ditu, guraso-kuradoreen nahia eta tokian tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta». Hizkuntza ereduak buruzko gainerako zehaztapenak aurrerago eman ziren, dekretu baten bitartez. Agiri hartan zehaztu ziren A, B eta D ereduaren ezaugarriak.

Galdera

Lege berriari forma emateko idatzi den testuan ez da propio Euskararen Legea indargabetzeko xedapenik erantsi, eta «propio» aipatu dute orain jeltzaleek eta PSE-EEK elkarrekin itundu duten zuzenketan. Horregatik, Urrutiaren arabera, galdera funtsezko bat sortu da: «Erabakitzeo eskubidea indarrean dago edo ez?». Zuzenketaren aurretik, lege proiektuaren lehendabiziko ira-



Arazoak gertatuko dira. Erabakitzeo eskubidea nekez uzta daiteke ikastegiko hizkuntza autonomiarekin»

Iñigo Urrutia
Legelaria

kurketa batean, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak hizkuntza eredurik gabeko bidea onetsi zuela adierazi du Urrutiak: «Hain zuzen ere, ulertu zuen, izatez, hizkuntza eskubidea hautatzeko eskubidea aipatzen ez duenez, sistema berri bati bidea ematen diola lege berriak, ikastetxe bakoitzak garatu beharko duelako



Bildarratz, artxiboko irudi batean. ENDIKA PORTILLO / FOKU

bere hizkuntza proiektua».

«Baina zuzenketak gauzak konpilatu ditu», ohartarazi du Urrutiak. Aditza eman duenez, guraso batek, adibidez, gaztelania lehenesten duen hizkuntza eredu bat eskatuko balu, galdera hau sortuko litzateke: gurasoen eskea gailendu behar den, edo ikastegiaren hizkuntza proiektua. «Eta arazo juridikoak gertatuko dira», iragarri du. «Erabakitzeo eskubidea nekez uzta daiteke ikastegiko hizkuntza autonomiarekin, eta gerta daiteke behartuta egotea gaztelaniazko irakaskuntza eskaintzera». Beraz, zuzenketak ekar ditzakeen ondorioak ezin direla hutsaldu uste du: «Bi sistemaren arteko talka da, handia».

Hain justu, batetik, eskolek autonomia izango dute egokiena deritzoten hizkuntzen trataera

hautatzeko, betiere euskara ardatz hartuta eta irizpide honekin: B2 maila izan beharko dute ikasleek derrigorrezko zikloa burutzeari, euskaraz eta gaztelaniaz. Baina gero legean gurasoen hautatzeko eskubidea propio indarrean dagoela zehaztu denez, hori ere errespetatu beharko da. Hor dago auziaren muina.

PSE-EEK eta jeltzaleek hitzartutako 26. zuzenketari ere erreparatu dio Urrutiak. Gaztelania eta ingelesa ere irakas-hizkuntzak izango direla aurreikusten du. Hain justu, ikastetxeetako hizkuntza proiektuak lantzeko printzipioak ezartzea du helburu, eta pasarte honi erreparatu dio, bereziki: «Curriculum osatzen duten hizkuntza guztiak ikasi egin beharko dira, eta ezagutza sortzeko eta transmititzeko tresna izan beharko dute». Esaldia- ren bigarren zatia «helmena» ez dela argia uste du. «D eredu misto batera jauzi egitea ote da

helburua?». Duda du, baina bidera daitekeela uste du: «Oraindik bada aukerarik zuzenketa horren helmena ongi zedarritzeko tramitazio parlamentarioan».

«Interpretatzeko» giltza

Legearen zioen adierazpenetan jarri dute hizkuntza ereduak buruzko zuzenketa, gero ez da aipamenik legearen artikulatua. Horrek, berez, ez dio aldaketari garrantzirik kentzen, hala ere, Urrutiaren iritzian. «Espainiako Konstituzio Auzitegiak hainbatetan esan du zein den hitzaurre horien balio juridikoa; hain justu ere, esaten du legeak interpretatzeko baliagarriak direla», esplikatu du. Berez, adierazpenen ziotan jartzen duena ezin da ezarri «zuzenean»: ez dauka «indar juridikorik». Baina ez dira hitz hutsoak: «Jartzen duena baliagarria da legearen helmena interpretatzeko». Hortik kezka: «Gatazka judicialak planteatuko dira».

Ikasleei iraganaren memoria kritikoa azaltzea aldarrikatu du Urkulluk

Indarkeria politikoaren ondorioei buruzko testigantzak izan dira ardatz Memoriaren Nazioarteko Egunean • 180 lagun batu dira Euskaldunan

J. Senar - G. Izagirre

Oraingo zein etorkizuneko belaunaldiak iragan hurbilean izandako indarkerien berri izateari eman zitzaion garrantzia atzo Memoriaren Nazioarteko Egunean. Eusko Jaurlaritzak Euskalduna jauregian antolatu zuen ekitaldi nagusia, Bilbon, *Memoria duen etorkizuna. Jakin nahi dugu!* lelopean. Indarkeria politikoaren biktima guztien oroimena landu eta memoriaren transmisioa hartu zuen ardatz. Bertan Iñigo Urkullu Jaurlaritzako lehendakaria azpimarratu zuen «ETAre, terrorismo parapolizialaren, eskuin muturreko indarkeriaren eta torturaren» memoria kritikoa egin behar dela.

Orotara, 180 gonbidatu elkartziren Euskaldunan. Hamahiru ikastetxetako, EHUko eta Deustuko Unibertsitateko 110 irakasle eta ikasle elkartziren. Hasieran bideo bat jarri zuten, eta bertan irakasleek eta ikasleek gogoeta egiten zuten iraganeko hainbat gertakari lazgarriez zekitenaz eta ez zekitenaz, bi urteotan ikasitakoak eta memoriaren arloan egin beharrekoak. Azken bi ikasturteetan Gogora institutuak eta Hezkuntza Sailak Adi-Adian programa landu dute, 314.651 ikasleklasean biktimen lehen eskuko testigantzak entzuteko.

Hezkuntza komunitateko eragileez gain, erakundeetako eta

biktimen ordezkariak zabala egon zen. Lekukotasunek eta memoriaren transmisioak hartu zuten protagonismoa. Ezagutzen zutenetik abiatuta, memoria eraikitzen laguntzeko esperientziak jardun zuten.

Euskaldunak ez zen ekitaldi bakarra izan. Memoriaren Nazioarteko Egunean harira, hainbat kontzentrazio eta topaketa egin zituzten. Eusko Legebiltzarrean 10:00etan egin zuten geldialdia. Aurreko urteetan bezala, su-ontzi bat piztu dute *Gauerdiko iparrratz*a biktimen omenezko eskulturaren ondoan. Bakartxo Tejeria legebiltzarreko presidentea eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakaria buru zutela, bi minutuko isilunea egin zuten. PP, Cs eta Voxeko ordezkariak ez zuten parte hartu.

«Memoria inklusiboa»

Atzo goizean Etixerat-ek ere elkarretaratzea egin zuen, Gasteizen. Gogoan hartu zituzten euskal presoek kontrako sakabanaketa politikaren ondorioz Espainia eta Frantziako espetxeetara egindako bidaietan hil diren hamasei senideak eta hurbilekoak. «Etixerat-ek aktibo izaten jarraitu nahi du bizikidetzaren eta memoria inklusiboaren eraikuntzan, baina memoria kolektibo ofizialak oraindik ez ditu aintzat hartzen presoek eta haien ingurukoek hiru hamarkada luze hauetan erantsi-

tako zigorraren bidegabekeria jasanez. Etixerat-en ustez, 12/2016 legea izan liteke tresna egokia sakabanaketaren biktimen aitortza eta erreparazioa ezartzeko, motibazio politikoko indarkeria dela-eta giza eskubideak urratu zaizkien biktimei aitortza eta erreparazioa ematen dien legea.



Atzo, Euskaldunan egindako ekitaldia. ARITZ LOIOLA / FOKU



ENPRESA EKIMEN BERRIEN XXVI. SARI BANAKETA

26 URTE BETE DITU GOIERRIKO ENPRESA EKIMEN BERRIEN LEHIAKETAK

XXVI. edizioa ospatzeko eta aurtengo Lehiaketaren sari banaketa gauzatzeko, ekitaldi berezia antolatu zuten azaroaren 8an, Goierriko Garapen Agentziak eta Goierri Valley Elkarteak elkarlanean, Ampoko balbuletako eraikinean. Udalak, Enpresa Babesleak, eskualdeko ikastetxetako ordezkariak eta beste hainbat eragile gerturatu ziren bertara.

Goiekik hainbat proiektu garatu ditu 2023an, horien artean eskualdeko enplegu plana eta ZTIM bokazio eta lanbideak. Burutu diren diagnostiko guztietan argi eta garbi geratzen dira momentuko erronkak, demografia aldaketa, profesional falta industrian, erreleboak eta genero arteko desberdintasunak ZTIM lanbideei dagokionez.

Egoera honetatik abiatuta, gizonen protagonismo handia duten sektoreetan, emakumeek ere zer esan eta zer egin handia dutela aldarrikatu nahi izan zen sari banaketa ekitaldi honetan.

Hori dela eta, aurtengo hitzaldiko gonbidatu berezia ANE MINTEGI tenisleri idiazabalbarra izan zen, Wimbledon 2021eko junior txapeladuna.

Baina ez da izan bere traiektoria kontatu digun emakume bakarra, AMPOk I+D saileko arduradunak, Leire Colomok, eta GEOLANeko bazkideak, Alicia Risueñok, lan egiten duten sektoreetan dagoen errealtateak eta bizitako ibilbideak hitz egin zuten

XXVI. SARI BANAKETA

Hitzaldien ostean, Enpresa Ekimen Berrien XXVI. Sariak ekin zitzaion.

Aurtengo enpresa babesleak, Irizar, Ampo, Goilan Fundazioa, Goierri Beheko Industriadia, Tacticco, Orkli, Arcelor Mittal, Hine, Nippon Gases, Giteb, Hitza, Aluminex, Arri, Ederfil Becker, Ezarri, Gailaser, GH, Jaso Industrial Cranes eta Biok izan ziren.

XXVI. ekitaldi honetan lehiaketarekiko interesa erakutsi duten proiektu guztien artean azterketa sakon bat egin ostean, 9 izan dira aurkezteko baldintzak bete dituztenak eta azken fasera iritsi direnak. Kategoria desberdinetan sailkatu diren 9 proiektu horiek epaimahaitik pasa dira eta ondorengoak izan dira irabazleak:

- **ENPRESA EKIMEN BERRIKO PROIEKTU ONENA:**
Saria, 6.000€, BIOVASK- entzat izan da.
- **ENPRESAN BURUTURIKO PROIEKTU BERRITZAILE ONENA:**
Saria, 2.000€, BIKO ZERBITZUAK S.L. enpresarentzat izan da.
- **EKINTZAILETZAREN BITARTEZ GIZARTE INKLUSIO PROIEKTU ONENA:**
Saria, 2.000€, AITZKORPE KAFETEGIA- rentzat izan da.

EH Bilduk eskatu du estatutaren biktimak aitortzeko

+ Julen Arzuaga EH Bilduko legebiltzarkideak legez besteko proposamen bat aurkeztu zuen Eusko Legebiltzarrean, estatutaren biktimen alorrean urratsak egitea galdegiteko, eta zuzenki Madrilgo gobernuaren interpelatuta. Arzuagak azaldu zuen Poliziaren Biktimen Balarazio Batzordearen eskaera aintzat hartuta bideratu dutela legez besteko propo-

samena, eta «berezi» oroitu nahi izan dituzte Memoriaren Egunean, «bigarren mailan dau denak».

Batez ere, Espainiako Estatua interpelatu dute, estatutaren biktimekiko erantzukizuna onar dezan eta justizia eta erreparazioa eman diezaien. Horiek guztiak izan duten inpunitatea salatu du: «Horrek amaitu behar du, biktimek ez dute birbiktimitaztea eta irainduak izatea merezi». Halaber, Jaurlaritzari eskatu zion estatutaren biktimen aitortza eta erreparazio prozesurako baliabideak jar ditzala.

Sustraiak urrun dituzten hiztunei euskara ez «ukatze» deia egin dute

UEMAk kanpaina bat abiatu du euskaldun arrazializatuaren inguruan usu egoten diren aurreiritziak apurtzen saiatzeko • Haur eta gazteen bizipenak dira kanpainaren muina

Arantxa Iraola Ibarra

«Euskaldunak dira Arlenys, Haider, Aimar, Aya, Nora, Sefora, Miruna, Randy, Ekhi Hanna, Anastasia, Andriy Zunnurain, Lasanna, Abdallah, Alaia, Rayan eta Leen». Hitz horiekin hasten da atzo Udalerrri Euskaldunen Mankomunitate UEMAK Ibarra (Gipuzkoa) aurkeztu zuten kanpainaren gaineko azalpenak emateko oharra; *Egin nirekin euskaraz!* izena du, eta horren bidez nabarmendu nahi dute udalerrri euskaldunetan badirela «sustraiak» beste herrialdeetan izan arren Euskal Herrian «errotu» diren herritarrek, eta haien gaineko aurreiritziak apurtu behar direla, euskara inork «uka» ez diezaion. «Askotan, azalaren kolorearenatik, aurreiritziengatik edota auskalo zergatik, erdaraz hitz egiten diete gainerako herritarrek. Eta ez zaie gustatzen», azaldu zu-

Kezka nahiko zabaldua da: «Udalerrri euskaldun askotan beharrezkoa ikusi dugu kanpaina hau»

ten. Lehen pertsona ere hitz egin zuten kanpotik etorritako hainbat herritarren seme-alabek.

Gazteen ondoan izan ziren UEMAKo lehendakari Martin Aramendi, Zaldibiako herri eskolako zuzendari Eider Amundarain eta Ibarra Uzturpe ikastolako zuzendari Aitor Bengoa. Aramendik zehaztu zuen kanpaina honen abiaburua *Kulturartekotasuna udalerrri euskaldunetan* izeneko egitasmoa dela. Zaldibian (Gipuzkoa) abiatu zuen aurrena UEMAK, Huhezirekin eta udalerriko hainbat eragilarekin elkarlanean.

«Bertako ikasleen herenak kanpoko herrietatik etorritako gurasoen seme-alabak dira gaur egun, eta eskolak behar handia ikusi zuen haien gurasoengana heltzeko, haien kulturak errespetatuz, baina euskara erdigunean jartzeko beharra ere nabarmenduz».

Egitasmo hori udalerrri gehiagotara ere zabaldu dute, eta kulturartekotasunaren lanketa horretan ikusi dute sarri «aurreiritziak» zama direla aurrera egiteko. Horregatik jarri dute martxan orain propio kanpaina hau, erakusteko euskarak «kolore» asko dituela. Horiek horrela, atzeritik heldutako herritarrei eta haien umeei ere euskaraz hitz egiteko deia egin nahi da.

Helduei begira ere bai

Kanpaina ez da gazteei begirakoa bakarrik. «Ikasleek hartu dute hitza», azaldu zuen Aramendik. «Baina helduek ere kontu bera esaten digute askotan: euskara ikasten egundoko ahalegina egin dutela, euskara ikasten ari direla edo euskara ikasi dutela, eta gero erdaraz hasten

zaizkiela herritarrek. Beraz, kanpainaren irudietan ikasleak agertzen diren arren, helduentzat pentsatutako kanpaina ere bada», zehaztu zuen. Kezka nahiko zabaldua dela esan zuen Amundarainek. «Udalerrri euskaldun askotan beharrezkoa ikusi dugu kanpaina hau».

Hamasei haur eta gaztek jarri diote bihotza eta ahotsa kanpainari, beren bizipenetatik. Bideo bat, kartelak eta diptikoak egin dituzte mezua zabaltzeko. Atzokoia izan zen lehen aurkezpena, baina gehiago ere egingo dituzte.



Kanpainaren aurkezpena, atzo, Ibarra. ANDONI CANELLADA / FOKU

Hizkuntza hautuez aritzean erreparatu egin behar zaie jatorria atzerrian duten herritarrei ere. Ederki azaldu zuten atzo hori Andriy eta Anastasia Tsera anai-arrebek eta Aitor Bengoa haien eskolako zuzendariak: beren bizipenetatik.

«Jendea hasten zaigu erderaz; ez zait gustatzen»

A. Iraola

Begira, horko hori ni naiz». Kartelak egin ditu UEMAK *Egin nirekin euskaraz!* kanpainaren berri emateko, haur eta nerabeak agertzen dira horietan, eta aurpegi horien guztien artean berea zein den erakutsi nahi du Anastasia Tserak. Datorren ikasturtean hasiko da LH Lehen Hezkuntzan: 5 urte ditu. Andriy anaiak, 9; datorren ikasturtean amaitek du LH. Atzo kanpainaren aurkezpenan hitza hartu zuten haurretako bi izan ziren. Ibarra bizi dira biak, hango Uzturpe eskolako ikasleak dira, euskaraz jori egiten dute, baina gurasoak Ukrainan sortuak dituzte, eta jatorriagatik usu sortzen diren aurreiritzien zama sentitu dute behin baino gehiagotan.

«Gu biok Donostian jaiok gara, baina inguruko pertsonak askotan pentsatzen dute gu Ukrainakoak garela; baina hori ez da horrela», azaldu du anaiak. Hizkuntza hautuan sentitu du maiz

besteen begiradak zelan ikusten dituen: «Jendea askotan hasten zaigu erdaraz; niri ez zait gustatzen». Haurrek sarri sentitzen dute helduei gauzarik oinarritzokoenak ere azaldu behar zaizkiela, eta bere hitzetan ere agerikoa du sentipen hori. «Gure gurasoak dira ukrainarrak: gu Euskal Herrikoak gara». Etxean jaso gabe euskaraz noiz eta nola ikasi duten argitzen ere ez daki: naturala izan da. «Gure hizkuntza da». Dakizkiten gainerakoak ere harro zerrendatu dituzte bi umek.

Aldaketa betean

Ondoan ikastetxeko zuzendaria dute haurrek, Aitor Bengoa. Uzturpe ikastolan ondo asko igarritzen ari dira atzeritik heldutako familien gainerakoak ere harro zerrendatu dituzte bi umek. «Gure familietan lautik bat gurasoak kanpotik etorritakoak dira», azaldu du. Urruneko herrialdeetatik etorriak dira asko. Ondorioak ditu horrek, gero eta argiagoak: «Urte gutxitan aldaketa handia egon da ikastolako

geletan hizkuntzari dagokionez. Eta urte gutxi diodanean, benetan dira urte gutxi: guk 2 urtetik 16 urte arteko ikasleak ditugu, eta adin tarte horretan ja antzematen dugu aldea: ikasle zaharrenetan, DBHko azken mailatan-eta, kanpotik etorritako ikasle eta familiak baditugu, baina ez hainbeste. Haur Hezkuntzan-eta, berriz, beste errealitate bat daukagu».

UEMAk eta Huhezik euskara eta kulturartekotasuna lantzeko duten egitasmoari horregatik erreparatu zioten artaz. «Proiektu horrek baditu adar ezberdinak, eta hortxe ari gara», azaldu du Bengoak. Egiteko lan handia dagoela uste du, «elkar ezagutzan», bereziki. Euskararen gainekoak eskolaren eginkizuna direlako, baina harago ere egin behar delako ezinbestean. «Gurasoei, familiei, lan egin beharra dago, haiei adierazteko non gauden, gure hizkuntza zein den eta abar. Gurasoei lan egiten ez badugu, ikasleekin egiten dugun lana ez da hain nabarmena izango».

EHIGEkanpaina bat hasi du eskola jantokiak kontrolatzeko

DONOSTIA • EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak jakinarazi du kanpaina bat abiatu duela eskola jantokiak kontrolatzeko eta horien jarraipena egiteko. Adierazi dute ikasturtea hastearrekin batera aldatu egin direla jangeletara janaria eramaten duten enpresak Araba, Bizkai eta Gipuzkoako eskola publikoetan, eta «kexa eta kezka» ugari sortu direla. Familiek parte hartu ez izana kritikatu du.

Osasun publikoaren desegitea salatu dute Arabako langileek

Osasun publikoa «larri» dagoela eta pribatizatzen ari direla ohartarazi dute Arabako ESiko beharginek

DONOSTIA • Arabako ESI erakunde sanitario integratuko zuzendaritza berriak «kudeaketa absolutistaren erakustaldia» egin duela uste dute Arabako Langile Espezializatu Batzordeak, Santiago ospitaleko enpresa batzordeak eta lehen mailako arretako langileen batzordeak. Nabarmendu dute gero eta gehiago pribatizatzen ari direla zerbitzuak, «osasun publikoa desegin, zatitu eta eskaintzaile onenari saltzeko helburu bakarrekin».

Txagorritxuko ospitalearen aurrean egindako agerraldi batean, Arabako ESiko langileek atzo azaldu zuten ordutegiak «jasanezinak» direla eta inposatu egin dizkietela. Horrek, langileen esanetan, eragin negatiboa du lanaren kalitatean.

2023an inoiz baino kexa eta erreklamazio gehiago jaso ditu Osakidetza: urtariletik irailera 36.060, iaz baino %10,3 gehiago. Erreklamazio eta kexa horien atzean dauden arazoak zerrendatu zituzten langileek: «Plantilla murrizketak, zuzendaritzari komeni zaizkion zerbitzuak baztertzea, langileak ez egonkortzea, itxaron zerrenda amaigabeak eta onartezinak, zuzendaritzaren aldeko akordioen interpretazioak...».

Langileek bat egin zuten Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek gaurko Bilbon, Donostian eta Gasteizen antolatutako manifestazioekin: Bilbon, 12:00etan, Jesusen Bihotzetik; Donostian, 17:00etan, Bulebarretik; eta Gasteizen, 12:00etan, Bilbo plazatik.

Xabier Goienetxea baldintzapean aske geratzeari onartu du epaileak

PARIS • Bake Bideak atzo jakinarazi zuenez, Parisko Zigorren Aplikazioarako Auzitegiak onetsi egin du Xabier Goienetxea baldintzapean aske uztea. Mugimenduak erran zuen auzitegiak «testuinguru berezi batean» hartu duela erabakia. Izan ere, PNAT Terrorismoaren Aurkako Fiskaltza helegitea jartzen ahal badu ere, audientzia egunean baldintzapeko askapena onartzearen alde agertu zen.

DARWIN ETA GU
Jose Mari Pastor



Senperetik San Frantziskora

Behinola herriko neska edo mutil batekin ezkontzen zinen. Festak aukera ederrak izaten ziren bikotekidea aurkitzeko.

Edo asteroko azokak. Edo ospakizun bereziren bat. Edozer aitzakiak balio zuen. Militantzia politikoak ere bai. Zenbat bikote sortu dira horrela? Eta borrokan? Zenbat Aberri Egunetako elkarretaratze klandestinoetan, jipoituta, manifestazioetan edo elkartasun bazkari alaietako betekadetan? Euskararen aldeko jaietan ere bai. Herri Urratsen, esate baterako. Gero, Poliziak atxilotu eta Senperen zenbat iheslarirekin egon zinen galdetzen zizun, zeren eta zu, jakina, soilik ETako kideekin egotera joaten baitzinen bertara, ez euskararen alde egitera edo, are gutxiago, Ahetzeko neska edo mutil batekin dragatzen, euskaldunok ez baitugu larutan egiten, bistan dena.

Orain Ibilaldia edo Kilometroak bezalako jaietara joaten gara, baina horiek ez dira ligatzeko abagune bakarrak. Egun, Araba Euskararen Iturmendiko lagun batekin solasean eta jolasean ibili ondoren, etxera itzuli eta txatean aritzen gara edonongo jendearekin goizaldera arte: Edinburgo aldeko *bad boy / girl* batekin, Vienako *Arschloch* batekin —zeharo kitzikatzen gaituena— edo Bue-

nos Airesko *mina* batekin. *International Love*, PitBull-en kantan bezala. *Besitos para todas las mujeres en Venezuela*. *Y en Miami tengo a cualquiera*.

Hori gutxi izan ez, eta laster aukera gehiago izango ditugu eskura. Elon Musk jauna Twitter osteko mundua imajinatzen hasi da. X Dating aplikazioa sortu nahi du. Horixe azaldu du *The Verge*-k, albiste teknologikoak biltzen dituen webguneak. He-dabidearen arabera, WeChat txinatarraren bertsioetik haratago joatea da Musken helburua. Produktu eta informazio zerbitzu guztiak eskaini gura ditu: TikTok, YouTube, FaceTime, Amazon, LinkedIn eta Tinder bezalako aplikazioei aurre egin; amodio / sexu harremanen online esparrua hankaz gora jarri eta haien zeregina eta funtzionamendua irauli. Eta erabiltzeko moduak aztertu eta hobetu. LinkedIn ez da Tinder, baina teoriarik arlo profesionalari lotutako aplikazioa gero eta sarriago baliatzen da harremanak lotzeko, ez bereziki lanaren eremukoak. Den-dena *low profile*, noski. Interes handiegirik ez duenaren plantak egiten, alegia.

Gozoagoa izango dugu maitasun-bizitza Muski esker? Zoriontsuagoak izango gara Lurreko enpresari aberatsenetako batekin San

Frantziskotik eskainiko digun amodio-paradisuan? Horixe saldu nahi digu. Hortaz, gehiago ligatuko dugu, baina erne bazterrak! Non dago neurria? Gehiegi ligatzera, gehiegi maitatzera pasatuko gara? Pozarren egon gaitetzke horrela, baldin eta gure bizi arazoia maitasunean eta sexuan hordituta egotea bada. Argi ibili, baina! Mozkorrak ajea ekartzen du biharamunean. Batez ere ait-zurra upela lakoa denean.

Norberaren gustu edo interesen arabera *flirt*-a izango da harreman berri horien hasiera puntua. Kalean edo tabernan legez ligatuko dugu, baina orain Elon Musk jaunaren eszentzian: zeure gustuko produktua erosten dituen jendearekin egin duzu berba; musika berdina aditzen duena maitatu duzu... Ukraina edo Palestinari buruz mintzatuko zara eta, bitartean, hamaikatzko jarrera iruditakotako dituzu zeure mintzaidari begira, pantailan sortuko duzun alegiazko ohean. Bikain!

Ez du zertan txarra izan, baina nik antzinako moduak hobesten ditut. Semeak edo alabak inoiz galdetzen badizu bere ama edo aita nola ezagutu zenuen, zer erantzun nahiago duzu? A: «Gozetan tren berdina hartzen genuen. Egun batean, zerbitzua atzeratu eta erreklamazioa egiteko ilaran hitz egin genuen lehen aldiz (eskerrik asko, Renfe)». B: «X Dating aplikazioan sartu nintzen hankarte bero-bero eginda nuen larunbat gau batean, likide bat eman nion ikusi nuen lehen trabukoari edo tortolari eta bingo! Handik ordu laurdenera karrika ilun batean geunden, bingibongo, saltsa eta fandango, aurretik hemengo eta atzetik hangoa». Nik ondo dakit. XXI. mendean bizi den XX. mendeko gizona izango naiz. Zer egingo diogu.

Hilberriak

Eskelak

(0034) 943-30 40 30
eskelak@bidera.eus

Beria.eus/eskelak

BERRIAlagunek eta BERRIAlagun harpidedunek
%25 merkeago izango dituzte eskelak


Fito Ramírez-Escudero Prado

*Pintorea, irakaslea eta filantropoa.
Ekintzailea, eskuzabala eta inspiratzailea.
Espresionista denean.
Alaia, adeitsua, maitagarria.
Urretabizkaia txarangaren algararekin batera:
adiorik ez, eta eskerrik asko, lagun!!!*



Mikela Dorronsoro Galarraga

Azaroaren 10ean hil zen, 81 urte zituela.

- Goian Bego -

Senarra: Juan Allur Zunzunegi (†); seme-alabak: Juanjoxe eta Ainhoa, Agurtzane eta Manex; bilobak: Olatz eta Aitor, Jone, Ander, Laia, Anje, Ekhi; anai-arrebak: Paula eta Justo (†), Marina (†), Pepi eta Pabli, Joxantonio, Maritxu eta Juanxio, Axun eta Antonio, Martzelino, Lurdes eta Bittor; ezkon anai-arrebak: Joxe Antonio (†), Isidro eta Juli, Joxe Mari eta Esther, Arantza, German eta Begoña, Xabier eta Maite, Inazio Mari; ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Haren arimaren alde otituz bat eskatzen dizuete, eta arren etor zaitezela hiletara: ASTELEHENEAN egongo da, arratsaldeko BOST eta ERDIETAN, Legorretako SALBATORE DEUNAREN parrokia elizan. Aldez aurretik, mila esker.

LEGORRETAN, 2023ko azaroaren 11n

OHARRA: gorputz beila Tolosako ORIA BEILATOKIAN egongo da GAUR, LARUNBATA, 11:00 - 13:30 eta 15:30 - 20:00 bitartean.

Alemaniarako industriak argindar merkeagoa izango du urte hasieran

Eztabaida luze baten ondoren, enpresa guztiei zergak jaistea eta gastu handikoei gehiago laguntzea hitzartu du Berlinek • 2024an eta 2025ean, urtean 12.000 milioi euro txikituko dizkie argindar zergak

Iker Aranburu

Alemaniarako Gobernuak zerga jaitsiera handi batekin estaliko du bere industriaren argindar faktura. 2024an eta 2025ean, urtean 12.000 milioi euro txikituko dizkie argindarraren gaineko zergak, eta, beharrezkoa bada, 2028. urtera arte luzatuko du neurria.

Neurriak talka egiten du Europako Batzordea azken asteetan egiten ari den eskaerarekin: argindarraren eta oro har energiaren prezioa merkatu egin denez, EBko kideei eskatu die bertan behera uzteko energia kontsumoari emandako laguntzak.

Gainera, Berlinek bere enpresei COVID-19aren pandemia hasi zenetik emandako laguntzei batuko zaie oraingoa, eta, Bruselaren begietan, barne merkatua are gehiago ahulduko du, Alemaniako enpresei abantailak ematen baitizkie. EBko herrialde txiki asko kexatu izan dira, haiek ezin izan dituztelako beren industriak Alemaniaren neurri berean lagundu.

Laguntza publikoak handitu egingo du Alemaniako enpresen lehiakortasuna, eta txikitu, berriz, haien lehiakideena. Euskal Herriko enpresetan ere eragina izan dezake, Alemania bazkide komertzial handia baita haien-tzat. 2022an, Hego Euskal Herriko enpresek egindako esportazioen %15,4 joan ziren Alemania-



Olaf Scholz Alemaniako gobernuburua, Basfen lantegi batera egindako bisita batean. ESSLER CHRISTIAN / EFE

ra, eta handik iritsi ziren inportazioen %14,9.

Alde handiz, Alemania da inportazioen jatorri handiena, eta esportazioen jomuga handienen artean bigarrena da, Frantziaren atzetik.

Barne desadostasunak

Eztabaida luze bat izan du barruan Berlingo gobernuak, batez

ere Robert Habeck Ekonomia ministro ekologistaren eta Christian Lindner Finantza ministro liberalaren artean. Lehenengoak eskatu zuen argindar asko erabiltzen duten enpresek gehienez 60 euro ordaintzea megawatt-ordua hurrengo hamar urteetan.

Haren aurrean, Lindner ministro liberalak proposatu zuen enpresa guztiei ez ezik, herritar guz-

teiei ere %95 txikitzea argindarraren gaineko tasa.

Azkenean, konpromisoa izan da Berdeek eskatutako laguntza-tik (30.000 milioi euro) oso gertu geratzea onartutakoa (28.000 milioi), baina ez jartzea gehienezko mugarik industriak ordaindu beharrek prezioei, eta neurria enpresa txikietara eta ertainetara ere hedatzea. Herritarrek lagun-

tzatik kanpo geratu diren arren, bere eragozpenak alde batera utzi, eta onartutako «merkatuko neurri» bat dela aldarrikatu du Lindnerrek.

Argindarraren gaineko orain arteko zerga -15,37 euro megawatt-orduko- txikitu egingo diote industria handiari, Europako Batasunak baimentzen duen gutxieneko mailara (0,5 euro MWh).

Ondarroako portuan 66 urteko arrantzale bat hil da

ONDARROA • LABek jakinarazi duenez, 66 urteko arrantzale bat hil da Ondarroan (Bizkaia). Galizako Corvo itsasontzian egiten zuen lan. Barkutik lehorrerako sartu-irten batean, uretara erori eta hil egin da. Sindikatuaren arabera, ikuskaritzak ez du lan heriotzatzat jo, behargina atsedan egunetan zegoelako. Sindikatuaren arabera, aurtan Euskal Herrian hildako 47. langilea da.

Lanbideren «pribatizazioa» salatu dute

DONOSTIA • ELA eta LAB sindikatuek deituta, elkarretaratzeak egin zituzten atzo Lanbideren bulegoen aurrean. Salatu dute EAJk eta PSE-EEk adostu duten enplegu legearen aurreproiektuak Lanbideren izaera juridikoa aldatzea jasotzen duela, zuzenbide pribatuko erakunde publiko bihurtzeko. Horrek, sindikatuaren arabera, enplegu zerbitzuaren «pribatizazioa» ekarriko du.



Donostiako protesta. G. RUBIO / FOKU



«Energia enpresak ez dira soilik zerga bereziaz hitz egiten ari, zerga hori ordainduta ere irabazi errekorrak lortu baitituzte»

Pedro Azpiazu
Jaurilartitzako Ekonomia sailburua

Sei atxilotu Arabako Errioxako mahats biltetan

GASTEIZ • Arabako Errioxako mahats biltetaren kanpainen, Espainiako Poliziak dokumentazio irregularreko sei langile atxilotu ditu; 33 ikuskapen egin ditu lursailetan, eta 303 langile eta enpresaburu identifikatu ditu. Aurtan, lehen aldiz droneak erabili dituzte. Europako Batasuneko ikuskatzaileak han izan dira EBko gainerako herrialdeetan sistema hori nola ezarri aztertzeko.



Natura Leheneratzeko Legearen aurkako manifestazio bat, uztaillean, Europako Parlamentuaren aurrean, Estrasburgo (Frantzia). JULIEN WARNAND / EFE

Natura Leheneratzeko Lege malguago bat onartu dute negoziazioetan

Europarlamentuak, Europar Kontseiluak eta Europako Batzordeak adosturikoak neurri arinagoak biltzen ditu • Talde ekologisten arabera, ez da nahikoa

Maddi Iztueta Olano

Lau hilabetez luzatu diren eztabaiden ondoren, Natura Leheneratzeko Legearen azken bertsioa adostu zuten herenegun Europako Batzordeak eta Europako Parlamentuak. Legearen helburu nagusia da 2030erako EB Europako Batasuneko landa eremuen %20 eta itsas eremuen %20 leheneratzea; eta, ekosistemetako habitatei dagokienaz, horien %30 leheneratzea 2030erako, %60 2040rako, eta %90 2050erako. Batzordearen arabera, egoera «kaskarrean» daude EBko landa eta itsaso eremuen %80 baino gehiago, eta hori «konpontzea» litzateke araudiaren asmoa.

Europako Batzordeak iaz aur-

keztu zuen lege proiektua, eta Europako Parlamentuak iragan uztaillean eman zion oniritzia. Hori bai, alde txikiz gailendu zen baiezkua –aldeko 336 boto, kontrako 313 eta 13 abstentzio izan zituzten testuak–. Proposatututik, neurriaren inguruan jarrera ezkorra izan dute nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektoreek, industria horietako zenbait taldek –enpresak, multinazionalak eta lobbyak– eta europarlamentuan ordezkaritza duten alderdi eskuindarrek.

Talde horien arabera, «nekazariaren, abeltzainen eta arrantzaleen kontrakoa» zen hasierako testua. Halaber, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren industriako zenbait enpresa kezkatuta azaldu

ziren, legeak nekazariari «kalte egingo» zielakoan. Horren adibide da iragan uztaillean europarlamentuak onartutako testua erabat baztertzeko EAP Europako Alderdi Popularrak egindako saiakera. Ez zuen nahikoa babes eskuratu, eta ez zuen aurrera egin.

Halere, oraingoa lortu dute parlamentuak eta batzordeak adostutako ituna uztailakoa baino nabarmen malguagoa izatea. Arindu dituzten neurrien artean daude, adibidez, hauexek: estatu kideek nekazaritza landen %10 soilik leheneratu beharko dituzte; lehengoratzeko osoaren %40 nekazaritzarako eta zohikaztegiarako ez diren lurretan egin ahal izango dute; eta erdira murriztu

dituzte zohikaztegiak lehengoratzeko 2040rako eta 2050erako jarritako helburuak.

Gainera, nekazariak eta nekazaritza landen jabe pribatuak ez

Legearen helburu nagusia da 2030erako EBko landa eremuen %20 leheneratzea, eta itsas eremuen %20

Ez dago argi bi bozketetan dokumentuak nahikoa babes lortuko duen; batzuentzat «gogorregia» izan daiteke

dituzte derrigor martxan jarri beharko testuak jasotako neurriak. Eta, neurriak ez ezik, testuan dabilten hizkuntza ere malgutu dute. Hala idatzi dute dokumen-

tuan: «Estatu kideek indarrean jarri behar lituzkete helburuak betetzera bideratutako neurriak».

Akordioa txalotu dute EBko erakundeetako zenbait ordezkari. Besteak beste, Espainiako Trantsizio Ekologikorako jarduneko ministro Teresa Ribera Rodríguezek: «Gisa honetako lehen legea da hau. EBren parte diren estatuetako biodibertsitatea berreskuratzen lagunduko digu, baita klima aldaketari aurre egiten eta etorkizuneko belaunaldiarentzat natura kontserbatzen ere».

Beste ordezkari batzuk ez dira hain pozik agertu. Izan ere, zenbaiten ustez, legearen azken bertsioa «malguagoa da». Hala esan du Europako Parlamentuko europarlamentu ezker-tiar Mick Wallacek: «Testuak jasotzen dituen neurriak ez dira nahikoa izango klima eta biodibertsitate krisiari aurre egiteko».

Iritzi berekoak dira zenbait GKE ekologista, hala nola WWF Naturarentzako Mundu Funtsa, Birdlife eta Greenpeace. Ohar bateratu batean, argi utzi nahi izan dute akordioa ez dela «nahikoa», eta «etsigarritzat» jo dute dokumentua. «[Aurreko testutik oraingora] salbuespen ugari gehitu dizkie neurriari, eta oso malgu jokatu dute estatu kideek hartu beharreko neurrien inguruan».

Hurrengo pausoak

Europarlamentuak eta Europako Batzordeak behin-behineko akordioa formalki onartu baino lehen, adostutako lege proiektuari oniritzia eman behar diete estatu kideek batzordean dituzten ordezkariak –hilaren 22an bozkatuko dute ziurrenik– eta Europako Parlamentuko Ingurumen Batzordeak –hilaren 29an edo 30ean dira bozkatzekoak–.

Horietan aurrera egiten badu, EBko Aldizkari Ofizialean iragarri eta hogeie egunera sartuko da indarrean. Gero, klubeko 27 estatuek bi urte inguru dituzte natura leheneratzeko martxan jarriko dituzten neurriak aurkezteko, baita horiek zer epetan hasi eta bukatuko dituzten zehazteko ere.

Edonola ere, ez dago argi bi bozketan horietan dokumentuak nahikoa babes lortuko duen. Izan ere, baliteke aurretik legearen aurka agertu diren zenbaitentzat oraindik ere «gogorregia» izatea akordioa, eta ezker-tiar eta ekologistentzat, berri, «malguagoa».

Gorka Berasategi Otamendi
Donostia

Hamasekin batera, Palestinako beste milizia batzuek parte hartu zuten urriaren 7an Israelen egin zuten erasoan –1.400 lagun inguru hil zituzten, eta 240tik gora bahitu—. Haien artean ziren, bestak beste, Jihad Islamikoa eta PAHF Palestina Askatzeko Herri Frontea. Hiru erakunde horiek osatzen dute, nagusiki, «erresistentziaren gidaritzak», Majed Dibsi (Jeriko, Palestina, 1952) PAHFren Europako bozeramailearen esanetan. Hala ere, zehaztu duenez, «Palestinako herria bere osotasunean dago engaiatuta» borrokan. Dibsi Euskal Herrian izan zen joan den astean, Palestinak bizi duen egoerari buruzko hitzaldi sorta bat ematen, Jardun koordinakundearen eskutik.

Nola deskribatuko zenuke azken asteotan Palestinan eta Israelen gertatzen ari dena?

Oraintxe egiazko sarraski bat eginen ari dira Palestinako biztanle zibilen aurka, eta inoiz ez bezala eragiten ari da nazioartean iritziz publikoa palestinarren alde agertzea. Indonesiatik Kanadara. Ohartzen direlako genozidio bat eginen ari direla AEBen eta NATOren babesarekin [Israeliek gutxienez 11.000 palestinarr hil ditu urriaren 7tik]. Horrek ere badakar gerra Ekialde Hurbilera hedatzeko arriskua. Nazioarteko gatazka bat bihur daiteke, eta ur handitako kontua da hori.

Europako Batasunak salatu du Israeliek ez duela bete nazioarteko zuzenbide humanitarioa, eta AEBek esan dute zibilen heriotzak eragotzi behar direla, baina biek «bere burua babesteko eskubidea» aitortzen diote Israeli.

Israelen arabera, palestinarrak animaliak dira. Eta, beraz, denak akabatu behar dira. Batetik, esaten du Hamasek ez dituela palestinarrak guztiak ordezkatzen, erakunde terroristak bat dela, eta, bestetik, Palestinako herria haren konplizea dela, Hamas zibilen atzean ezkutatzen baita. Orduan, erasotzailea harrapatzeko, guztiak hilkotz ditugu. Baina, kasu honetan, erasotzaileak ez du terroristarik ezere ere. Erresistente bat da, eta nazioarteko zuzenbideak hala aitortzen du. Nazio Batuen Agiriari eta Genevako Konbentzioak jasotzen dute okupaziopean dauden herriek erresistentziarako eskubidea dutela, beharrezkoak dituzten baliabideak erabiltzea; borroka armatua barne. Palestinarrei dagokionez, [NBE Nazio Batuen Erakundearen] berariazko ebazpenak ditugu palestina-



OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

«Gerra, gelditzekotan, berehala gelditu beharra dago»

Majed Dibsi • Palestina Askatzeko Herri Fronteko bozeramailea

Dibsiren ustez, Israeliek «genozidioa» eten ezean arrisku handia dago gatazka Ekialde Hurbilera hedatzeko. Okupazioaren aurka palestinarrak erresistentziarako eskubidea dutela nabarmendu du.

rei beren eskubideen alde borrokatzeko zilegitasuna aitortzen dietenak. Eta Israel estatu okupatzailezat jotzen dute.

Zer iruditzen zaizu NBEk Israelekin hartutako jarrera?

NBE gatazkaren parte da, jende askok uste duenaren kontrara: [Lehen Mundu Gerraren ondoren] NBE oraindik Nazioen Elkarrekin zenean, Palestinan mandatu bat sortzeko agindu zuen, lur horietan juduentzako etxe nazional bat eratze aldera. Eskubidea aitortu zion Erresuma Batuko Gobernuari hark juduei baimena eman ziezaien lur horietan kokatzeko, tokiko herriaren kalterako. NBE bidegabekeria hori borobildu zuen 1947an, Palestina zatitzeko ebazpenarekin, eta, gerora, legezko estalki hori baliatuta, Israelgo Estatuak garbiketa etnikoari ekin zion Palestinako herritarren gehiengoak kanporatzeko. NBEk

600 ebazpen baino gehiago onartu ditu Palestinarren alde, baina nazioarteko komunitate deitzen den horrek ez du sekula ere Israel behartu horiek errespetatzera.

Zuek Israelen kontrako borroka indartzera deitu duzue.

Deialdiak erantzuten dio Israeliek duen helburuari: beste Nakba bat eragitea, Zisjordanian eta Gazan dauden 5,5 milioi palestinarrak kanporatzea Jordaniara eta Egiptora. Oraingoa beste kapitulu bat da norabide horretan. Horren aurka, palestinarrak eta Palestinako erresistentzia taldeek esku-bidea dute armak hartzeko. Ez baitute beste aukerarik: menperatuak izatea onartu, kanporatuak izatea umiliatuak izatea alegia, ala erresistentzia erabaki, halako okupazio baten pean dagoen beste edozein herriren modura.

Gerra hedatzeko arriskua aipatu duzu lehen. Zenbatekoa da?

Hezbollahren operazio militarrek indartu egin dira, su eten bat exijitu osten. Baina badirudi Israel ez dagoela horretarako prest, bada-kielako jokoan dagoena [Israelgo lehen ministro Benjamin] Netanyahu haren eskuin muturreko lagun talde arrazista, xenofobo eta naziaren gobernuak dela. Nahiago dute arriskatu. Baliteke gerra Libanora, Siriara, Yemenera hedatzea. Litekeena da Iranera ere iristea. AEBek gerraontziak bidali dituzte; hiru hegazkin ontzi, ia 70 suntsitzaile, bizpahiru urpeko. Erresuma Batua eta Frantzia ere batu dira. Hau da, NATOren parte hartzea agerikoa da jada.

Nola ikusten duzu Palestinako erresistentzia Israelen ahal militarari aurre egiteko?

Bistan da kolpe historiko bat eman genuela urriaren 7an. Kanpokoak eta bertakoak harritu ditu, eta zalantzan jarri du Israel-

go armadaren eta zerbitzu sekretuen gaitasuna. Israelen 75 urteko historian ez da sekula horrelakorik gertatu. Umiliatua izan zen, eta horrek azaltzen du, neurri batean, hondamendi ero hau, zeinak AEBen babesa baitu.

Zergatik orain eraso?

Egoerak gainezka egin duelako. Hamazazpi urte daramatzagu blokeatuta, airetik, itsasotik eta lurretik. Israeliek hainbat erasoaldi egin ditu Gazan. Zisjordanian erabat jazarrita dago; azken bi urteetan 4.000 lagun baino gehiago espetxeratu ditu Israeliek, haurrak hiltzen ari da, Jerusalemgo leku sakratuak profanatzeko, eta abiada bizian ari da Zisjordanian osoa judu bihurtzen, lurrak anexionatzen, kokagune gehiago eraikitzen. Horrek guztiak erantzun bat behar zuen. Israelen plana zera da –eta horrela aitortzen du orain– palestinarrak beren lurretik kanporatzea. Israeliek beti eraman du guda etsaiaren eremura. Lehen aldiz, gerra pairatu dute beren kuarteletan.

Palestinako Agente Nazionalak, berriz, erresistentzia baketsua babesten du soilik.

PANek ez du ordezkatzen ia bere burua ere. Egoerak gainditu egin du erabat. Harrapatuta dago Os- loko Akordioengatik. Agerikoa da Israelekin segurtasun arloan duen koordinazioa. Indar okupatzaileen zaindari bihurtu da. Beraz, isilik dago. Eta, zerbait esaten duenean, iritziz publikoari saltzen dio palestinarrak bakarrik gaude- la, eta, gizajok gu, eskupeko bat jaso behar dugula nazioarteko komunitatea deitzen den horretatik, eta ezin dugula ezer ere egin. Karta guztiak Israeldarren eta AEBetako esku daude. Hori faltsua da, eta guda hau hala ari da frogatzen. Erresistentziarako gaitasun horrek ahuldu eginen du.

Nola irudikatzen duzu etorkizun hurbila?

Hau gelditzekotan, berehala gelditu beharra dago, eta horretarako prezio bat dago: Gazaren gaineko erabateko blokeoa kentzea; Zisjordanian probakzioak amaitzea, Al-Aqsako gunean bereziki; kanporatzerik ez izatea; preso guztiak askatzea, eta NBEk aztertzea nola eraman daitezkeen Netanyahu eta haren gobernuaren gerra kriminal modura Nazioarteko Zigor Auzitegiaren aurrera. Horrez gain, Palestinako Estatuak eratzeko elkarriketak hasi nahi badituzte, egiazkoa izan behar du, eta denboran mugatua. Ezin dugu erdibidekorik onartu. Aurretik egin dizkiguten adarjotze- en esperientzia daukagu, Osloko Akordioetatik.

Netanyahuk dio ez dutela Gaza okupatzeko asmorik gerra ostean

Israelgo lehen ministroak esan du Tel Avivetik zerrendaren «segurtasunaren ardura» hartuko duela

Asier Gonzalez de San Pedro

Israelgo lehen ministro Benjamin Netanyahu berriz mintzatu da Gazaren gerraosteko egoeraz, baina oraingoan beste ideia bat helarazi du: Israelek ez duela zerrenda okupatzeko asmorik borroka amaitu ondoren, ezta eremu hori konkistatzeko edo gobernatzeko asmorik ere.

AEBetako Fox News telebista kateari emandako eta atzo argitaratutako elkarrizketa batean, Netanyahu argudiatu zuen «gobernu zibil batek» hartu beharko lukeela Gazako agintea, baina, aldi berean, ohartarazi zuen Israelek bere segurtasuna bermatu behar duela, eta, beraz, horren arabera ere izan beharko duela gerra osteko jokalekuak; besteak beste, joan den urriaren 7koa bezalako eraso bat berriz ez gertatzeko. Esan zuen zerrendan sartzeko «indar sinesgarri bat» izan behar dutela horretarako: «Beharrezkoa balitz, Gazara sartzeko, eta Hamasen antzeko talde bat berriz sortzea eragozteko. Gaza desmilitarizatu, erradikalizatu gabe eta berreraikia behar da».

Israelgo lehen ministroaren adierazpen sorta hori aste honetan hark defendaturiko jarreraren desberdina da; joan den asteartean, adierazi zuen Tel Avivetik zerrendaren «segurtasunaren ardura» hartuko zuela «epe mugagabe batez». Ez PAN Palestinako Aginte Nazionalak eta ez Israelen aliatu AEB Ameriketako Estatu Batuek ere ez dute begi onez ikusi hori, eta baliteke horren ondorio izatea jarrera aldaketa.



Benjamin Netanyahu Israelgo lehen ministroa, joan den urriaren 28an, Tel Aviv. ABIR SULTAN / FOKU

Gazaren kontrolaz eta gobernabideaz aritzean, AEBek defendatu dute PANek hartu behar duela ardura hori, eta Mahmud Abbas gobernu horretako burua prest agertu da. Hori bai, Abbasek esana du agintea hartzearekin batera irtenbide politiko bat finkatu beharko litzatekeela, eta horren barne egon behar duela Israelek 1967an okupaturiko eremua uztea.

Eta fronte militarrean, asteotako erasoez galdetuta, Netanyahu adierazi zuen Israelgo militarrek «bikain» ari direla, eta Hamasen aurka «lur gainean eta lur azpian» borrokatzen ari direla. Talde islamista hori «suntsitu arte» borrokan jarraituko dutela

errepikatu zuen, eta «ezerk» ez dituela geldituko.

Zibilen egoerari dagokionez, Netanyahu esan zuen etenak egiten ari direla, eta egiten segituko dutela; hain justu, AEBetako Segurtasun Kontseiluko bozemaile John Kirby herenegun iragarri zuen Israelek onartu duela Gaza iparraldean egunean lau orduko «eten humanitarioak» egitea.

Mila milioi euro

Emmanuel Macron Frantziako presidentea eta haren gobernuak antolatuta, Gazaren egoera humanitarioari buruzko konfidentzia bat egin zuten herenegun, eta adostu zuten mila milioi euro

baino gehiago bideratzea zerrendara, Eliseoak herenegun gauetan jakinarazi zuenez. Ekitaldi horren hasieran, gainera, Macronek adierazpen garrantzitsu bat egin zuen: lehen aldiz, eskatu zuen zerrendan su eten bat behar dela, eta agintariek hori lortzearen alde lan egin behar dutela.

Hala ere, hildakoen kopurua gero eta handiagoa da Gazan: 11.078 dira dagoeneko. Atzo, adibidez, israeldarrek eskola bati eraso zioten, eta 50 pertsona baino gehiago hil zituzten. Horrez gain, hegoaldera doan Salah al-Din errepidean barrena zebiltzan herritarrei ere eraso egin zieten, lekuko batzuek adierazi zuten.

Australia hasi da aske uzten atxilotu papergabeak

SYDNEY • Australiako Auzitegi Gorenak aste honetan kaleratutako epai batek adierazitakoa aintzat hartuta, Australiako Gobernuak atzo jakinarazi zuen hasi dela aske uzten atxiloaldi mugagabeen zeuden dozenaka papergabe aberrigabe.

Papergabe rohingya bat aske uzteko agindu zuen aurreko asteazkenean Australiako justizia instantzia gorenak, eta horrek eragin du Canberraren erabakia. Papergabe horrek hamar urte igaro ditu Australian espetxean, adingabeen kontrako sexu delituak egitea egotzita. Baina, zigorra bete ondoren inongo herrialdek ez zuenez onartzen hura hartzea, atxiloaldi mugagabeen segitzen zuen.

Epaia atea ireki dio 92 aberrigabe aske uzteari, eta beste 340ren egoera zalantzan jarri du, gainera. Giza eskubideen aldeko elkarte arabera, batez beste 708 egun pasatzen dituzte atxilotuta papergabeek, nahiz eta Asilo Eskatzaileentzako Baliabideen Zentroko datuek dioten 124 papergabek bost urte baino gehiago darmatatzela atxilotuta.

Barne ministroa ikertzen hasi da Downing Street

LONDRES • The Times egunkarian asteazkenean idatzitako artikulu batean, Suella Braverman Erresuma Batuko Barne ministroak Polizia kritikatu zuen, gaur Londresen Palestinaren alde egitekoa den manifestazioa ez debekatzeagatik. Hori dela eta, Downing Streetek testuari buruzko ikerketa bat hasi du, eta Jeremy Hunt Finantza ministroak jendaurrean kritikatu du.

berria lagun iragarlea

apattaroztegia s.l.
Altzari eta eraikuntzak orokorrean

Apatta industrialdea C/ Baratzondo E-33 20400 IBARRA
T 943679810 M 687449624 F 943679811
aroztegia@apatta.es www.apatta.eus

Hainbeste gorroto

Beren kabuz iritsi ziren ondorioa. *Caye borroka* delakoaren astebete aski izan zen. Eskuina kaotikoa da manifestatzen denean, ez baitu ohiturarik, ez baitu batere beharrik. Baliabide guztiak dituzte, tarte batez askatu behar badi-
tuzte ere, sistemak berak alternantzia demokra-
tikoaren interfazea aukeratu duelako azken ha-



JIRA
Angel Erro

markadetan. Baina haur txikiak bezala, gaizki er-
maten dute amak agin diezaie dena delako jos-
tailua tartetxo batez uzte-
ko jolastokiko beste ume
bati, behar bada beraiek ez
beza in mesedetu bati; ar-
tegatzen dira, atzera gal-

degin eta sufritzen dute besteren eskutan ikuste-
az, ez dute gogoan jostailua beti berreskuratzen
dutela, jostailua beraia dena dela eskusiban.

Beren kabuz iritsi ziren ondorioa, eta ez uste-
kaberik gabe. Espainia *puto-defendatzeko* ma-
nifestazioetan «*prensa española manipuladora*» edo «*borbones a los tiburones*» eta are
konstituzioaren kontrako aldarriak ere bota on-
doren, beren burua deskubritu zuten Pedro San-
chezi Kataluniako independentzia eskaka (Eus-
kal Herrikoaz, jakina, ez ziren arduratu, sekula
ez baitu seriotan espainiartasuna auzian jarri).
Bai, katalanei hainbesteko gorrotoa zieten, haiek
atxikitzea edo haietaz betirako libratzea funtse-
an gauza bera zela ulertu zuten.

Aberatsak

Erakusleio guztietan begiratzen ditut
oinetakoa. Ez daukat beste obsesio-
rik azken hamabost egunetan. Ero-
ko nituzkeenak, zerbait berezirako
gordetzekoak, deserosoak izango direnak poli-
tak izan arren... Gero nire hanketara begiratzen
dut, eta kaka zaharra! Oraindik ezin ditut nahi-
ko nituzkeen oinetakoa jantzi. Gutxi falta da,



BIRA
Onintza Enbeita

baina oraindik ezin dut.
Ez da arazo larria beste
batzuekin alderatuta.
Munduari begiratu, oso
buruko min aberatsa
da oinetakoa aukera-
tzea. Baita ezer ez eraba-
kitzeko bilerak egitea ere.
Aberatsok baino ez dau-
kagu denbora horrela alferrik galtzeko edo lau
orduko tren bidaia hegazkinez ordezkatu behar
den ala ez eztabaidatzeko. Gizakume zurion
kontua da birziklatze konpultsiboa ere. Gu bai-
no baliabide gutxiagorekin bizi diren askok ez
dute hainbeste plastikozko gauza kontsumitze-
ko aukerarik. Guk hondatu dugu planetan osoa
eta orain beste batzuei esplikatu nahi diegu
atzo arte guk egiten genuena ez egiteko. Bitar-
tean, gu ari gara eztabaidatzen ea zer egingo
dugun eukalipto kentzen dugun lekuetan.
Eukalipto guk geuk landatu ordez, Jaungoiko-
ak bidali izan balu bezala Egiptoko zazpi izurri-
teekin batera.

Munduak forma bat du gure aberats-
begietatik ikusita, baina beste bat beste begi batzuen-
tzat. Ez gara gu, beti zuzen dabilzanak.

16

Iritzia

BERRIA
Larumbata, 2023ko azaroaren 11

Iraunkortasuna, elikagaien sektorearen erronka

Agustin Markaide

COVIDaren ostean, eztabaida bat ireki zen, material batzuk eskuratzeko seguru-
tasuna nola areago-
tu, pandemia kudea-
tzeko beharrezkoak, hala nola maska-
rak, edo industriaren funtzionamen-
durako, txipak adibidez. Bestalde,
Euskadin elikadura autohornikuntza
baxuaren auzia noizbehinka planteatzen da, kontsumitzen ditugun elika-
gai gehienentzat gure ekoizpena oso
baxua baita. Dena den, datozen urtee-
tan benetan izango den ezinbesteko
gaia gure elikagaiak ekoizteko sistema
eraldatzearena izango da, iraunkorra-
goa izan dadin. Ikus dezagun:

Elikagaien eskuratze segurtasuna
oinarrizko helburu bat da gizarte guz-
tietan. Pandemia garaian arrisku hau
gauzatu egin zen, eta esan beharra
dago sektore osoak emaitza bikaine-
kin erantzun zuela, hornikuntzan oso
eten gutxirekin. Honetaz, hiru arrisku
handienak hauek lirateke: klima bero-
agoaren eta uraren erabilgarritasuna-
ren aldaketek elikagaien ekoizpenean
izango duten eragina; beharrezko ma-
terialen eskuratzeko segurtasuna, adi-
bidez, pentsuak, haziak edo ongariak
edo produktu fitosanitarioak; eta, az-
kenik, prezioen igoeraren arriskua,
biztanleriaren laurdenari, zurgarrie-
nei, bereziki eragingo duena, beren
diru-sarreraren zati handi bat elikagaiak
erostera bideratzen dutelako.

Autohornikuntza, herrialdean kont-
sumitzen diren elikagai guztien zati
handi bat bertan ekoiztea, helburu
gisa hartzen badugu, erronka konple-
xuak, ezinezkoak ez badira, dakartzatza.
Adibidez, baserria uzteko joerari buel-
ta ematea. Edo nekazaritzarako erabi-
lzen den lurra areagotzea nabarmen,
edo eta erabilera aldatzea, izan ere,
elikagai askorentzat tokiko ekoizpen
maila oso baxua da eskariarekiko. Bai-
na kontsumitzaileentzako aldaketa
hauen *onurak* ez lirateke ikusiko pre-
zio hobeetan, barietate handiagoan
edo gaur egun nahiko ziurtatuta dago-
en hornidura ziurtatzean. Eta helburu
horrek, horrela definituta, ekoizpene-

rako beharrezkoak diren funtsezko
materialak (haziak, ongariak...) es-
kuratzean beste batzuen menpe man-
tenduko gintuzke.

Elikadura osasungarriagoa eta ja-
sangarriagoa izatearen helburua,
iraunkortasunaren zentzu hirukoitzean,
Europako lehentasunean bat da
torren helburua da. Helburu hauek
oso zorrotzak dira. Produktzio mo-
duak ez ezik, ekoizten eta kontsumi-
tzen dena ere aldatzea eskatzen digu-
te. Trantsizioa ez da bat-batekoa edo
erraza izango. Beharrezkoa da iker-
tzea, berritzea eta... ondo ateratzea.
Kopuru bera ekoiztea, gutxienez, bai-
na lur gutxiago erabiliz, ongari sinte-
tiko eta produktu fitosanitario gutxia-
gorekin eta, aldi berean, kontsumi-
tzaileentzat prezioen maila ez igotzea
era jasangaitz batean, ez da erronka
soila. Gainera, lehen sektorea, oro har,
gaur egun ez da hurrengo belaunaldi-
ei etorkizun erakargarri bat eskaini-
tzeko gai; eta gazteek ez dute jarrai-
tzen edo hirugarren sektorerara pasa-
tzen dute baserria, diru-laguntzak
errentaren zati garrantzitsu bat dira
eta salmenta prezioak ez dira katearen
kostuak estaltzeko gai.

Argi dirudi, hiru helburu horien ar-
tean, benetako elikadura sektorearen
erronkak jasangarritasunekoak dire-
la, batez ere ingurumen- eta ekono-
mia-iraunkortasunekoak.

Eta helburu hauek lantzeko, bide
bakar bat dago, eta hau ez da sektorea
ahul eta diru-laguntzaz mantentzea.

**Lehen sektorea, oro har,
gaur egun ez da
hurrengo belaunaldiei
etorkizun erakargarri
bat eskaintzeko gai;
diru-laguntzak
errentaren zati
garrantzitsu bat dira
eta salmenta prezioak
ez dira katearen
kostuak estaltzeko gai**

Bidea hau da: sektorearen profesio-
naliazio handienarena, tamaina guztie-
tako enpresekin, asko oso txikiak bai-
na, nolatan ere, estrategia arrakasta-
tsuekin. Arrakastak esan nahi du kon-
sumitzaile askok haien produktuak
hautatzen dituztela eta gastuak or-
daintzeko eta etorkizunerako presta-
tzeko nahikoa marjina sortzen dutela.

Estrategia hauek kalitatean edota
zerbitzuan oinarritutako dira, prezio
baxuetan baino gehiago (gutxitan
prezioan bakarrik lehia ahal izango
baikara ekoizpen baldintza hobek
dituzten beste lurralde batzuetako
produktuarekin). *Hemengo* produk-
tuak duen irudi onarekin babesten
den kalitatea eta, aldi berean, irudi
hori laguntzen eta zabaltzen duena.
Eta horretarako gutzira, bai pro-
duktuetan, bai bezeroengana iristeko
moduan, eta baita lan egiteko modue-
tan ere berritu beharko dute, beste
sektoretako enpresek bezala. Hori
guztia egungoak baino balio erantsi
handiagoak lortzeko izango da.


Hau merkatuan lehia egiteak
enpresak gaitasun handiak izatea es-
katzen du, pertsonengan, inbertsioak
egin eta finantzatzeko gai izatea... In-
dargune horiek lortzeko, komeni da
ekoizle kooperatibak indartzea, balioa
handitzeko bideak bilatuko dituzte-
nak; mota guztietako enpresen sorre-
ra eta hazkundea sustatzea; haien ar-
teko aliantza horizontal eta bertikalak
sortzea... eta guztien artean elikadura-
trantsizioarako bide bideragarriak aur-
kitzea.

Baserri eta enpresa tradizionalago-
ak edo txikiagoak ez dira bide honen
beste alternatiba bat, baizik eta kon-
trako: osagarriak dira eta sinergiko-
ak izan daitezke, ekarpenak egin eta
etekinak atera ditzaket, sektore di-
namiko askotan gertatzen den bezala
(ardoarena adibide ona da). Ekimen
indartsuenek irekiko dituzten auke-
retako askoren inguruan garatu dai-
tezke txikiak. Eta beren produktua eta
zerbitzua ondoen baloratu eta behar
den moduan ordain dezaket bez-
erretara zuzendu daitezke.

Elikagaien eraldaketaren helbu-
ruak oso zorrotzak dira, eta gauzatu
ahal izateko asko dago ikasteko eta
aldatzeko; eta denontzat dago zer
egin.

De Rerum Natura

@zaldieroa



HIZPIDEAK

Leloei gorrotoa darienean

Iñaki Petxarroman @petxarroman

Espainiako alderdi sozialistaren (PSOE) Ferraz kaleko egoitza nagusiaren aurrean eskuin muturra egunotan egiten ari den oldarra diariaren atzean aurrekari historiko nabarmenak daudela ikus daiteke: 1936ko altxamendu frankistaren oinordeko politikoen larderia ez da txantxetan hartzekoa, inondik ere, eta euren gorrotoa ez da mugatzen Kataluniako eta Euskal Herriko indar subiranistetara. Diktadura frankistan bazterrekoak eta zapalduak izan diren gizarte taldeak ere badaude euren hitzen eta ekin-tzen jomugan.

Egunotan Ferrazen aurrean entzun diren lelo ohikoena izan dira *Montero puta bat da, Marlaska marikoia eta Ez da egoitza bat, putetxe bat da*. Eskuin muturrak erro sakoneko ezinikusia du historian aspiratuta izan diren sektore-ekin, lan handia eginda ere, traba izugarriak dituztenekin gizartearen erdigunera iristeko. Erreparazio historikoa merezi dutenekin: emakumeak, LGTBI mugimenduko kideak, hegoalde globaleko migratzaileak...

Hori da Ferrazen elkartzan ari direnek nahi duten gizartea, sektore horietako kideak bazterreraren kondanatzen dituen. Madrilen horretan ibili direnei gorroto delitua leporatzeko zeren zain daude politikiak eta epaileak? Beste lelo batzuk beste toki batzuetan eta beste nazio testuinguruetan gertatuz gero, beste kuku batek joko lieke oihi-egileei.

Ergelak



HITZ ETZANAK
Andoni Egaña

Hogei urte barru zer izango diren. Horrek pizten dit jakin-mina. Orain zer diren begi bistakoa da. Urrutira joan gabe, Donostian ikusi ahal izan genuen asteazkenean.

Futbolaren ingurumariak baliatzen dira. Eta sos faltan dabil-tzanik ezin esango dugu, bidaia-tzeko eta suziarik erosteko lain badute eta. Barkatuko didate taberna eta denda jabeek, baina eragiten dituzten txikiak iru-

ditzen zaizkit gutxienekoa. Oker-ragoa da sortzen duten izua. Eta makurrik makurrena da guztia-ren doakotasuna. Antolatuta, bi-daia burutu, suziarik erosi, bazte-rrak birrindu, muturrak hautsi... zertarako? Zergatik?

Hogei urte barru batzuk aita-gehiak-gehiak gizonezkoak direnez- izango dira. Batzuk, sistemak asimilatuta edukiko ditu guztiz. Akaso, euren lantokian bidezkoa den greba bat bul-tzatzeraz ausartuko dira; agian,

euren seme-alaben futbol parti-dak ikustera joan eta beste gura-soei kargu hartuko diete epaileari sekulakoak eta bi esaten ari dire-lako; igual, herriko dantza talde-an edo Bibliaren irakurketa tal-dean emango duten izena; liteke-ena da euren umea zapi batez bilduta bularrari pega-pega egin-da eramatea. Ez dakit. Hala ba-litz, zoriondu egingo nituzke. Zoriondu, zeinen ergelak izan diren gogorarazteko eskubideari sekula uko egin gabe.

Israel, Shoah eta heroiak

Gertatutakoa ezabatze-ko berridazten da historia. Ongi azal-tzen du hori George

Orwellek 1984 (Txalaparta, 2007) eleberrir nardagarrian. Baina ez da soilik Orwellen liburuan bertan kontatzen. Liburuaren mezuare-kin ere antzeko zerbait gertatu da azkenerako. Orwelllek 1949an Francis Hensoni idatzi zionean, zera adierazi zion: «Liburuaren intriga Ingalaterran kokatuta dago, azpimarratzeko ingelesez hitz egiten duten herrialdeak ez direla, naturaz, hobeak, eta tota-litarismoak [...] edonon irabaz dezakeela». 1984 faxismoari buruzko eleberrir bat zen, alegia, baina, makina kultural burgesen kemenari esker, askoren ahotan,



LARREPETIT
Hedoi Etxarte

eleberrir antikomunista bat bila-katu dute.

Ez da hau egilearen intentzioak artelan bat irakurtzen dugunean eduki behar duen tokia buruzko gogoeta bat. Ekarri dut Orwell, nahiko egokia delako, halako ba-tean 1960an Israelgo Estatuak egin zuen narratiba nazionalaren erabateko aldaketa azaltzeko.

Israelgo Estatuak sortu berritan, Israelgo heroi nazionalak, sionis-moaren izenean terrorismoa praktikatzuz Ekialde Hurbilean arabiarrek beldurtzen eta kanpo-ratzen ibilitakoak ziren. Are gehiago, ordura arte historiari kol-patu, indarrez erbestera eta hil-dakoak lotsarako motibo ziren. Hala, II. Mundu Gerra bukatu be-rritan, Europako kapitalismoaren

forma behinena zen faxismoak hildako milioika judu horiek ha-rrero ez egoteko motibo bat ziren (arrazoi askorengatik). Heroiak aurre egiten zutenak ziren, esate-rako Varsoviako ghettoan nazien kontra armak hartu zituztenak. Auzia bitxia zen, naziak boterean egon ziren garaiko erakunde sio-nistek hasieran ez zuten bereziki harreman txarra izan faxistekin. Ordea, sionisten kontra zeuden juduek, bereziki langile mugimenduaren parte zirenek jaso zu-ten, hasieratik, errepresio borti-tzena. Gerra bukatutakoan nabar-mena izan zen: Varsoviako ghetto-ko matxinatuetatik bizirik zirenek ez zuten Israelez ezer ja-kin nahi izan. 1961ean dena alda-tuko zen, gaur arte.

Baionako besten eredua auzitan

Gabrielle Areztegi

Baionako EH Baiko kidea

Egoerak gainezka egin du. 2023ko Baionako bestak jende anitzen gogoan geldituko dira neurrigabeko gehiegikeriengatik. Maite ditugu Baionako bestak, maite ditugunez. Zoritzarrez, ezin dugu onartu gaur egun Baionako Herriko Etxeak sustatzen duen besta eredua.

Eraiketa bat, bortxaketak, eraso sexistak, jende mugimendu arriskutsuak, Baionako karrikak komun publiko bilakaturik, Baiona Ttipia eta Handia izarren azpiko diskoteka erraldoi gisara antolatutik, auzo horietako biztanleen ezinegona...

Fenomeno horien iturburu aspaldikoa da, baina neurri ausartak hartu ezean, honek txarrera baizik ez du egingen. Argi diogu, Yves Ugalde, Baionako Kultura eta Animazio zinegotziak *Sud Ouest*-eko elkarrizketa batean adierazi zuenaren aurka: Baionako bestetako gertakari latzak eta giro okaztagarria erabat lotuak dira besta hauek ematen den masifikazioarekin.

Testuinguru honetan, Baionako bestak, lehentasunez, baionarrak kontuan hartuz antolatu behar direla uste dugu. Jean-Rene Etzegarrik gidaturiko gehiengoak eta besten batzorde extramunizipalaz harago, Baionako herritarrek hitza eta erabakia izan behar dute gai honen inguruan. Zentzu horretan, txalotu nahi ditugu bai Citiyons Bayonnais taldeak Baionako besten inguruko herri-galdeketa bat antolatzearren alde abiatutako izenpe-bilketa, baita

2032 Kolektiboak daraman dinamika berria ere. Baionako Herriko Etxeak ezin die entzungero egin iniziatiba hauei. EH Baik Baionako herritar guztiak gomitatzen ditu ekimen hauetan parte hartzera.

Baionako bestetan parte hartzen duten eragileek eta herritarrek marraztu behar dute Baionako besten eredu berria. Guk ere, baionarrak izanik, umiltasunez hartuko dugu parte Baionako bestak aldatzeko ekimen herritarretan. Besteak beste, ereduaren desazkundera, eraso sexisten aurkako politika eraginikorrakoak, kultura erdigunean kokatzea, sortzen den hondakin kopurua gutxitzeko neurriak hartzea, euskarari balio handiagoa ematea edo Baionako bestak auzo gehiagotara hedatzearen gisako ideiak ditugu gure proposamenen artean. Iruditzen zaigu gaur egungo Baionako bestetan hainbat

elkartek euskararen, kulturaren edo elikadura burujabetzaren arloan sustaturiko alternatibak eta haien balioak inspirazio iturri egokiak izan daitezkeela gogoeta honi heltzerako orduan.

Oro har, uste dugu beharrezkoa dela Baionako Herriko Etxeak eramaten duen turismo eta kultura politika galdezkatzea. Masa turismoaren sustapena dute oinarri Baionako bestek, Xingar Feriak edo Egu-berrien inguruan antolatzen diren linterren gauen gisako ekimenek. Politika horiek herritarren parte-hartze urria eragiten dute, etekin ekonomikoetara bideraturiko kultur eredua ezartzen dute, ez dira jasagarriak ikuspegi ekologikotik, etxebizitzak eskuragarriak izateko zailtasunak sortzen dituzte... Honako galdera egin behar diogu gure buruari: nolako hiria nahi dugu gaurko eta biharko baionarrentzat?

Hutsunearen mina

Iraia Cambra

Komunikazio graduako ikaslea

Bakarrik ez gaudenean sentitzen den hutsune-ari garrantzia kentzen diogu, baina osasun mentala garrantzia hartzen ari da gizartearen eta zilegi da aipatzea esperientzia emozional konplexu eta gutxietsia dela bakardade faltsua. Lagun edo senidez inguratuta egon arren, bakardadea edo inguratzen gaituztenekiko lotura eza senti daiteke. Hainbat arrazoi egon daitezke sentimendu horren atzean, baina eragin nabarmena du osasun mentalean eta pertsonen ongizatean.

Hutsune emozionala inguratzen gaituzten horiekin lotura nabarmenik ez izatearen ondorioa izan daiteke. Nahiz eta konpainian egon, elkarrengatik azalekoak badira edo benetakotasunik ez badute, baliteke isolatuta sentitzea. Hala ere, nahiz eta batzuetan, ingurukoekin harreman sakonagoak eta esanguratsuagoak ditugun, bakardadea senti dezakegu, haiek ematen digutena eta guk pertzibitzen duguna errealtate desberdinak izan daitezkeelako.

Gizarte-presioak eta egokitzeko beharrak ere hutsune emozionalean eragin dezakete. Gaur egungo gizartearen presio handia dago bizi helburu batzuk betetzeko, bai arrakasta profesionalari dagokionez, bai harreman pertsonalei dagokienez. Perfekzio behar horrek behar bezain onak ez ga-

rela sentiarazten gaitu, eta horrek, era berean, barne-hutsune bat eragiten du.

Egia da, emozio hauek zure gertukoei plazaratzean, ulertu zaitzaketa eta enpatia eskaini, baina ingurukoekin ulermen eta sostengu emozionalik ez edukitzeak ere, bakardade sentimendua areagotu dezake. Izan ere, batzuetan, pertsonak fisikoki egon arren, ez daude prest gure kezkek eta emozioak entzuteko edo ulertzeko.

Gainera, gaur egun bizi garen teknologiaren eta sare sozialen munduan, hauen gehiegizko erabilerak ere hutsune emozionalean eragin dezakete. Plataforma horiek pertsona askorekin lotzen gaituzten arren, sarritan azaleko harremanak sustatzen dituzte eta aurrez aurreko elkarrenginetatik urrutitzen gaituzte. Horregatik, hutsune emozionalari aurre egiteko, funtsezkoa da

konexio erreala gozatu eta esanguratsuagoak bilatzea. Hau da, benetako enpatian, ulermenean eta komunikazioan oinarritutako harremanak ezartzea. Presio soziale-tatik askatzea eta nor bere burua onartzen ikastea beharrezkoa da, auto onarpenera barne-hutsune hori betetzen eta bizitzaz disfrutatzen lagun dezakeelako.

Bakarrik ez gaudenean ere sentitzen den hutsune benetako esperientzia da, eta, askotan, gutxietsi egiten da. Lotura esanguratsurik ezak, presio sozialak, laguntza emozional ezak eta teknologiaren gehiegizko erabilerak eragin dezakete. Sentimendu hori gainditzeko, ezinbestekoa da benetako harremanak bilatzea eta auto-onarpenean bideratzea gure bizitzan. Oso-tasunerako bideak hutsune hori modu aktiboan ezagutu eta lantzea eskatzen du.

ZUZENDARIARI

Eguneko zentroa Elorrioren, orain!

Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen ahal-dun zaren horri: Elorrioko Pentsionisten Mugimenduari izenean zutena jotzen dugu gutun honen bidez, Elorrioren eguneko zentroaren gabezia salatzen. Urteak daramatzagu eguneko zentroaren premia aldarrikatzen. Eta bertoko talde politiko guztiek aldarrikatzen dute gauza bera hauteskunde kanpainetan.

Pentsionista mugimendu gisa, herrian 1.150 sinadura bildu ondoren, eguneko

zentroa gauzatzearen aldeko mozioa aurkeztu genuen udalean. Onartua izan zen EH Bildu eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin eta EAJren abstentzioarekin.

Elorrioko alkateak batzarra eskatu zuen Bizkaiko Aldundiko arlo horretako ardura-dunarekin. Eta batzarra egin zen, Sergio Murillo aldundiko arduraduna, Idoia Buruaga alkatea, Maria Herreroren alkateordea eta pentsionista baten partaidetzarekin.

Batzararen ondorio bakarra, ikerketa egin behar zela, jakiteko Elorrioren eguneko zentroaren premia ote zegoen, Murillo jaunaren esanetan. Ba ikerketa Elorrioko udal gobernuak martxan jarri zuen GPS enpresaren eskutik, urte honetako martxoan.

Ikerketa gauzatzeko, aldundiak ez zuen eskaini ez oinarritzeko daturik ez eta inolako laguntzarik ere.

Datu esanguratsuenak aipatzearen, Elorrioren gaur egun 1.715 pertsona daude 65 urtez gorakoak, eta 125 pertsona 2-3 graduak menpekotasunarekin. Bizkaian bi herri soilik daude halako datuekin eguneko zentrorik gabe, Sopela eta Elorrio.

Datu horiek eta estudioa eskutan, herriko hautetsiek batzar bat izan dute Amaia Antxustegi aldundiko arduradunarekin, eta ezezkoarekin jarraitzen du, esanez badagoela zentroa Durangon. Bai ba, jakina! eta Bilbon, Elgetan, Eskoriatzan... Sobera-kito hitzak. Elorrioren egunero jasaten ari

gara Igurian, Pullan... inguru guztian, AHT abiadura handiko trenaren triskantza inongo kontrolrik gabe, eta dirua kamioi-kadaka xahutzen; beraz, ez goaz onartzera eguneko zentrorik ez izatea Elorrioren.

Bizitza osoan zehar, pertsona orok zain-tzeko eta zaindua izateko dugun eskubi-dea defendatzera goaz. Horretan datza hain zuzen ere administrazioak darabilen leloa, hots: *Euskadi auzolana*, horren erabil-bila, non mamia kendu dioten. Aurrera Elorrioren eguneko zentroa lortu arte.

Aitor Larranaga Anzola, Jose Luis Gutierrez, Jesus Aristegi Larranaga eta Fernando Larranaga Ruiz de Eginio. Elorrio



Imanol Alguacil, agindua ematen, asteazkenean, Benficaren aurkako Txapelaldien Ligako partidan. JUAN HERRERO / EFE

Lilurak ahaztu, eta irabaztera

Realak Almerian jokatu du gaur • Espainiako taldea azkena da sailkapenean, eta ez du partida bakar bat ere irabazi • Tierney eta Andre Silva baino ez daude min hartuta

Jon Ander De la Hoz

Imanol Alguacilek ohartarazpen argia egin zuen atzo, Almeriara (Espainia) abiatu aurretik Zubietan emandako prentsurrekoan: «Ez badugu gure onena eskaintzen, ez gara Almeria menderatzeko gai izango. Realak ez du elastikoa janzte hutsarekin irabazten. Dena ematen duenean irabazten du, Benficaren aurka egin zuen bezalaxe». Izan ere, txuri-urdinen jirakoak liluratuta daude asteazkenaz geroztik, euren taldeak Benfica menderatzeko modua tarteko. Ordukoak ahazteko garaia da, ordea, Espainiako ligan garaipenaren bidera itzultzeko.

Lehen begiratuan, Almeriaren aurkako neurketak ez du Txapelaldien Ligakoaren xarma, baina Imanol eskola zaharrekoa da, eta argi du zelai guztietan ondo aritu beharra dagoela sasoi amaieran fruituak jasotzeko. «Umlitasuna eta lana»; teknikariak esaldi batean laburbildu zuen jokalariek partida guztien atarian emai edukitzeko sekretua.

Bide beretik ekin nahi dio gaur Gaizka Garitanoren taldearen aurka. Almeria azkena da sailkapenean; hiru puntu soilik bildu ditu orain artean, eta garaipenik lortu ez duen talde bakarra da. Nolanahi ere, Imanolek ez dio konfiantzari aterik zabaldu nahi: «Partida zaila espero dut. Gure onena eman behar dugu; bestela, irabaztea ezinezkoa da. Partida guztietan dena eman behar dugu. Hiru egunean behin jokatzeko eta zelai guztietan lehiatzeko gai garelako erakutsi dugu».

Ligaren etenak zama arindu atarian, txuri-urdinak lan karga handiarekin dira azken asteetan, eta, horren eraginez, indarrak neurtzen ari dira arlo fisikoan. Esaterako, zenbait jokalarik barruko lana egin zuten norgehiagokaren atariko entrenamenduan, zelairatu gabe. Martin Zubimendi izan zen horietako bat.

Imanolen esanetan, dena den, hori ez da arazo izango gaur: «Jokalarik batzuk ez dituzue gaur [atzo] zelaian ikusiko, baina horrek ez du esan nahi jokatu ez dutenik. Dena ondo badoa, guztiak joango dira». Denak, Igor Zubeldia, Brais Mendez, Kieran Tierney eta Andre Silva ez beste. Aurreneko biak partida bateko zigorra bete behar dute; azkeneko biak, berriz, min hartuta daude.

Nahi eta ezin ari da Almeria

Kontrarioaren irabazi ezina ez da aldeko datu bat, Realaren prestatzaileak adierazi duenez. Imanol

Osasunak Las Palmas irabazi nahi dio Sadarren

+ Bolada gozoan dago Las Palmas, eta Osasunak Sadarren hartuko du gaur, etxeko emaitzak hobetzeko asmoarekin (18:30, Movistar La Liga). Gorritxoek zaleen babesa izango dute bigarren astez jarraian. Aurreko astean, Gironak hartu zuen Osasunaren gotorlekua: 2-4 irabazi zuten katalanek.

Defentsan izandako desorekek Osasuna sendo bat ikustea eragotzi zuten. Horrez gain, gaizki aritu ziren erdilari gorritxoak. Ante Budimir izan zen salbuespena: bi gol sartu zituen, eta bolada onean dagoela berretsi.

Jagoba Arrasatek «dakiten bezala» eta «erraz» jokatzeko eskatu die jokalariei gaur; hain zuzen, Gironaren aurka 20. minututik 70.enera jokatu zuten bezala. Berriatuarraren arabera, Las Palmasek «proposamen oso argia» du, eta «nagusi» izaten saiatzen da.

len ustetan, Almeria, «askotan» ez da irabaztetik urrun egon. Gainera, azpimarratu zuenez, «entrenatzaile izugarria» du: «Gaizkari denbora emanez gero, gora egingo dute».

Hargatik, ez da fio, eta nabarmendu zuen Realari ez zaiola axola nor duen parean: «Niretzat, partida guztiak dira berdinak, eta modu berean prestatzen ditut. Nire egitekoa da jokalariei aterabideak eskaintzea, kontrarioak egiten duena aintzat hartuta. Talde bat aztertzean ez diot sailkapenari erreparatzen, egiten duenari baizik. Zertarako? Nire taldeari erantzunak emateko, bai defentsan, baita erasoan ere».

Realak ez du partidarik jokatu datorren astean, selekzioen arteko partidak direla eta. Hortaz, garaipenaren aho zapora gozorekin hartu nahi du atseden.



ALMERIA-REALA

Almeria. Maximiano; Mendes, Edgar, Chumi, Akierme; Lopy, Baba, Robertone; Embarba, Ramazani eta Baptista.

Reala. Remiro; Traore, Pacheco, Le Normand, Aihen; Zubimendi, Merino, Barrenechea; Ojartza, Carlos Fernandez eta Kubo.

Epaila. Diaz de Mera Escuderos. **Lekua.** Power Horse estadioa (22.000 ikusle).

Ordua. 16:15 (DAZN).


Batek soilik lortuko du lehena

Gaur jokatu dute Egiguren V.ak eta Zubizarreta III.ak Promozio Mailako lau eta erdiko finala

Beñat Mujika Telleria

Pilotarientzat eguneroko lana da garrantzitsua. Frontoiko entrenamenduak, gimnasioko ordu luzeak, partida bakoitza... baina horiek ez dira ametsen agertzen. Finalekin egiten dute amets pilotarietako umetan, eta zaleen oroimenean ere txapelak gelditu ohi dira. Txapel beltzaren gerizpean lo egiteko aukera izango dute gaur Julen Egigurenek (Azpeitia, Gipuzkoa, 2000) eta Iraitz Zubizarretak (Ataun, Gipuzkoa, 1999). Tolosako Beotibar frontoian (Gipuzkoa) ariko dira Promozio Mailako lau eta erdikoa (17:15, ETB1).

Finalari aurre egiteko prest daude bi pilotariak. Gainera, bietako batentzat, behintzat, final berezia izango da. Promozio Mailan banaka txapelak jantzi gabeak dira bata zein bestea. Lau aldiz aritu da finala Egiguren V.a, horietako hirutan lau eta erdian. Zubizarreta III.ak, berriz, bigarrena du gaurkoa. Esperientzia badiakate, baina ez txapelik. Final denak galduta baitituzte biek. Hor-taz, Tolosan 22ra iristen denak le-



Iraitz Zubizarreta eta Julen Egiguren pilota aukeraketan, Beotibarren. BAIKO

hen aldiz jantziko du txapel beltza.

Lehen aldiz jokatu dute final bat elkarren aurka. Hala ere, askotan neurtu dituzte indarrak bi aurrelarietako; azkenekoz, aurtengo txapelketako ligaxkakoa bertan. Orduan aise irabazi zuen Zu-

bizarreta III.ak: 22-7. Baina asteartearen egindako pilota aukeraketan nabarmendu zuten emaitza horrek ez duela ezertarako balio, eta hutsetik hasiko dela final handia. Finalaren zailtasun jakitun da Egiguren V.a, eta oinak lurtean dituela iritsiko da Tolosara: «Zaila

da final batera iristea, baina ere zailagoa da irabaztea. Ditudan aukerak aprobetxatzen saiatuko naiz».

Zubizarretak duela bi urte galduta zuen lau eta erdian jokatu duen final bakarra, eta gogotsu iritsiko da bigarren finalera: «Partida zail bat espero dut. Julen oso pilotari ona da, eta diziplina askotan bere onena emateko gai da». Lehen txapela irabazteko nahiaren presioa kontuan hartuta, partida ikusgarria espero da.

Binakakoa osatuz doa

Atzo jakinarazi zuen Baiko Bina-kako Txapelketarako aukeratu dituzten pilotarien zerrenda. Erik Jaka, Unai Laso, Iñaki Artola eta eta Jon Ander Peña izango dira enpresaren aurrelariak. Atzelariak, berriz, Jon Mariezkurrena, Ander Imaz, Aitor Aranguren eta Jon Ander Albisu izango dira.

Laso ez da lehen partidetan ariko, eta ikusteko dago nork ordezkatu duen. Lazkoarekin alderatuta, Artola da iaz aritu ez zen bakarra. Mikel Urrutikoetxearen toki hartu du. Printzipioz, hilaren 24an hasiko da txapelketa.

Jon Alberdi ez da gehiago izango Baikoko pilotari

PILOTA • Baikok atzo jakinarazi zuen Jon Alberdi aurrelari azpeitiarra ez dela aurrerantzean izango enpresako pilotaria. Ateratako oharrean azaldu dutenez, pilotariak berak hartu du erabakia, Baikok eskaintako kontratuari uko egin ostean.

Gaur ariko dira Anaitasuna eta Beti Onak, ligan

ESKUBALOIA • Anaitasunak eta Beti Onak-ek ligako partidak dituzte gaur. Iruten galduta, garai-penaren bidera itzuli nahi du Anaitasunak. Torrelavega hartuko du (19:30). Beti Onak-ek Eldari egingo dio bisita (13:00), jaiste-ko postuetatik aldentzeko asmoz.

Baionak Arrozelari egingo dio bisita gaur gauean

ERRUGBIA • Aurkari zuzen baten aurka ariko da Baiona gaur. Arrozelaren zelaian arituko da (21:05). Baionarrak hamargarrenak dira Top14ko sailkapenean, bederatzi punturekin. Bi puntu gutxiago ditu gaurko aurkariak, eta hama bigarren postuan dago.

berria denda

Eskuratu **2024ko BERRIA** agendak eta **egutegia!**



Berriaren ohiko agenda
Asteko ikuspegia

14,50 € **bl 12,50 €**



Alaia Gaztelumendiren azala den agendak
Eguneko ikuspegia eta asteko ikuspegia

14 € **bl 12 €**



6 €

2024ko egutegia
Hilabeteko ikuspegia

BERRIAlaguna bazara, egin eskaria eta etxera bidaltzeko dizugu

Berria.eus/berrialaguna/denda • 943-30 43 45

aldi hau kontatzeko

berria



Ingeniaritza ikasketak egiten ari diren Eibar errugbi taldeko bost jokalaririk, ikasle egoitzako gimnasioan. GOTZON ARANBURU / FOKU

Eibar errugbi taldearen lehen taldeko bost jokalaririk ingeniaritzako ikasketak egiten ari dira. Eibarko campusetik jokalaririk erakartzeko lan egin dute.

Ezizen berri bat jar dakioke

Iñaki Berastegi

Eibar errugbi taldearen logoan putre bat ageri da. Hala ere, taldeak beste bi ezizen izan ditu orain arte: *armaginak* eta *arranoak* erabili izan dira taldeari buruz hitz egitekoan. Nahi izanez gero, zentzu handia duen beste ezizen bat gehitzeko moduan dago taldea: *ingenariak*. Izan ere, emakumezkoen lehen taldeko bost jokalaririk ingeniaritza ikasketak egiten ari dira, eta bigarren taldeko bost ere bai. Deigarria izanagatik, ez da guztiz kasualitatea, Euskal Herriko Unibertsitateak arkitectura tekniko gradu bat eta ingeniaritzako bost gradu eskaintzen baititu Eibarren (Gipuzkoa) duen campusean.

«Energia berriztagarrien ingeniaritzako ikasketak egitera etortzea erabaki nuenean, argi nuen kirola egiten jarraitu nahi nuela. Kirol talde bat izan zedin nahi nuen, eta, saskibaloi taldea Durangon zegoenez, errugbia probatzea erabaki nuen, eta gustatu

egin zitzaidan», gogoratu du Raquel Riera jokalaririk (Las Palmas Kanaria Handikoa, Espainia, 2000). 2018an ailegatu zen Euskal Herrira, eta ingeniaritzako ikasketak amaituko ditu kurtso honetan. «Ni ailegatu nintzenean ez dut gogoan ingeniaritza eskolako edo ikasle egoitzako neskari errugbian aritzen zen. Ez dakit nork eman zidan taldearen berri, baina Instagram bidez jarri nintzen haiekin harremanetan, eta entrenamendu batera joan nintzen».

Agueda Pisek (Oviedo, Espainia, 2003), berriz, 12 urte zituenetik jokatzen du errugbian. Ingeniaritzako ikasketak egiteko eta goi mailan errugbian jokatzen segitzeko modua eman zion Eibarrra joateak. «Eibarrek antolatutako udako egonaldia batean Cristina Guntin entrenatzailea ezagutu nuen, eta Eibarrera joateko esan zidan. Errugbiko Lehen Mailan jokatzeak aukera izango nuen, ikasketak egiten nituen bitartean. Bestela, Bilbon egingo nituen ikasketak, eta moldatuko nintzateke Eibarrera entrenatze-

ra-eta jokatzerara joateko», esan du asturiarrak.

Behin taldean bete-betean murgilduta, Riera taldearen «propaganda» egiten hasi zen unibertsitatean zein ikasle egoitzan. «Ezagutzen nuen orori eman nion taldearen berri; zertxobait astuna izan nintzen agian. Kartelak han eta hemen jarri genituen. Ez dakit taldera ailegatu diren jokalariek hala ezagutu ote



Zegoen giroagatik eta errugbiak duen izaera hagitz zintzoagatik gustatu zitzaidan hainbeste kirol hau»

Idoia Goia
Eibarreko jokalaria

«Errugbia aldagai asko dituen kirol bat da, eta ingeniariak halako 'arazoak' konpontzea gustatzen zaigu»

Raquel Riera
Eibarreko jokalaria

zuten taldea, baina uste dut talde gungarria izan zela».

Hain justu, halako kartel bat ikusi ostean erabaki zuen Idoia Goiak (Bera, Nafarroa, 2003) errugbia probatu nahi zuela. «Arratsaldetan zerbaitekin egin nahi nuen, eta, taldearen kartel bat ikusi eta gero, nik eta lagun batekin entrenamendu batera joatea erabaki genuen. Sekula errugbian aritu gabea nintzen». Kartelek, beraz, eragina izan zutela esan daiteke. «Hasieran jende gutxi joaten ginen, baina pixkanaka unibertsitateetik eta egoitzatik jende gehiago joaten hasi zen. Hagitz multzo polita osatu genuen». Aurtengoa hirugarren denboraldia du Goiak taldean. «Zegoen giroagatik eta errugbiak duen izaera hagitz zintzoagatik gustatu zitzaidan hainbeste kirol hau». Iraide Toyos eta Naroa Lopez dira ingeniaritza ikasketak egiten ari diren lehen taldeko beste bi jokalaririk.

Lehen taldeko eta bigarren taldeko ingeniariak multzoa egin dute orain, eta lan fisikoa ikasle egoitzako gimnasioan batera egi-

Goiko postuetan amaitzea da helburu nagusia

+ Bosgarren urtez jarraian Ohorezko Mailan ariko da Eibar, eta, aurreko lau denboraldietan bezala, sailkapenean goiko postuetan amaitzea izango da helburua. 28 jokalaririk taldea osatu dute denboraldi berrirako. «Aurreko denboraldiko multzoa mantendu dugu. Garapen handia izan duen taldea dela uste dut. Daukagun taldearekin oso pozik gaude», azpimarratu du Cristina Guntin taldeko entrenatzaileak. Cocodrillas Sevilla ligako txapeladunordearen aurka abiatuko dute liga bihar (12:30), Unben. «Ligako talde indartsuenetako bat da. Talde zaila da, eta beti kostatu zaigu haiei irabaztea». Majadahonda da egungo ligako txapeladuna.

teaz gain, ikasketek loturiko lanak egiteko ere maiz elkartzen dira. «Errugbia eta ingeniaritzako ikasketak ondo uztartzeko, denbora ondo antolatzea ezinbestekoa da. Ikasle egoitzan denok batera lan fisikoa egiteak asko lagundu digu gure egunerokoan», azaldu du Pisek. Hala ere, beti ez da «erraza» ikasketak eta kirola uztartzea. «Lan handia eskatzen du, eta norberarentzako denbora libre gutxi geratzen da. Ahal den neurrian, bidaetako orduak aprobetxatzen ahalegintzen gara», azaldu du Rierak. Goiaren ustez, «denbora» eta «gogo» kontua da: «Dugun denbora ondo kudeatzea da gakoa. Egia da aste batzuk zailagoak izaten direla, baina merezi du esfortzu hori egiteak, zalantzarik gabe».

Irakaspen baliagarriak

Errugbitik unibertsitateerako baliagarriak diren gauzak ikasi dituzte, baita alderantziz ere. «Ikasketetan beti izan dudana diziplina errugbira eraman dut», dio Goiak. «Errugbiak eta kirolak, oro har, dedikazioa zer den irakatsi didate», gehitu du Pisek. Rierari «denboraren kudeaketa ona eta errutinak ezarri eta jarraitzeko gaitasuna» eman dizkio errugbiak. Hasieran pentsatu arren errugbiak eta ingeniaritzak ez dutela zerikusirik, Rierak lotura bat topatu du: «Errugbia kirol zaila da. Aldagai asko ditu. Gauza asko aldi berean gertatzen dira, eta ingeniariak, oro har, halako arazoak konpontzea gustatzen zaigu».



Irene Arrarats itzultzaile eta BERRIAKO euskara taldeko arduraduna aurkezpenean, atzo, Donostian. GORKA RUBIO / FOKU

Bizipenetatik Irango egietara

Marjane Satrapiren 'Persepolis' komikia euskarara ekarri du Irene Arrarats • Autobiografikoa izanagatik ere, istorioek eta historiak bat egiten dute narrazioan

Gabine Ubeda Donostia

Lan erreferentziala da *Persepolis*, azken urteetako komikirik gorai-patuenetako bat, eta izatez mar-dula, bai bolumenaz, baita mamiz ere: «Orri bakoitzean perlak dau-de», dio Irene Arrarats, frantsesetik euskarara ekartzeaz arduratu den itzultzaile eta BERRIAKO euskara taldeko arduradunak. Elkar eta Reservoir Books argita-letxeek plazaratu dute.

Lan autobiografikoa da, estreina-ko 2000. eta 2003. urteetan argitaratua, frantsesez, lau libu-rukitan. Marjane Satrapi zine-magile, margolari, komikigile eta orobat artistaren beraren (Raxt, Iran, 1969) bizipenetan dago oina-rrituta, baina, Arrarats dioen



moduan, «kontakizun historiko eta politikoa ere bada, aldi bere-an». Komunikabideetan eta sare sozialetan pil-pilean dauden gertaera lazgarri asko *Persepolis*-en ageri diren gorabeherekin lotzen dira, irakurri ahala.

Ekialde Hurbilaren nahas-mahasa etengabe ateratzen da komikian, besteak beste, Mendebaldeko potentzien interbentzionismoa, petrolioaren negozioa eta hango herrien bizi nahi eta ezina.

Haurraren eta nerabearen begiradaz kontatuta eta gertaera pertsonalen bidez egituratuta dago narrazioa. Hala, autorearen biografiaren eta historiaren artean «batasun harrigarria» aurkitu du itzultzaileak, eta, hain zuzen horregatik, «urre-gorria» dela iritzi dio, «historia bizipenen bidez kontatzen duelako, eta bizipenak, berri, historiaren bidez azaltzen direlako». Hots, istorioa eta historia bat eta bera balira bezala, «dena txirikordatuta».

Narrazioan batu dituen pertsonaia guztiak, hurbilekoak nahiz ezezagunak, «hezur-haragizkoak dira, eta, horri esker, oso nabarmena da egia handiak dakartzala». Azpimarragarrienetako bat amona iruditzen zaio Arraratsi: «Zoragarria da».

Satrapi 1969an jaio zen, Iranen, familia burges progresista baten altzoan. Xah Persiakoaren agintepan direla abiatzen da komikia. Egileak 10 urte bete berri zituela, iraultza hasi zen Iranen. Handik gutxira, berriz, Iran-Irak gerra piztu zen. Gurasoek, alaba babestearren, Vienara igorri zuten «beren posizio pribilegiatuaren seinale, hori ere», Arrarats dioenez. Baina esperientzia gogorra izan zuen han, 14 urte besterik ez, eta bakarrik moldatu behar izan baitzuen erbestean. Gero, Teheranera jo zuen atzera, Arte Ederrak ikastera. 25 urte zituela, Europara itzuliz berriro, eta Frantzia bi-zi da harrezkeroztik.

Mamia, atalez atal

Satrapiren lehen komikia da *Persepolis*, eta Art Spiegelmanen *Maus* obrak eman zion inspirazioa. Arraratsen aburuz, komikiaren funtsezko elementua umorea da, «kontu garrantzenak ere halaxe kontatzen baititu. Batzuetan irriño bat aterako dizu; beste zenbaitetan, barre algar». Alde horretatik, Arraratsen pasarte «kutun bat» Descartes eta Marx elkarrekin hizketan jartzen dituenekoa da: «Filosofia lezio bat iruditzen zait, labur-laburra

eta barrea eragiten duena. Ez da-kit gehiagorik eska litekeen».

Narraziozko modua ere goraipatu dio Satrapi, «xalo eta tolesik gabe kontatzen baititu gauzak. Bere burua biluzten du, ez du edertzen, ez du idealizatzen, eta begiak zabalik begiratzen du kanpora ere».

Persepolis-en edizio berriak bakarrera ekarri zituen jatorrizko lau liburukiak, eta edizio berri horretan oinarritu du itzulpena



Xalo eta tolesik gabe kontatzen ditu gauzak. Bere burua biluzten du, ez du edertzen, ez du idealizatzen»

Irene Arrarats
Itzultzaile

Arraratsen ere. Bere ustez, lehena da «parterik zoragarriena eta imajinatiboena». Satrapi bere haurtzaroz mintzo da bertan. Eskolan aske dabilen ume bat erretaratzen du. Bat-batean, ordea, zapia jartzera behartuko dute, eta horrek dakartzen ondorioak pairatuko ditu.

Bigarren zatia Iran-Irak gerra du testuingurua, eta «gordina-go» da. Gauza imajinaezinak ikusiko ditu Satrapi: tortura, galera, maila guztietako bortizkeria, heriotza, bonbardaketak... «Eta hori ere, familia pribilegiatua dela kontuan hartuta», azpimarratu du berriz Arrarats. Ume «matxino samarra» izanik, gurasoek Europa *zibilizatuan* hobeki egongo dela deliberratu dute.

Hirugarren zatia Vienako egonaldia azaltzen du. Edozein nerabek izan ditzakeen gorabeheraz gain, erbesteak sortzen dituen nortasun arazoak batuko zaizkio. Arraratsen ustez, «nor izan nahi du, baina ez daki zein den; halako eten bat dauka bere nortasunarekin, familiarekin, kulturarekin eta herriarekin. Badenaz lotsatu ere egingo da». Gainbehera horren adierazgarri, hainbat hilabete eman zituen kale gorrian.

Atal horretan, liluratik etsipenera egingo du. Ezkerreko balioak, iraultza edota anarkismoa kolokan jarriko ditu, Vienan egutuko dituen kasuen erruz. «Talka hori eramanezina egingo zaio Satrapi nerabeari».

Laugarren atalean, askatasuna eta eskubide zibilak galduko ditu, «baina berdin izango zaio familiaren babesa izatearen truke».

Satrapi gauza guztiak «bide batez bezala» kontatzen dituela eta hori gogoko duela nabarmendu du Arrarats.

Engelsen 'Etxebizitzaren auzia' liburua kaleratu du Katakakek

1872tik 1873ra Alemaniako 'Volksstaat' egunkarian argitaratu ziren Engelsen hainbat testu biltzen dira lanean • Etxebizitzaren auzia kapitalismoaren berezko ezaugarria dela uste du

Jone Bastida Alzuru Donostia

Friedrich Engelsen *Etxebizitzaren auzia* liburua euskaratu du Ane Garcia, Katakak argitaletxearen eskutik. Testuak 150 urte bete ditu aurtan, eta hala azpimarratu du Hedoi Etxarte editoreak: «Orain ekartzen badugu, ez da arkeologia lan gisa egiten dugun ariketa bat, ezta literatura unitbertsanean bai ala bai egon behar diren piezak ekartzeko borondatearekin egindako ekarpen bat ere; gure gaurko munduan oihartzunak dituen testu bat gurekin izan dezagun da».

1872ko maiatzetik 1873ko urtarirera bitarte Alemaniako *Volksstaat* egunkarian argitaratu ziren Engelsen hainbat testu jasotzen dira liburuan, etxebizitzaren auzia lantzen dutenak. Liburuaren lehen edizioa 1873. urtean argitaratu zuten, eta, handik

hamabost urtera, 1887an, eguneratu eta berriro ateratu zuten, hitzaurre berri batekin: «Engelsek 1887ko hitzaurre horretan adierazten du harritu egin zela etxebizitzari buruzko testu haie tan esaten zirenekin, eta artikuludiferenteetan erantzuten joan zen». Hainbat gai lantzen ditu artikuluetan: landa exodoa, hirien bizigarritasuna, eraikuntza, gentrifikazioa, etxe eta auzo berriak egitearen kontua...

Garciaren arabera, teoria duen testu bat da, baina ez da testu teoriko bat. «Prentsarako idatzitako testua da, eta, gainera, erantzun gisa. Engelsek ironia handia darabil. Momentu batzuetan iraintzaile izatera ere iristen da, pixka bat gixon jartzen da batzuetan. Iruditzen zait gaurkotasuna duen gaia dela, eta niretzat dibertigarria izan da teoria modu horretan ematen duen

testu bat itzultzea». Arkeologia lana ez den arren, balio hori ere baduela uste du.

Testuak abagune politiko jakin batean sortu zirela azaldu du, halaber, Etxartek; Parisko Komunak porrot egin berritan, hain zuzen: «1871n izan zen gertakizun historiko hori, erreferentziala izan zena jende xehearen askapenean sinisten zuten talde eta pertsona guztientzat. Porrot horren ostean, gai asko berriro aztertu behar izan ziren, eta horietako bat izan zen etxebizitzarena. Engelsek aurre egiten zien bai [Pierre-Joseph] Proudhonek haragitzen zuen korrante anarkistari, baina baita bera baino moderatuagoak izan zitezkeen beste tradizio politiko batzuei ere».

Liburua hiru ataletan banatuta dago; lehenengoan, Proudhonen pentsamenduari erantzuten dio

Engelsek; bigarren goan, etxebizitzaren auzia ebatzi nahi duten burgesen neurriei egiten die kontra; eta hirugarren goan, berriz, bestelako «adibide eta frogak» gaineratzen ditu. Duela 150 urte idatzitako testuak diren arren,



Gaurkotasuna du, eta niretzako dibertigarria izan da teoria modu horretan ematen duen testu bat itzultzea»

Ane Garcia
Itzultzailea

«Oso testu materiala da. Zehazki gertatu diren eta gertatzen ari ziren gauzei erantzuten die»

Hedoi Etxarte
Editorea

gaurkotasuna ere badutela uste du Etxartek: «Liburua irakurtzen denean, bi gauza gertatzen dira: egiaztapen nabarmen bat da mundu intelektuala aldatu egin dela, berak aurre egiten dien aktore horiek honezkerok ez direlako izen horiekin existitzen. Baina, aldi berean, oihartzun handia dute gaur egungo auzi gehienetan, baita etxebizitzarenean ere. Ematen diren erantzunak garai hartako oso antzekoak dira».

Engelsen arabera, kapitalismoaren berezko ezaugarrietako bat da etxebizitza izateko langileen gabezia, eta egiturazkoa da etxebizitzaren auzia. Modu horretara, proposatutako bideekin arazoa ez zela konponduko iritzi zuen. «Unearen, tokia ere eta botere ezberdinetan zeuden aktoreen arabera, egon dira etxebizitzaren auzia konpontzeko saiakera batzuk. Baina Engelsek esaten du bakarrik ere ez duela funtzionatu». Hots, haren ustez, kapitalismoan ezin da etxebizitzaren auzia modu baikor batean ebatzi, eta ikuspegia zabaldu ezean ezinezkoa da auziari konponbidea ematea.

Amaia Prietok idatzi du liburuaren hitzaurrea, eta, Etxartek azaldu duenez, gaur eguneraino ekarri du auzia: «Gauza batzuk gertatzen zaizkigunean, badugu joera pentsatzekoa gaur egungo arazo bat dela. Oso ohikoa da belaunaldi batetik beherako jendeak pentsatzea Euskal Herrian etxebizitzarekin arazo bat dagoela 2008an gertatu zen krisi bati lotuta. Liburu honek nahiko nabarmen uzten du etxebizitzaren auzia kapitalismoan dagoen auzi zentral bat dela, beti».

Testu materiala

Engelsek jartzen dituen adibide historikoak Euskal Herrira, eta, zehazki, Nafarroa Garaira ere ekar daitezke, Etxarteren ustez. «XIX. mendean Euskal Herria ere hasten da exodo bat hirietara, besteak beste, landa eremuan bizitzeko geroz eta zailagoa delako. Eta hirietan segituan hasten dira arazo eta dinamika antzekoak; kasu batzuetan, jendea inolako duintasunik ez duten etxeetan bizi da, etxeak izatea oso zaila da, higieinarekin ere badira kontuak... Badago diziplinatze bat ere, burgesiaren diziplinatzearekin zerikusia duena eguneroko bizitzari lotuta».

Testu «materiala» da, eta liburu, hiri, eta erreferentzia asko daude lanean. «Zehazki gertatu diren eta gertatzen ari ziren gauzei erantzuten die».



Ane Garcia itzultzailea *Etxebizitzaren auzia* liburuaren aurkezpenean, Donostian. ANDONI CANELLADA / FOKU

Abian da Ikuska film laburren erakusketa

ZINEMA • Pasaiko badiaren nazioarteko film laburren erakusketa, Ikuska, abian da gaurtik aurrera, azaroaren 25a bitarte. Aurtengo 25. edizioa da. 100 herrialdeetatik 4.000 film labur baino gehiago jaso ditu Trintxer Kulturalak, egitasmoaren antolatzaileak. Horien artean 26 aukeratu dituzte lehiaketarako.



Eider Rodriguez idazlea. JON URBE / FOKU

Iruñean bilduko dira Nafarroako irakurle taldeak

LITERATURA • Nafarroako Irakurle Taldeen XI. Topaketa hasiko dute gaur, Iruñean, Nafarroako Liburutegian. Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* eleberriri buruzko solasaldiak abiatuko ditu topaketak, egilearekin eta Uxue Rey BERRIAKO kazetariak gidaturik. Hilaren 18ra bitarte, hainbat tailer eta bestelako jarduerak egingo dituzte.

SAN TELMO MUSEOA

Asteartetik igandera: 10:00-19:00
www.santelmomuseoa.eus



• **Kontzertua**
AmetsoLAK
Jabi Alonso

Musika Garaikidearen XIV Zirkuitua
19:30 // 3 €

STM

San Telmo Museoa

Argazki Bat Behelainoan proiektuak estudioko lehen lana aurkeztu du

Zazpi kantaz osaturiko diskoa da • Zuzeneko kontzertuetarako talde berria osatu dute

Urko Iridoy Alzelai

Segurtasun eza deituriko disko berria kaleratu du Argazki Bat Behelainoan egitasmoak. Arkaitz Artola musikariaren bakarkako proiektua da, eta estudioan grabatutako lehen lan luzea du, Bonberenea Ekintzak-en eskutik argitaratutakoa. Aurretik egindako *Lo bilduma*, 2020an argitaratutakoa, «etxean egindakoa» izan zen, «*Do It Yourself*» moduan, aipatu du Artolak. Disko berriak zazpi kanta ditu. Hala ere, diskotik at beste hiru kanta gelditu dira. Hauek digitalki lortu ahalko dira, baina soilik disko fisikoa eskuratzeko dutenak.

2005. urtean hasi zen Artola Argazki Bat Behelainoan izenarekin bakarka lan egiten. Lehena gotik, Adikune taldean ibilitakoa da musikaria. Azkeneko hemezortzi urteetan, bere kasa abestiar sortuz eta grabatuz joan da, horrela, su geldoan sortuz *Segurtasun eza*: «Abesti batzuek hemezortzi urte daramate nire alboan. Oinarriz, urte askoko lana da, baina, era berean, badaude abesti berriagoak, azkeneko urteetan sortu ditudanak». Diskoa «berandu, baina garaiz» iritsi da, haren esanetan. «Bizitzako gauzak direla eta, azken urteetan ezin izan nion ondo heldu musika sortu eta kaleratzeko dinamikari, baina azkenean aukera izan dut».

Sentimenduz beteriko kantez osatutako lana deskribatu du Artolak, eta post-rockak eta post-hardcoreak markaturiko kantak bilduta dagoela. «Hasieran argitasuna nabarmendu arren, giro ilun eta distorsionatu batek inguratzen ditu diskoko melodiak; hori da bilatu nahi izan dudana. Sentimendu eta emozio asko transmititzen dituen musika da».

Alde instrumentalari garrantzi handia eman nahi izan dio musikariak, letrarik gabeko melodia luzez beterik lana. Hainbeste, abestien erdiak instrumentalak direla, Artolak txertatutako gitarrak pitei nabarmen handia emanaz.

Segurtasun eza osatzeko bidean, hainbat bidelagun batu zaizkio Artolari. Grabaketa prozesuan



Argazki Bat Behelainoan proiektuak kontzertuak emateko osatutako taldea. ARGAZKI BAT BEHELAINOAN

Zuriñe Sarasola ibili da teklatuan, eta Iker Vazquez bateria jotzaile lanetan. Baxua, gitarrak, melodia eta ahotsak Artolak eginikoak izan dira. Bestalde, grabaketan eta nahasketan Karlos Osinaga Txap aritu da, Bonbereneko estudioan, 2023ko martxoa eta apirila bitartean.



Oinarriz, urte askoko lana da, baina, era berean, badaude abesti berriagoak, azkeneko urteetan sortutakoak»

Arkaitz Artola

Argazki Bat Behelainoan sortzailea

tean. Masterizazioa, berriz, Jonan Ordorikak egin zuen –abuztuan hil zen–. Artolak bilatutako giro iluna diskoaren azaleko irudian ere lortu du musikariak, Ekaitz Zilamendik egindako argazkiaren bidez.

Soinu teknikari lanetan ibili da Artola urte askoz, eta horrek bere abantailak ekarri dizkio disko osatzean: «Estudiora maketak eginak eraman nituen. Honela, lkerrek bateria gainetik grabatze-

ko aukera izan zuen. Berdin gertatu zen teklatuarekin. Azkenik, gitarrak grabatzeko orduan, denbora gehiago egon ginen, azken finean gitarra pista desberdin ugari grabatu behar izan nituen eta».

Aurrera begira lan gehiago kaleratzeko asmoarekin dabil Artola: «Kaxoian hainbat abesti ditut zain, eta noizbait argia ikusteko aukera emango diet». Grabaketa dinamikan sartuta, «prozesuak fintzeko eta ikasteko» aukera izan du musikariak: «Konfiantzaz bete naiz, eta, denbora dudan heinean, proiektu berriei ateak irekitzeko aukera izan nahi dut».

Zuzenekoak prest

Diskoa urriaren Sean kaleratu zuten, baina bihar egingo da aurkezpene kontzertua, Donostiako Doka aretoan. «Aurkezpene nire auzoan [Egian] egin nahi nuen, baina azkenean apur bat mugitu behar ko gara, eta Antiguako Doka aretoan emango dugu», azaldu du

Artolak. Igandekoaz gain, beste bi kontzertu dituzte lotuak. Modesto Newhouse taldearekin partekatutako oholtzetan izango dira emanaldiak: azaroaren 18an Bonberenean (Tolosa, Gipuzkoa), eta abenduaren 22an D'Elkatuz zentroan (Ordizia, Gipuzkoa).

Argazki Bat Behelainoan bere bakarkako ibilbideko ezizena izan arren, kontzertuak ematean Artola ez da bakarrik egongo. Hainbat musikarirekin «behin-behineko» taldea sortu dute, udaberrira arte kontzertuak emateko. Bost musikariz osatutako taldea osatu dute: grabaketan ibili den Vazquez bateria jotzailea alboan edukiko du Artolak, baina, beraz gain, Iñigo Ozaeta baxu jotzailea igoko da oholtzara, Pelax taldean Vazquez kidea dena. Artolak gitarra joko du zuzenekoetan, baina ez bakarrik: Jon Agiriano (Rukula) eta Fermin Mendazona (Gera) ere izango dira gitarrarekin.

Diskoa eskuratzeko, digitalki, Bonberenearen webgunean eta *Bandcamp.com*-en dago salgai. Ale fisikoak, berriz, Egiako Koxko eta Kaktus tabernetan daude.



Joan den asteburuan Altsasun jokatu zen finalurrekoaren irudi bat. INIGO URIZ / FOKU

Azken txanpan sartuta

Gaur jokatu dituzte Nafarroako eta Bizkaiko bertsolari txapelketetako finalurrekoak • Bata Agoitzen izango da, eta bestea, Berrizen

Amaia Jimenez Larrea

Aurrera doaz Bizkaiko eta Nafarroako Bertsolari Txapelketak, eta finalurrekoetan sartuta daude jada biak ala biak: Bizkaiko txapelketaren lehen finalurrekoa izango da gaurkoa, Berrizen. 17:00etan izango da, Olakueta pilotalekuan. Nafarroakoaren kasuan, ordea, Altsasuko saioaren ostean, bigarren finalurrekoa izango da Agoitzekoa. Kultur etxean izango da saioa, 17:30ean.

Bizkaiko Txapelketa izan zen kanporaketekin hasten lehena, urriaren 1ean; Mungian jokatu zuten lehengo kanporaketa. Sei saio izan dira guztira, eta azkenengoa Lekeition izan zen, joan den asteburuan. Eneko Abasolo izan zen garaile saio hartan, 466 punturekin. Jarraian joan ziren Koldo Gezuraga, Beñat Bilbao, Peru Irastorza, Maite Sarasola eta Aitor Arrutia.

Kanporaketa bakoitzeko irabazleak, puntuazioaren arabera lehen bost sailkatuak eta iaiz sailkatutako zazpi bertsolariak lehiatuko dira finalurrekoetan.

Aitor Etxebarrizarraga, Eneko Abasolo, Gorka Pagonabarraga, Iruri Altzerreka, Koldo Gezuraga eta Xabat Gallettebeitia izango dira

gaurko kanporaketan kantatuko duten bertsolariak, eta Itxaro Juaristi izango da gai jartzailea. Saioko partaiderik onena finalerako sailkatuko da zuzenean.

Hurrengo finalurrekoa Santurtzin izango da, datorren larunbatean, azaroak 18, 17:00etan, Serantes aretoan. Aitor Bizkarra, Jone Uria, Mikel Goirienea, Unai Mendiburu, Bittor Altube eta Txaber Altube izango dira saio horretan kantuan.

Eta azken finalurrekoa azaroaren 25ean izango da, Lemoako kiroldegian, 17:00etan. Bertan ariko dira Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Ibai Amillategi, Oihana Bartra, Josune Aramendi eta Aissa Intxausti. Abenduaren 16an izango da finala, Bilbo Arenan.

Iruñeko finala, gertuago

Joan den asteburuan, Nafarroako Txapelketako lehen kanporaketan, Saioa Alkaiza izan zen garaile, eta hark lortu zuen zuzenean finalera sailkatzea. Altsasuko lortia kulturgunean jokatuakoa saioan, 506,9 puntu lortu zituen Alkaizak. Bigarren postuan geratu zen Saats Karasatorre, 470,5 punturekin, eta hirugarren postua Sarai Roblesentzat izan zen, 468,5 puntu jasota.

Sei bertsolari arituko dira kan-

tuan gaur Agoitzeko kultur etxean: Julio Soto, Xabat Illarregi, Idoia Granizo, Ekain Alegre, Julen Zelaieta eta Urko Gartzia. Gai jartzaile lanak Maialen Belarrak egingo ditu. Alkaizak bezala, saioko bertsolariarik onenak finalerako beste txartel bat lortuko du. Gainerakoek Lesakako finalurrekoa jokatu arte itxaron beharko dute sailkatuak izan diren ala ez jakiteko.

Lesakako saioa datorren asteko igandean izango da, azaroak 19, 17:30ean. Hasiera batean kultur etxean egitekoak ziren, baina Nafarroako Bertsolari Elkartek eta Lesakako Udalak egoera aztertu ostean, pilotalekura lekualdatzea erabaki dute. Edukiera handitu dute horrela. Joanes Illarregik, Eneko Lazkozek, Josu Sanjurjok, Eki Mateorenak, Mikel Lasartek eta Beñat Astizek hartuko dute parte, eta Alaitz Rekondo izango da gai jartzailea.

Finala, berriz, abenduaren 2an izango da, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian, 17:00etan. Hiru finalurrekoetako irabazleak, eta lehen bost sailkatuak lehiatuko dira bertan.

Bai Nafarroako bai Bizkaiko txapelketako finalerako sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean daude salgai.

Urregina eta orkestra

Marta Garcia

Euskadiko Orkestraren zuzendari titullarrak, Robert Treviñok, Johannes Brahmsen sinfonia guztiak eta kontzertu nagusiak interpretatzeko erronkari ekin ondoren, Stanislav Kotxanovski errusiarraren batutak hartu du *Biolinerako kontzertua* gidatzeko ardura. Kontzertuaren nondik norakoak zehazten hasi baino lehen, esango dut besaulki-patiotik behintzat bazirudiela zuzendariak musikariekin lotura lortu zuela; emanaldi ederra izan zen konexio horren emaitza.

Brahmsen kontzertua, gainera, ez da soilik bakarlariaren luzimendurako idatzitako pieza; orkestrak eta biolinak bat egiten dute guztiz musikaren norabidea marrazteko. Hala ere, izan dira ere solo parteak gaitzetsi dutenak, melodiarik ez zuelakoan; Pablo Sarasate birtuosoa, esate baterako, galdetu omen zuen zergatik geratu beharko zuen «han, biolina eskuan, oboeak obra osoko melodia bakarra jotzen zuen bitartean». Melodia argirik ezean, kontzertuak baditu une zirrargarriak, eta horiek gorenera eramateko bi faktore izan ziren funtsezkoenak. Batetik, Khatxatrianen tinbre distiratsu eta goxoa, nabardurak aske uzteko gaitasuna, urregin fin eta doiaaren abilezia ekoizkina xehetasunez leuntzen duen jarrera; kadentzian zein

KRITIKA Musika Euskadiko Orkestra

Zuzendaria: Stanislav Kotxanovski.
Biolina: Sergey Khatxatrian.
Egitaraua: J. Brahmsen *Biolinerako eta orkestrarako kontzertua* op. 77 eta Dmitri Xostakovitx 6. Sinfonia, op. 54.
Lekua: Donostiako Kursaal auditoriuma. **Eguna:** Azaroak 9.

Adagio-an, gozamen. Bestetik, orkestrak erakutsitako moldagarritasuna: harien energia lehen mugimenduaren irekieran, baita *Allegro giocoso*-aren bizitasunean, beti oreka ederrean.

Xostakovitxen 6. sinfoniaren hasieratik agerian geratu zen orkestrak Brahmsen kontzertuan aurkeztutako trinkotasunean eta doitasunean sakondu zezakeela. Kontzientzia propioaren eta obediendiaren arteko talkan, Lenini eskaintako sinfonia idatziko zuela adierazi ostean, konpositore errusiarrak planak aldatu eta handitasun nazionalaren arrastorik gabeko obra sortu zuen. Publikoak eta erregimenak ez zuten ondo hartu, noski. Zorionez, ideologiaren zamaz askatuta entzun ditzakegu gaur *Largo*-aren haize leunak – oboe, klarinete, txirula –, *Allegro*-aren kontrasteak. Zenbatetan ihes egiten duen musikak ideien kondentsazioak.

Bilbo Zaharra EUSKALTEGIA	FORUM 2023 - 2024
Azaroaren 17an, ostirala 19:00etan	
*BIDEBARRIETA liburutegia areto nagusia.	
musika eta hitza	
Mikel Urdangarin	
Bilbao New York Bilbao	
Sarrerak doan	
LABORAL Kutxa	Bilbao Bizkaia
www.bilbozaharra.eus/forum	

HONDARRIBIKO AGENDA KULTURALA

AZAROA - 2. Hamabostaldia

FAMILIA ZINEMA



Noiz: azaroak 12, igandea, 18:00etan
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'Lau ahizpa magikoak'
Prezioak: 3 euro
Sarrerak erosteko: <https://tickets.kutxa-bank.es/> edo Arma Plaza fundazioan

ZINEMA



Noiz: azaroaren 16tik 18ra
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: Amua, III. Hondarribiko musika-film laburren jaialdia
Sarrerak: librea, edukiera bete arte

HITZALDIA

Noiz: azaroak 23, osteguna, 19:00etan
Non: kultur etxea
Zer: 'Ni casadas ni sepultadas' – (Amaia Nausia Pimoulier)
Sarrerak: librea, edukiera bete arte

JAIALDIA



Noiz: azaroak 24, ostirala, 19:00etan
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'Las buenas compañías'
Prezioak: 3 euro
Sarrerak erosteko: <https://tickets.kutxa-bank.es/> edo Arma Plaza fundazioan

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna



Noiz: azaroak 25, larunbata

- 10:30ean
Non: Emeki elkarte
Zer: emakumeen korrika
- 18:00etan
Non: Martxoak 8 plaza
Zer: Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna – elkarretaratzea
- 19:00etan
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'Baginaren bakarrizketak' izeneko antzezlan – Txalo Produksioak
Prezioak: orokorra 6 euro eta 18 urtetik beherakoak 3 euro
Sarrerak erosteko: <https://tickets.kutxa-bank.es/> edo Arma Plaza fundazioan
- Herritik zehar/Portuko eliza: bandarentzat musika, diana, kalejira eta kontzertua

MEZA

Noiz: azaroak 26, igandea, 12:30ean
Non: Kale Nagusiko parrokia
Zer: Santa Zeziliaren omenezko meza
Parte hartzaileak:

- Hondarribiko Musika Eskolako txistulariak
- Hondarribiko Txistu Taldea
- Elizako abesbatza

TOPAKETA

Noiz: azaroak 24, ostirala, 11:00etan
Non: Martxoak 8 plaza
Zer: Hondarribiko sare morea ehuntzen

HITZALDIA

Noiz: azaroak 19, igandea, 18:00etan
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'Cualquier Tiempo Pasado fue anterior: Trapicheo de princesas en el Bidasoa' - (Nieves Concostrina). Gazteleraz.
Sarrerak: librea, edukiera bete arte

KONTZERTUA

Noiz: azaroak 26, igandea, 18:00etan
Non: portua
Zer: Eskifaia abesbatzaren Santa Zeziliako kontzertua

DANTZA



Noiz: azaroak 26, igandea, 19:00etan
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'Shine' Lasala – dantza
Prezioak: 3 euro
Sarrerak erosteko: <https://tickets.kutxabank.es/> edo Arma Plaza fundazioan

HITZALDIA



Noiz: azaroak 22, asteazkena, 18:30ean
Non: Itsas Etxea auditoriuma
Zer: 'La cultura de la dieta: el negocio millonario de la insatisfacción corporal' – Nutrizio hitzaldia – Gabriela Uriarte
Sarrerak: librea, edukiera bete arte

TOPAKETA

Noiz: azaroak 20, astelehena, 18:00etan
Non: Kasino zaharra
Zer: Emakumezkoen Hondarribiko laugarren ttopara
Prezioak: doan

IPUIN KONTALARIA

Noiz: azaroak 29, asteazkena, 18:00etan
Non: Zuloaga Etxea
Zer: 4-7 urteko haurrentzako – Maite Franko - Euskaraz

JAIOZEN IBILBIDEA

Noiz: azaroaren 29tik urtarrilaren 10era
Non: herriko hainbat establezimendutan, egitarauaren arabera
Zer: 2023ko jaiotzen ibilbidea

Komunikazio gerra

Israelek kontakizunaren hegemonia galdu du. Oraindik ere eliteen eta komunikabide handien babesa izanik ere, zabaldu nahi izan duen mezua jada ez da sinesgarria. Esango nuke, kontrara, inoiz ez dela berriro sinesgarria izango.

Palestinaren aurkako genozidioaren fase berri hori hasi zenetik, Israelek, biktimak itxurak eginenez, bere erasoak justifikatzeko

komunikazio tresna guztiak jarri zituen martxan.

Lehenik, muntaiak erabiltzen hasi zen, burua moztutako berrogei haurren istorioa saldu nahi izan zuen. Ospitalen kontrako lehen erasoak Hamasek egin zituela ere zabaldu nahi izan zuten. Bata zein bestea gezurra zirela argitu zen berehala.

Bigarrenik, kontakizuna mantentzeko gaitasunik ez zuela ikusi-

sirik, konfusioaren bidezko nahasmen estrategiak jarri zituen martxan. Bertsiotz ezberdinak zabalitzen hasi zen, eta nahasmen horren barnean, zalantzak sortu zituen, egia benetan zein den ezin bereizteko helburuz.

Hirugarrenik, eta tokiko hedabideek zabalitzen zuten informazioari esker bere estrategiak porrot egiten zuela ikusirik, horien aurka oldartuko da era krudele-



IRLEEN SAREA
Gorka Julio

netan. Hedabide horiek zituzten ofizinak erasotzeari ekingo dio, eta, ondoren, kazetariak edota beren senitartekoak. Kazetariak zuzenki erasotutak izan direnaren adostasun zabala dago.

Laugarrenik, kazetariak ez ezik, herriko kazetaritzak eta herritar soilek zabalitzen zuten informazioari esker, benetan gertatzen ari dena jakiterik izan dugu.

Israelek izan duen soluzio bakarra komunikazio bide guztiak etetea izan da. Horretarako, elektrizitatearen, Interneten eta bestelakoan etetea erabaki du eraso bortitzen egin diutenean; komunikazio zulo beltz bat sortuz egun batzuetan.

Orain, horrek denak porrot egin ostean, beste pauso batzuk ematen ari da. Bere militarren alde positiboa erakutsi nahi du militarrekin batera doazen kazetarien bidez, eta kanpoan sostengua erakutsiko duten elkarretaratzeko egin nahi dituzte, bertaratzeko jendea ordaindu behar badute ere.

Eliteak eta horiek kontrolatutako komunikabideak ez dira nahiko izan oraingoan informazioaren ildoari eusteko, eta horrek ere zer pentsa eman behar liguke. Komunikazioaren munda asko aldatu da eta Gazako sarriaskiaren ondoren ez da inoiz berdina izango.



Sami Arpa Serieslandeko gonbidatuaren *How to use IA in your next film* hitzaldia, Getxoko Biscaytik fundazioan, atzo. OSKAR MATXIN EDESA / FOKU

Adimen artifizialarekin lotutako gaiak aztertzen ditu Sami Arpak Europako Parlamentuan. Largo Ai sortu du, teknologia berrien bidez ikus-entzunezkoen sormen prozesua azkartzeko asmoz.

Film adimendunak sortzen

Iraia Vieira Gil Getxo

Adimen artifizialak pelikuletako sorkuntza prozesuak azkartu ditzakeela ziurtatu zuen Sami Arpak, Biscaytik fundazioan (Getxo, Bizkaia) eskaini zuen hitzaldian, atzo. Adimen artifizialarekin lotutako gaiak aztertzeko kontratatu du, hain zu-

zen, Europako Parlamentuak, eta orain arte egin dituen hausnarketako batzuk partekatu zituen Seriesland Bilbao International Digital Festival-eko ikus-entzunezkoen sortzaileekin.

Berlaratu zirenek hasieratik eta arreta handiz entzun zituzten Arpak eman beharreko azalpenak; ikusleetako batzuek ingelesetik gatzelerako zuzeneko itzulpena

eskaintzen duten kaskoak ere jantzi zituzten. «Oso garrantzitsua da jakitea nondik gatozen eta nola lortu dugun hona heltzea», azpimarratu zuen, eta historia digitalaren inguruko klase labur bat emateari ekin zion.

«2006 eta 2007 bitartean, erabiltzaile bakoitzari egokitutako ikus-entzunezkoen gomendioak egiten hasi ziren streaming plata-

formak». Urte batzuk geroago, 2013an, plataforma horietako arduradunak konturatu ziren askoz ere merkeagoa zela eduki propioa sortzea, bestelako edukien salerosketa etengabea aritzea baino. «Gaur egun, Netflixeko edukia- ren %50 originala da».

2025ean, ordea, garai horri amaiera eman eta edukia- kon- tsumitzeko beste bat hasiko dela

aurreratu zuen Arpak: «Adimen artifizialaren eta *big data*-ren aroa». Garai horren parte izan nahi du berak eta, aldi berean, ikus-entzunezkoen arloan lan egiten jarraitu. Horretarako sortu du, lantalde handi baten laguntzaz, Largo Ai enpresa. Bera da zuzendari nagusia.

Hazten ari den umea

Sormen prozesuan dauden ikus-entzunezkoek pertsonengan eragin ditzaketen emozioak, edukiek lantzen dituzten generoak, pertsonaia bakoitza interpretatzeko egokiena den aktorea edota ikusle potentzialak identifikatzeko gaitasuna du Largo Ai softwareak. Oraindik, ordea, ez da Arpak nahiko lukeen bezain profesionala: «Haur baten antza du. *Big data*-ren bitartez ari da ikasten, eta oinarritzko kontzeptuak interpretatzen hasten».

Zertarako balio du software horrek, zehazki? «Filmaren kontakizuna sortzen ari garenean, eskema batean oinarritutako eta sortzaile bakoitzaren beharretara egokitutako irudiak sortzea nahi dugu», adierazi zuen hizlariak. Ez da lan erraza, ordea. «Horrek esan nahi du norberaren datu pribatuak softwarearen eskura egon behar dutela». Eta jende asko ez dago horretarako prest.

Eduki sortzaileak gehien kezkatzen dituzten bi arazoak kontuan hartuta sortu dute Largo Ai: «Finantzaketa eta castinga». Ideia hori azaldu zuenean galdetu zion sortzaile batek Arpari adimen horrek ez ote zituen soilik ekoizpen enpresa handien behar- rarak asetzen. Hurrengo erantzun zion adituak: «Ekoizpen enpresa handiek inbertitzen dute gehienbat horrelako proiektuetan, eta haiek irabazi ekonomiko- ak lortu nahi dituzte».

Eduki itzalita aire-girogailua etxean
edo gelan inor ez dagoenean.

Eguraldia




Giro bustia

Goizean, goibel egongo da, eta denean egingo du euria, baina iparraldean sarriago eta ugariago. Eguerditik aurrera, hegoaldean atertzuz joango da, eta hodeiak gutxitu egingo dira, baina isurialde atlantikoan euria egiten jarraituko du, batez ere kostaldean. Hegoaldeko haizea nabarmen indartuko da arratsaldean. Haize horri esker, temperatura ere epeldu egingo da, batez ere iparraldean.

ITSASOA

Hego-mendebaldeko haizeak joko du, 2-3ko indarrarekin; arratsaldean, 3-4ko indarrarekin, eta mendebaldetik tarteka. Itsaso kizkurra izango da, itsaskirri edo itsaskiko guneekin. Arratsaldetik aurrera, metro eta erdi eta bi metro arteko olatuak izango dira.

ISOBARA MAPA



EGUZKIA	SORTU	GORDE
	07:59	17:52

ILARGIA	EGUNA
Ilberria	Etzi
Ilgora	Azaroak 20, astelehena
Ilbetea	Azaroak 27, astelehena
Ilbehera	Abenduak 5, asteartea

BIHAR

Argiago eta lehorrago

Goizean euria egingo du, eta hodeiak izango dira nagusi, batez ere iparraldean. Orduak pasa ahala, atertzuz joango da, eta ostertak zabalduz joango dira denean. Hego-mendebaldeko haizea bizia ibiliko da hasieran; gero, mendebaldera aldatuko da, eta indarra galduko du. Tenperatura ere azalduko da handirik egongo, baina gora egitea izango da joera.

ITSASALDIA	ORDUA	METROAK
Itsasgora	02:59	3,89
Itsasbehera	09:01	1,16
Itsasgora	15:13	3,98
Itsasbehera	21:22	1,02

HAMAIIKA

07:00: Hamaika 24. **07:30:** Pandoraren kutxa. **08:30:** Miru. **10:30:** Hamaika 24. **11:00:** Musika zuzenean. **11:30:** Zozoak beleari. **12:00:** Gurean gaur kronika. **14:00:** Araba gaur. **14:30:** Bikografiak. **15:30:** Hamaika 24. **16:30:** Bizi musika. **17:00:** Musika zuzenean. **17:30:** Hamaika 24. **18:00:** M ama eme ume. **18:30:** Hamaika 24. **19:00:** Zozoak beleari. **19:30:** Hamaika 24. **20:00:** Banda zabala. **21:00:** Harri salda. **22:00:** Kolpez kolpe. **23:30:** Banda zabala. **00:30:** Hamaika 24.

ETB 1

06:20: Marrakzi bizidunak. **11:20:** Abenturaroa. **11:50:** ETB Kultur. **12:15:** Sustraia. **12:45:** Artefaktua. **13:30:** Teknopolis. **14:00:** Gaur egun. **14:50:** Eguraldia. **15:05:** Lo-sagabeak. **16:05:** Gastronomadak. **17:15:** Pilota. ETB Kantxa. Lau terdiko promoziozko finala. **20:00:** Gaur egun. **20:35:** Kirolak. **21:05:** Hitzetik hortzera. **22:05:** Oholtza: Kepa Junkera. Erromeriak. **23:10:** Oholtza: Tolosako Nazioarteko Abesbatza Ihiaketa. **00:10:** Herri txiki, infernu handi.

ETB 3

07:35: Golazen. **08:25:** Zuhaitz etxe-ko istorioak. **08:40:** Raa Rae lehoi orrolaria. **09:00:** Ipuin txiki, soinu handi. **09:30:** Zorionak. **09:35:** Baga Biga Higa. **09:40:** Mintxo Praktika. **09:50:** Patata beroa. **09:55:** Blinky Billen abenturak. **10:20:** %100 Otsoko. **10:40:** Super Dino. **11:00:** Remy eta Boo. **11:25:** Milo. **11:45:** Otsoko. **11:55:** Tib eta Tumtum. **12:20:** Ernest eta Rebeka. **12:50:** Doraemon. **13:15:** Jeremy Super Karibu. **13:35:** Pingu hirian. **13:45:** Mini ninjak. **14:05:** Aberezoak. **14:20:** Squish. **14:40:** Idefx eta menderakaltzak. **15:05:** Robin Hood. **15:30:** 3 Ene Kantak. **16:30:** Pipi Kalizaluz. **16:55:** Presto magia eskola. **17:05:** Ahizpak. **17:30:** Oum, izurde zuria. **17:55:** Danger Mouse. **18:05:** Gormiti. **18:25:** Kaleko futbol. **18:50:** Andu berandu. **19:15:** Doraemon. **20:00:** Zorionak. **20:05:** Sorgin baldarra. **20:35:** Gad-get inspektorea. **20:55:** Lakebottom kanpamentua. **21:35:** Mutil neska txakur katu sagu gazta. **22:00:** Lan bixiak. **22:20:** Rocket monkeys. **23:00:** Dave Spuden Mundu Kaskara. **23:25:** Danger mouse. **23:45:** George oihanekoa. **00:05:** Bat Pat.

KANALDUDE

10:05: Taldeko Xilaba. Lehen erdi finala. **19:35:** Hurbiletik. Gaztain bilketa makinaz.

Hollywood

09:10: Monte Carlo. **11:00:** Ana y el rey. **13:25:** Por siempre jamás. **15:30:** Aquamarine. **17:15:** Harry Potter y el prisionero de Azkaban. **20:05:** The guardian.

AMC

09:00: Wimbledon: el amor está en el juego. **10:30:** Una rubia muy legal. **12:15:** Una rubia muy legal 2. **17:00:** Perdido. **20:20:** El crimen de Georgetown. **22:10:** Nomadland.

BERRIA

Larumbata, 2023ko azaroaren 11

ETB 2

07:45: Historias a bocados. **08:35:** Vascos por el mundo. **11:00:** Euskadiko Orkestra 2023-2024. **12:40:** Esta casa es una mina. **13:55:** Atrápame si puedes. **14:58:** Teleberri. **16:05:** Eguraldia. **16:25:** Zinema. Asesinato en Guadalupe. 2023. **18:10:** Zinema. Asesinato en Kermadec. 2022. **20:00:** Asesinatos en la montaña. **21:00:** Teleberri. **22:05:** Eguraldia. **22:25:** El viajero.

ETB 4

07:35: Atrápame si puedes finde. **08:25:** Tupper Club. **09:30:** A ver si no llueve. **10:45:** De lo bueno lo mejor. **11:35:** Del país de los vascos. **14:00:** Robin Food. **16:10:** Vascos por el mundo. **19:50:** Tupper Club. **20:50:** Yo sé más que tú. **21:30:** Atrápame si puedes finde. **22:20:** Vascos por el mundo.

La 1

07:00: Albisteak. **11:10:** Saber vivir. **11:45:** Españoles en el mundo. **12:35:** Comando actualidad. **13:30:** Audiencia abierta. **14:00:** Viaje al centro de la tele. **14:30:** Corazón. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Zinema. La flor de mi jardín. **19:30:** Zinema. A 45 revoluciones por minuto. **21:00:** Albisteak. **21:30:** Informe semanal. **22:05:** Zinema. Cuando menos te lo esperas.

La 2

07:50: La 2 express. **08:00:** Los conciertos de La 2. **10:00:** Agrosfera. **10:40:** Para todos La 2. **11:10:** Objetivo Igualdad. **11:30:** En lengua de signos. **12:10:** Mi cole es rural. **14:25:** El hombre y la tierra. **15:35:** Saber ganar fin de semana. **18:50:** ¿Que animal!. **19:20:** Reduce tu huella. **20:15:** Dokumentalak. **21:00:** Encuentros en RTVE. **22:05:** Zinema. Instinto maternal. la.

Antena 3

08:20: Los más. **10:00:** La voz. **13:20:** Cocina abierta de Karlos Argiñano. **13:50:** La ruleta de la suerte. **15:00:** Albisteak. **15:45:** Kirolak. **15:55:** Eguraldia. **16:00:** Zinema. La negociadora. 2016. **19:30:** Zinema. Volver a vivir. 2014. **21:00:** Albisteak. **22:10:** Password.

Tele 5

08:30: Got talent. **11:05:** Más que coches. **12:10:** Got Talent España. Momentazos. **13:15:** Social7. **15:00:** Albisteak. **16:00:** Fiesta. **21:00:** Albisteak. **22:00:** Got Talent España.

La Sexta

06:00: Remescar cosmética al instante. **06:15:** Bestial. **09:10:** Zapeando. **10:45:** Equipo de investigación. **14:00:** Albisteak. **15:30:** Más vale sábado. **20:00:** Albisteak. **21:15:** Sábado Clave. **21:45:** La Sexta Xpical.

Cuatro

07:30: ¡Toma salami!. **07:55:** Volando voy. **10:45:** Redi-séname. **11:20:** Viajeros Cuatro. **14:55:** Noticias Deportes Cuatro. **15:25:** Eguraldia. **15:40:** Zinema. Caza mayor 2014. **17:50:** Zinema. Ascenso al límite. 2022. **19:45:** Cuatro al día. **20:19:** Albisteak. **20:45:** Noticias Deportes Cuatro. **21:15:** First dates. **22:00:** Zinema. El protector (The marksman). 2021.

TF1

06:30: TFou. **10:40:** Génération Ushuaia. **11:50:** Les douze coups de midi. **13:00:** Journal. **13:40:** Grands reportages. **14:50:** Reportages découverte. **16:10:** Le docs du week-end. **17:15:** Star Academy, la quotidienne. **17:50:** 50mn Inside. **20:00:** Journal. **21:10:** Star Academy. **23:45:** Star Academy, retour au château.

France 2

08:15: Télématin. **09:45:** Azaroaren 11ko zeremonia. **11:55:** Tout le monde veut prendre sa place. **13:00:** Journal. **16:00:** Affaire conclue, tout le monde a quelque chose à vendre. **18:05:** Tout le monde a son mot à dire. **18:20:** N'oubliez pas les paroles. **20:00:** Journal. **20:30:** 20h30, le samedi. **21:10:** 100 % logique: la réponse est sous vos yeux. **23:25:** Quelle époque!

France 3

08:15: Marrakzi bizidunak. **10:00:** Rencontres à XV. **10:35:** Outremer gourmand. **11:10:** Dans votre région. **12:25:** Ici 12/13. **15:35:** Les carnets de Julie. **17:25:** Le jeu des 1.000 euros. **17:55:** Questions pour un super champion. **19:20:** Le 19/20. **20:00:** Tout le sport. **20:40:** Cuisine ouverte. **21:10:** Meurtres à...

EKITALDIAK

ALDUDE Ene bizipen, pertsu ta kantuak, Piarre Erramuzperen (1927-2019) liburuaren aurkezpe-na.

● Gaur, 11:00etan, *Esnazuko Menta* ostatuan.

ARROSA Basapiztiak, Buuzbu eta Kontrabanda.

● Gaur, 20:00etan, *trinketea*.

ATARRABIA Gatibu.

● Gaur, 20:00etan, *Totem aretoa*.

BERRIZ Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Eneko Abasolo, Iurri Altzerreka, Aitor Etxebarriazarraga, Xabat Gallettebeitia, Koldo Gezura-ga eta Gorka Pagonabarraga.

● Gaur, 17:00etan, *Olakueta frontoian*.

BILBO *Triptico* dantza ikuskizuna. Estevez, Paños eta konpainia.

● Gaur, 18:00etan, *Guggenheim*.

BILBO Kaleko Urdangak eta Is-kanbila.

● Gaur, 22:00etan, *Kafe Antzokian*.

DONOSTIA Travis Birds.

● Gaur, 20:00etan, *Dokan*.

DONOSTIA Dylan Leblanc.

● Gaur, 20:00etan, *Alxeririn*.

ETXARRI ARANATZ Pleura.

● Gaur, 22:00etan, *plazan*.

GASTEIZ Henri Herbert.

● Gaur, 13:30ean, *Helldoradon*.

GASTEIZ Antzerkia: (H)ondoko gela.

● Gaur, 20:00etan, *Monstrenkan*.

IGORRE Zea Mays.

● Gaur, 21:30ean, *gaztebean*.

IRUÑEA Eñaut Elorrieta.

● Gaur, 20:00etan, *Gaiarre antzokian*.

LEMOA Antzerkia: *Ez dok ero*. Tar-tean Teatro.

● Gaur, 20:00etan, *kultur etxean*.

SOPELA *Anonyme popular*. Igor Elortza eta Rafa Rueda.

● Gaur, 20:00etan, *kultur etxean*.

TOLESA Antzerkia: *La Ilamada del mar*. Mots eta Tete konpainia.

● Gaur, 18:30ean, *Topicen*.

Agenda osoa
ikusteko,
hemen duzu
[www.berria.eus-](http://www.berria.eus-erako lotura)
erako lotura



Zinema

Araba

Gasteiz

FLORIDA, ikuslearen eguna: asteazkena.

Boo Kwal eta museoaren lapurretak

12:00

Doraemon: Nobitaren dinosauro...

El chico y la garza 12:00 17:30

El favor 12:00 19:00

El maestro que prometió el mar 16:45

21:00

Five Nights At Freddy's 12:00 19:15

Juniper 21:15

La patrulla canina 12:00

Los asesinos de la luna 20:00

Saben aquell 17:00 19:00 21:30

The Marvels 12:00 17:00 15:45

Trolls 3: Todos juntos 12:00 19:15

19:15

Un amor 17:00 19:30 22:00

Vidas pasadas 17:00 19:15 21:30

GORBEIA ZINEMAK, ik. eguna: asteartea.

Alimañas 16:15 18:05 22:30

Doraemon: Nobitaren dinosauro...

17:00

El chico y la garza 19:15 21:45

El favor 16:10 18:10 20:15 22:25

El señor de los anillos: La comunidad...

20:15

Five Nights At Freddy's 17:15 19:35

22:00

Hypnotic 22:10

La bala de Dios 20:00 22:25

La patrulla canina 16:10

Los asesinos de la luna 16:25

Saben aquell 18:10 20:20

The Marvels 16:00 18:10 19:10

20:25 22:35

The Marvels 3D 17:00 21:00

Trolls 3: Todos juntos 16:00 18:00

20:10

VELMO BOULEVARD, ik. eguna: osteguna.

Alimañas 19:25 20:30

Campeonex 16:20

Doraemon: El nuevo dinosauro... 15:45

17:15

El exorcista: Creyente 22:00

El favor 16:05 18:15 20:25 22:35

El señor de los anillos: La comunidad...

20:00

Five Nights At Freddy's 16:00 17:00

18:20 19:20 20:40 21:40

Hypnotic 18:00

La bala de Dios 20:05 22:30

La patrulla canina 16:10 18:20

Los asesinos de la luna 17:00 21:00

Saben aquell 22:30

Me he hecho viral 22:30

Saben aquell 19:00

Sound of Freedom 21:30

The Marvels 15:45 17:00 18:00 19:15

20:15 21:30 22:30

Trolls 3: Todos juntos 15:45 17:15

17:45 19:45 20:15

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

20:10

La bala de Dios 17:20 19:30 22:10

Los asesinos de la luna 20:15

Saben aquell 16:50

Saw X 21:15

The Marvels 16:50 17:50 18:25 19:25

Trolls 3: Todos juntos 15:45 16:45

18:00 19:00

VELMO MEGAPARK.

Alimañas 20:10

Doraemon: El nuevo dinosauro... 18:00

Doraemon: Nobitaren dinosauro...

15:45

El exorcista: Creyente 22:45

El señor de los anillos: La comunidad...

20:00

Five Nights At Freddy's 16:00 17:15

18:25 19:35 22:00

Hypnotic 20:45

La bala de Dios 20:15

La patrulla canina 16:00 18:05

Los asesinos de la luna 17:00 21:00

Mi otro Jon 15:50

Saben aquell 20:20

Sound of Freedom 22:10

The Marvels 15:45 17:00 18:00 19:15

20:15 21:30 22:30

Trolls 3: Todos juntos 15:55 18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

18:00

CINESA GARBERA LUXE.

Alimañas 15:45

El exorcista: Creyente 22:50

El favor 12:05 16:05 18:30 21:00

Five Nights At Freddy's 12:15 16:20

18:00 19:00 20:45 21:45

Hypnotic 12:15 15:40 21:20

La patrulla canina 12:20 16:30

Los asesinos de la luna 20:35

The Marvels 12:30 16:50 17:50 18:45

19:25 20:25 22:00

The Marvels (JBA) 12:00

Trolls 3: Todos juntos 12:10 15:55

18:15

PRINCIPE, ikuslearen eguna: asteazkena.

Bidasoa 2018-2023 (JBA) **22:15**

Boo Kwal eta museoaren lapurretak

16:45

Campeonex 17:15

El favor 17:30 19:45 21:45

Five Nights At Freddy's 16:45 19:15

21:45

Golpe de suerte 20:30 22:30

La contadora de películas 19:45

La patrulla canina 16:30

La Singla 18:30

Los asesinos de la luna 16:30 19:00

Saben aquell 19:30 22:00

Semilla del son 20:30

The Marvels 16:30 19:15 22:00

Trolls 3: Todos juntos 17:30

Un amor 16:45 19:30 22:15

Vidas pasadas 17:15 19:30 21:45

TRUBEA, ikuslearen eguna: asteazkena.

El chico y la garza 16:45

El chico y la garza (JBA) 19:15 21:45

O como (JBA) 17:00 19:30 21:45

Andoan. Bastero. **Boo Kwal eta museoa**ren lapurretak. **17:00**. O como (JBA): 19:30. 22:00.

Bessan. Usurbie. Trolls 3: Todos juntos. 16:45. Alimañas. 19:15. 22:15.

Eibar

KOLISEO, ikuslearen eguna: astelehena.

El maestro que prometió el mar 19:45

22:30

O como (JBA) 17:00

Trolls 3: Todos juntos 17:00

Un amor 19:45 22:30

Errenteria

NIESSEN ZINEMAK.

Doraemon: Nobitaren dinosauro...

19:00

El chico y la garza 19:15 21:45

Five Nights At Freddy's 15:55 18:10

20:25 22:40

La patrulla canina 16:05

Saben aquell 20:00 22:25

The Marvels 16:00 18:10 20:25

22:35

Trolls 3: Todos juntos 16:00 18:00

Un amor 17:00 19:35 22:10

Vidas pasadas 18:05 20:15 22:25

Hernani. Biteri aretoa. Tortugas Ninja.

Caos mutante. 16:30. Te estoy amando


locamente. 19:30. 22:00.

Elemental 15:50

Five Nights At Freddy's 16:10 17:10

18:30 19:30 21:50

Denbora pasak



Koadro honek 13 beltzune ditu

HITZ GURUTZATU ZURIAK

Ezker-eskuin. 1. Zurgintzan oso aintzat hartzen den zur mota. Zenbait gizataldetan gurtzen den landare, animalia edo bestelako izaki.. 2. Gizonezko baten senide emea. Orban txikia. 3. Urez estalitako hedadura, sarritan hondo lohitsu eta landare ugari izaten duena. ... izan, fidatu. 4. Bokala. Borrokarako oilarrak hazten diren oilategi. 5. Tulioaren ikur kimikoa. Gizon izena. 6. Zain, aiduru. Infanterian, graduak apalena duen militar, kaporal. Kilometro, labur adierazita. 7. Antzerki lan edo film batean, antzezle batek antzeztu duen zatia. ... egin, gelditu. Bokala biribila. 8. Pluralean, iparraldeko lurburua. 9. Austria eta Italia arteko eskualde historikoa. Mendebaldeko Saharako hiriburua. 10. Maisalekoak, zapladak. Itsasbaterreko hegazti palmipedo. 11. Pluralean, zuhaitz mota. Errepikatuz, barrea adierazteko onomatopeia.

Goitik behera. 1. Kazetariaren jardueraren edo lanbidea. 2. Jardun. Pluralean, ikusmenaren akatsa, begietatik urrun dagena lauso ikustea eragiten duena. 3. Bizkarrezurra osatzen duten hezurretako bakoitza. Arantzazuko auzoa. 4. Ikusmenaren bidez. Zurgin. 5. Trebeak, iaioak. Erabat bustirik. 6. Miatu, aztertu. Ez errepika, usain txarra du eta. 7. Tona, labur-labur. Dagokion izen sintagmaren eta beste zerbaitekin arteko adostasuna adierazteko erabiltzen den hitza. Potasioaren ikur kimikoa. 8. Ogi, hitz elkartetan. Erregeek eta erreginek erabiltzen dituzten eserlekuak. 9. Tropikoko urakan mota. Nasak, moilak. 10. Pluralean, moralaz aritzen den jakintza. Landare herrestaria, hosto handi eta lore horia, haziz beteriko fruitu biribilak eta oso handiak, hori-laranja kolorekoak, ematen dituenak. 11. Mao Zedongen doktrina marxista-leninista. Zer pertsona?

AURREKO ERANTZUNAK



6	3	4	5	9	7	1	8	2
1	2	7	6	4	8	5	9	3
5	8	9	1	3	2	7	6	4
9	4	1	8	2	5	6	3	7
2	6	5	4	7	3	9	1	8
3	7	8	9	1	6	2	4	5
7	9	3	2	8	1	4	5	6
4	5	2	3	6	9	8	7	1
8	1	6	7	5	4	3	2	9

3	4	2	7	8	5	1	6	9
7	6	8	2	1	9	4	5	3
1	9	5	3	4	6	8	2	7
2	3	9	1	7	8	6	4	5
5	7	1	9	6	4	2	3	8
6	8	4	5	2	3	9	7	1
9	2	7	6	3	1	5	8	4
8	5	3	4	9	2	7	1	6
4	1	6	8	5	7	3	9	2

GOITIBEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak. Letren posizioak ez du zertan beti berdina izan.

1	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[1] Aizkolarien lanabesak.
2	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[2] Ekialdeko Europako estatua.
3	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[3] Bularra estaltzen duen babes arma.
4	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[4] Latz, lakar.
5	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[5] Zaude.
6	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[6] Barazki hostotsua.
7	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[7] Gona, kota.
8	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[8] Mairidrea, mihisea.
9	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[9] Astroa, argizagia.
10	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[10] Balio handiko metala.
11	□ □ □ □ □ □ □ □ □ □	[11] Pluralean, zuhaitz mota.

SUDOKU ERRAZA

		2	6		9	1		8
							4	
9			5	1	4	2		6
				8	3			
3								4
			7	2				
8		9	1	6	2			7
	4							
1		6	8		5	9		

SUDOKU EZHORREN ERRAZA

5					6			
6	8		9		1		5	
9		1	5	3				6
	4			9				
3								2
				6			4	
8				2	5	1		4
	6		8		4		3	5
			6					8

Bizigiro



Lurrama. Emazte laborarien eguneroko lana, lehen lerrora

Atzo hasi eta bihar arte, XVII. aldikoz martxan da laborantza herrikoi eta iraunkorraren saloia, Miarritzeko Irati aretoan • 38

32 Etnografia Donostian, 60ko hamarkadako etxe baterako bidaia

34 Zinema 'The Old Oak': komunitateen arteko talka

35 Telesailak 'Nolly' telesail laburra, 1960ra bidaia bat



Liburuko katalogoan dauden objektu batzuk: jogurta egiteko makina (Magefesa), irrati transistorea (Philips), eguzki berogailua (Calor), hiru anoako zakote ontzia eta komuneko papera (Elefante), ARANZADI

Aranzadi elkartearen etnografia jardunaldien barruan, 'Ganbara Bilduma: Altzako etxe batera bidaia 60ko hamarkadan' liburuak aurkeztu dute: atzera begirako berezi bat.

Nostalgiaaren etxebizitza

Enekoitz Telleria Sarriegi

Etxe jakin bati egiten dio erreferentzia, baina izan zitekeen garai bereko Euskal Herriko beste edozein etxe ere. Berdinak direlako objektuak, eta berdina askoren memoriak atzeraka egindako bidaia. Nostalgia bada ariketa, eta bada ohartzea: etnografia bilketa lana dela, eta orain biltzen direnak 60ko hamarkadan puntakoa ziren objektu horiek direla.

Ganbara Bilduma: Altzako etxe batera bidaia 60ko hamarkadan jarri diote liburuari izena, eta atzo iluntzean aurkeztu zuten, Aranzadi zientzia elkarteak antolatutako jardunaldi etnografikoaren barruan. Altzako (Donostia) Historia Mintegiak eta Aranzadiko Etnografia Saileko kideek elkarlanean ondutako liburuak eta katalogoa da, eta Ganbara Bilduma dago proiektuaren jatorrian.

«Altzako Historia Mintegia Altxa herri izan zen garaiko ikerketak bultzatzen dituen elkarte bat da. Ikerketaz gain, 1997an erabaki zuten material fisikoa jasotzen hasia, Altxa zer izan zen irudikatze», azaldu du Aranzadiko historiagile Maite Errartek. Objektu industrialak hasi ziren biltzen, eta Ganbara Bilduma eman zioten izena. «Altxa badelako nolabait alde industrial duen orain auzo lehen herria: fabrikak, imigrazioa... Bilduma osatuz joan ziren, eta bostehun pieza inguru bildu zituzten», esan du Errartek, liburuaren editorea ere badenak.

Eta erakusketak antolatu zituzten, eta bilduma mugitu zuten. Baina sustatzaila nagusiak adinean sartu eta desagertuz joan ahala, ahanzturan gelditzen hasiz, eta erabaki zuten material hura guztia Aranzadiri ematea dohaintzan. «Zera esan genuen: 'Eta istorio hau borobiltzeko, zergatik ez liburu bat argitaratu?'. Eta hori da liburuak: istorioa borobiltzea».

Borobildu dute testuinguru horren guztiaren berri emanda, eta 60ko hamarkadako etxe batek zuten objektuen katalogoa gaika jasota: sukaldia, elikadura, etxe-ko garbiketa, konforta, higieena

eta osasuna, ikus-entzunezko gailuak, etxe-ko instalazioak, jostailuak eta jolasak, ikasmateriala, erlijioa eta sinesmenak, apaingarriak... «Objektuak emozioen eramaileak dira, eta norberaren bizipenekin lotzen dira, baita esanahien eramaile ere. Objektuek hitz egiten dute», azaldu du Jon Serranok, Altxako Historia Mintegiko presidentea, liburuaren aurkezpenean.

Izan ere, Altxako etxe bati buruzkoa da liburuak eta katalogoa, baina balioa bestelakoa da. Hori dio Suberri Mate-lok, Aranzadiko historiagile eta liburuaren beste editoreak: «Altxakoa, nolabait, erreferentzia edo aitzakia bat da, Ganbara Bilduma hori han sortu zela-

ko. Baina 60ko hamarkadako etxe batean aurki dezakegun gu-re aitona-amona gehien pisu batean aurki dezakegun material berbera da: Duralux plater eta edalontzi marroi horiek, Moulinex zahar eta horitu horiek... 60ko hamarkadan horiek zeuden indarrean. Horiek ziren garaiko materialak. Guk ez ditugu ezagutu baserrietako laiak, ez ditugu ezagutu baserrietako gurdiak... Guretzako material etnografiko-

ak beste horiek dira, guretzako zaharrak beste horiek dira».

Eta badago ahalegin bat objektu horiei merezi duen balioa emateko ere: «Bilduma egin zutenak jende gaztea ziren objektu horiek erosi zituztenean eta erabiltzen zituztenean. Guk batzuk erabiltzen ikusi ditugu, beste batzuk biltegietan sartuta... Trantsizio horretan gelditu diren pieza batzuk dira, baserri munduaren eta mundu modernoago horren tartean gelditu diren objektuak dira, eta horregatik da polita entitatea ematea».

FITXA



Izenburua: Ganbara Bilduma: Altxako etxe batera bidaia 60ko hamarkadan. **Editoreak:** Maite Errarte eta Suberri Mate-lok. **Bilduma:** Aranzadiren etnografia bilduma (4). **Zuzendaria:** Fermin Leizaola. **Koordinatzailea:** Juan-txo Agirre-Mauleon.



Beira marroizko plater sakona (Duralux), ARANZADI



Aitzina Folk jaialdiko kalejira, artxiboko irudi batean. BERRIA

Folka eta elkartasuna

Herri kalejira batekin hasiko dute gaur XI. Aitzina Folk jaialdia, Gasteizen
• Denetariko kontzertuak eta tailerrak antolatu dituzte

Mikel Elkoroberezibar Beloki

1 Gaur hasiko da XI. Aitzina Folk jaialdia, Gasteizen. 2013an sortu zutenetik, jaialdiak bi helburu ditu: batetik, folk musika zabaltzea; horregatik, denetariko kontzertuak eta tailerrak eskainiko dituzte gaurtik urtea bukatu bitarte. Bestetik, musika jaialdi bat ez ezik, elkartasun jaialdi bat ere bada: ataxia telangiektasia izeneko gaixotasun arraroa ikertzeko lana babes-ten du jaialdiak.

Gasteizko Alde Zaharrean eta zabalgunean herri kalejira bat egingo dute gaur, 11:00etan, jaialdiari hasiera emateko. Denetari-ko taldeek hartuko dute parte: Mendialdeko Gaiteroak, Eguzki Fole eta Amiestu Sones taldeek, Indarra kultur elkarteak, Arai kompartsak, Gasteizko Udal Folklore Akademia eta Oiartzungo (Gipuzkoa) Xirolarria eskolak, besteak beste.

Azaroaren 24an egingo dute hurrengo musika ikuskizuna, Irlandako Fullset taldearen esku-
tik. Vital Fundazioa kulturunean

egingo dute kontzertua, 19:00etan. Fullset taldeak Irlandako folk musikaren erroak dauzka, eta doinu berritzaileekin uztartzen ditu.

Lehen tailerrak, 25ean

Lehen tailerrak hilaren 25ean egingo dituzte, Gasteizko Zuberroa plazan. *Uilleann pipe* (Irlandako gaita) jotzen irakatsiko du Martino Vacca musikari italiarra, 10:30etik 12:30era. Asturiasko (Espainia) herri dantzak ikasteko aukera ere izango da, ordu eta leku berean. Egun horretan, kontzertu bat emango dute Barry Kerr, Laura Kerr eta Donogh Hennessy artista irlandarrek. Nazioartean ospetsuak dira: New Yorkeko (AEB Ameriketako Estatu Batuak) Radio City Music Hall antzokian eta Los Angelesko (AEB) Greek Theatre'n jo izan dute, besteak beste.

Karlos Subijana musikari arabarrak ere kontzertu bat emango du abenduaren 1ean, Urkabustaizko kultur etxean. Gasteizko auzo horretako musika eskolako alboka, txirula eta txalaparta ira-

kaslea izan da azken 30 urteetan, baita Folklore Akademiakoa ere. Urtea bukatu bitartean, beste hamar kontzertuk osatuko dute jaialdia. Nabarmentzekoa da abenduaren 27an Mikel Urdangarinek, Kirmen Uribek, Rafa Rue-
dak eta Jon Cañaverasek egingo duten ikuskizuna. Gainera, tailer gehiago ere egingo dituzte.

Ataxia telangiektasia izeneko gaixotasun arraroaren ikerketa bultzatzeko helburua du jaialdiak, eta ez kasualitatez. Gaixotasun arraro hori du Jon Villen gasteiztarak, eta haren aitak, Patxi Villenek, jaialdia sortzea erabaki zuen 2013an. gaixotasuna ikusarazteko helburuarekin. Patxi Villen musikaria da, eta folk musikaren zale amorratua; hasieratik da antolatzaile nagusia. Araban gutxienez hiru lagunek dute gaixotasun arraro hori, eta horregatik da jaialdiaren izena *Aitzina*: haiei aurrera egiten laguntzeko asmoarekin antolatzen dutelako.

Aitzina Folk jaialdia

Gaurtik abenduaren 30era bitarte, Gasteizen.



Antzerkia Azpeitia Troia bihurtuko dute

2 Euskal Antzerki Topaketak egiten ari dira Azpeitian (Gipuzkoa), azaroaren 2tik. Hilaren 23ra arte denetariko antzezlana egingo dituzte Soreasu antzokian, Dinamo sormen gunean eta kalean. Gaur, *Troia* antzezlana eskainiko dute, 12:30ean, Soreasuko plazan. Erika Olaizola, Amancay Larrañaga eta Iraia Elias aktoreak izango dira oholtzan, eta hiru superheroiaren rola izango dute antzezlanean. Bihar, *Lagun beltz* asko antzezlana ikusteko aukera izango da Soreasu antzokian, 19:00etan. Ramon Ibarra, Asier Hormaza eta Asier Sota izango dira antzezlana aktore nagusiak.

Euskal Antzerki Topaketa

Gaur, 12:30ean, Azpeitiko Soreasuko plazan (Gipuzkoa).

Musika Bestak segituko du Arrosako trinketean

3 San Martin arrabesta osatuko dute gaur Arrosan (Nafarroa Beherea), eta musika izango da ospakizunen ardatza. 20:00etan hasita, kontzertuak egingo dituzte herriko trinketean, 20:00etatik aurrera. Oholtzara igotzen lehena Buuzbiu taldea izango da. Euskal *mas-hup*-aren ordezkariatzat jotzen dute Donibane Garazi inguruan sortutako taldea. Gero, Basapiztiak taldeak euskarazko abestiak joko ditu, eta, amaitzeko, Kontrabandak alaituko du Arrosako giroa.

San Martin arrabesta


Gaur, 20:00etan, Arrosako trinketean (Nafarroa Beherea).

Azoka Liburuen bidez, laguntza Burundira

4 Bigarren eskuko liburu azoka solidarioa egingo dute gaur eta bihar Getxoko (Bizkaia) Itzurbaltzeta auzoko kultur etxean. 17.000 liburu baino gehiago egongo dira salgai, eta guztiak dira herritarrek kultur etxeko liburutegiari dohaintzan emandakoak. 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da azoka irekita gaur, eta bihar, goizez baino ez. Salmenta prezioak «sinbolikoak» izango direla nabarmendu dute antolatzaileek. Gainera, bigarren eskuko liburuak saldu eta eskuratuko duten dirua EKI izeneko gobernu kanpoko erakundearentzat izango da, Burundiko ikastetxetan eko-prestatuntza proiektu bat gauzatzeko.

Bigarren eskuko liburu azoka

Gaur eta bihar, Getxoko Itzurbaltzeta kultur etxean (Bizkaia).



Dantza Uharteko basotik, dantzan itsasora

5 *Basotik itsasora 2.0* dantza emanaldi hibridoa egingo du gaur Dantzaz konpainiak, 19:00etan, Uharteko (Nafarroa) kultur etxean. Bi elementu bereizi eta osagarri izango ditu emanaldiak. Lehenik, Beñat Gerekek egindako *Basotik basora* dokumentalaren 30 minutuko zati bat proiektatuko dute, eta, ondoren, Josu Mujikaren *Basoa* lana antzeztuko dute. Dantza izango da bi elementuen oinarria *Basotik itsasora 2.0* emanaldian.

'Basotik itsasora' emanaldi

Gaur, 19:00etan, Uharteko kultur etxean (Nafarroa).



The Old Oak Ingalaterra iparraldeko pubaren kanpoaldea; hango jabea da TJ Ballantyne. THE OLD OAK

Komunitatearen indarra

Ken Loachen azken film luzeak, 'The Old Oak'-ek, bi komunitateren arteko talka erretratatzeko du: ekonomikoki arazoak dituzten Ingalaterrako biztanleena eta hara doazen Siriako errefuxiatuena

Uxue Arzelus Lasa

Ingalaterra iparraldekoa, 2016an. The Old Oak pubaren jabea da TJ Ballantyne. Dibortziatuta dago, eta semeak ez du harekin hitz egiten. Herritarrak biltzen diren lekua da puba; garai batean bertako meategiak ustiatzeaz bizi ziren herritarrak, eta egun amorruztan beteta elkartzen dira herriaren egoeraz kexatzera: ez dira errekupe-ratu haien ogibide ziren meategien itxieratik, etxebizitzaren espekulazioaren eraginak bizi di-

tuzte, eta herritar asko pobrezian bizi dira.

Autobus bat iritsiko da orduan herrira: bertan Siriako errefuxiatuak daude, gobernua herrian ostatu eman die eta. Bizilagunen harrera bortitza izango da: mehatxu bezala ikusiko dituzte, eta konfiantzarik ezarekin eta biolentziaz hartuko dituzte. TJ Ballantynen ordea, haren tabernako atzealdeko gela irekiko du komunitatearentzat, bai siriarren-tzat, bai bertakoentzat, afariak eskaintzeko. Hala, Yararen adiskide

gingo da; Yara Siriako emakume gaztea da; anaiarekin eta amarekin iritsi da Erresuma Batura, eta aitaren berri zain dago, preso baitago haren jaioterrian.

Badira hamar urte Ken Loach buruzko zurrumurru bat zabaldu zela: erretiratzeko prestatzen ari zen. Erresuma Batuko politikaren egoerak, berriz, filmak egiten jarraitzea bultzatu zuen: bazuen zer kontatu, zer salatu. Horrela, trilogiatzat hartu duen filmak aurkeztzen hasi zen; berrietan azaltzen ez ziren gatazka eta istorioak

azaleratzeko asmoz. *I, Daniel Blake* filmak bihotzeko arazoak dituen gizon baten gatazkak erretratatzeko: gobernuaren laguntzak jasotzen jarraitzeko lan egitera behartzen dutenean zentzurik ez duen burokrasia sare batean murgilduko dena. *Sorry we missed you* 2008ko krisi ekonomikoaren zorretan itota bizi den familiaren istorioa da, furgoneta bat lortu ondoren etxerako banaketa enpresa bat sortuko duena. Trilogia ixten duen filma dirudiena da *The Old Oak*.

Paul Laverty gidoilariarekin berriro ere taldea osatuz, Loachek gobernu britainiarraren immigrazio politika xenofoboetaz eman nahi izan die bere azken filmean. Hala, komunitatean jartzeko du begirada, eta langile klasearen solidaritatearen esperantza. Erdigunean protagonista bat duen arren, TJ Ballantyne, film koral gisa eraiki du *The Old Oak*, eta, bi komunitate ezberdinen arteko topaketa erakustez gain, kontraesan eta fiabarduraz beteriko ahots indibidualen erretratu eskaintzen du. *Errua* herriko langileengan jarri ordez, enpatiaz tratatzen ditu haiek, eta, Siriako errefuxiatuak bezala, merkatuak eta interes politikoei agintzen duten errealtate baten biktima direla ondorioztatzen du.

Loachen filmekin gertatu ohi den bezala, ordea, kritika bananduta dago. Batzuentzat, sentimentalismoaren esplotazioa josten du, eta gehiegizko azalpen eta deskribapen didaktikoz beteta, inozentzia izatera iristen da. Besteentzat, zinemagileak publikoarekin eta haren emozio eta enpatiarekin konektatzea lortzen du, eta egun beharrezkoa den esperantzari aukera bat ematen dio.



'THE OLD OAK'

Zuzendaria: Ken Loach.
Gidoilariak: Paul Laverty.
Aktoreak: Debbie Honeywood, Andy Dawson eta Trevor Fox.
Argazkia: Robbie Ryan.
Generoa: drama.
Urtea: 2023.
Iraupena: 110 min.
Herrialdea: Erresuma Batua.
Estreinaldia: azaroaren 17an estreinatuko dute Hegoaldean.

'La imatge permanent'

Zuzendaria: Laura Ferres. **Gidoilariak:** Laura Ferres, Carlos Vermut eta Ulises Porra. **Aktoreak:** Maria Luengo, Rosario Ortega eta Saraïda Llamas. **Generoa:** drama. **Urtea:** 2023. **Iraupena:** 94 min. **Herrialdea:** Katalunia.

Espainia hegoaldeko herri batean, Antonia, ama nerabe bat, gau erdian desagertu egingo da. 50 urteren ondoren, eta kilometro asko iparraldera, Carmenek, casting zuzendari batek, hiriz aldatu ondoren bere oroitzapenak kontatzen dituzten pertsonak aurkitu beharko ditu. Bere bilaketan Carmenek Antonia ezagutuko du, haren bakardadea inbaditzen duen emakume oldarkorra. Nork esan zuen denborak zauri guztiak sendatzen dituela?



Filmeo emakume protagonistetako batzuk. LA IMATGE PERMANENT

'El sueño de la sultana'

Zuzendaria: Isabel Herguera. **Gidoilariak:** Isabel Herguera eta Gianmarco Serra. **Liburua:** Begum Rokeya. **Aktoreak:** Animazioa. **Musika:** Moushumi Bhowmick eta Tajdar Junaid. **Generoa:** drama. **Urtea:** 2023. **Iraupena:** 86 min. **Herrialdea:** Euskal Herria.

1 nes 30 urteko animazio zuzendari espainiarra da, eta Ahmedabad dago bere maitale indiararekin duen harremana amaitzeko. Kasualitatez, liburu denda batean sartuko da, eta emakumeek gobernatutako irudimenezko herrialde bat kontatzen duen eleberri bat aurkituko du. Istoriarekin eta egilearen jarrera urratzailearekin liluratuta, Inesek film bat egitea erabakiko du.

'Contigo, contigo y sin mí'

Zuzendaria: Amaya Villar Navascues. **Gidoilariak:** Amaya Villar Navascues. **Aktoreak:** Dokumentala. **Urtea:** 2023. **Iraupena:** 86 min. **Herrialdea:** Espainia.

A mayak bere bizitza markatu zuten lau maitasun harremanak ditu filmatuta. Azken hogei urteetan egindako ibilbidea da: 18 urterekin maitemindu zenetik, 38 urte bete arte. Ama izateko nahiaren harira, ikusentzunezko gutun bat idazten die etorkizuneko seme-alabei. Horrela, maitasunaren faseak, urrutiko harremanen erronka, eta illusioen eta frustrazioen edo erruaren arteko talkaren moduko gaiak lantzen dituen bidaian murgilduko da.

'The Killing Kind'

Sortzailea: Zara Hayes eta Jonathan Stewart. **Aktoreak:** Emma Appleton, Colin Morgan, Elliot Barnes-Worrell, Nicholas Rowe, Kerr Logan. **Herrialdea:** Erresuma Batua. **Urtea:** 2023. **Non ikusi:** AXN, OCS. **Atal bakoitzaren iraupena:** 45 minutu. **Generoa:** thriller.

Herriko jatetxe bateko jabea den emakume batek negozioa utzi eta detektibe agentzia bat jarriko du martxan, aspaldi jaso zuen polizia entrenamendua berreskuratuta. Ikertu beharreko lehen auzia oso gertukoa suertatuko zaio; izan ere, lagun baten gorpua topatzean abiatuko da. Telebista norvegiarrean bidea urratu duen sortzaileak Erresuma Batuan egin-dako lehen ekoizpena da.

'The Buccaneers'

Sortzaileak: Katherine Jakeways. **Aktoreak:** Kristine Froseth, Alisha Boe, Josie Totah, Aubri Ibrag eta Christina Hendricks. **Herrialdea:** AEBak. **Urtea:** 2023. **Non ikusi:** Apple TV Plus. **Atal bakoitzaren iraupena:** 45 minutu. **Generoa:** erromantzea eta drama.

Fikziozko Pulitzer saria irabazi zuen lehen emakumea izan zen Edith Wharton nobelagile estatubatuarra eta haren amaitu gabeko *The Buccaneers* eleberria egokitu dute zortzi ataleko telesail formatura. Istorioko protagonistak 1870eko Londresera bidaiatzen duen emakume estatubatuarra dira. Tradizioa ulertzeko bi modu kontrajarriren eta haien tal-karen inguruko kontakizuna da.



The Buccaneers kultuko nobela, telesail bihurtuta. APPLE TV PLUS

'Wreck'

Sortzailea: Ryan J. Brown. **Aktoreak:** Oscar Kennedy, Ali Hardiman, Alice Nokes, Harriet Webb eta Donald Sage Mackay. **Herrialdea:** Erresuma Batua. **Urtea:** 2022. **Non ikusi:** Dark. **Atal bakoitzaren iraupena:** 45 minutu. **Generoa:** komedia eta izua.

Itsas giroko *slasher*-ak kultuko beldur klasikoa uztartzen du, komedia beltza eta kultura garaikidearekin. *Sacramentum* izeneko gurutzaontziko bidaiariak festa egarri-zauden gazteak dira. Haietako bat bere arreberen suizidioa argitu nahian igoko da ontzira, eta bertan itzalean jarduten duen erakunde baten joko makabroak ezagutuko ditu. Mehatxu nagusia ahate itxurako psikopata bat da.

Izarraren azken argi printzak

Helena Bonham Carterrek 1960an Erresuma Batuko telebistan egundoko arrakasta izan zuen Noel Gordonen rola jokatu du 'Nolly' telesail laburrean



Mikel Yarza Artola

Noele Gordon *Nolly* izeneko 8 urteko neskatu bat izan zen koloretako telebistan sekula agertu zen lehen emakumea. Hiru hamarkadageroago, helduaroan, Nolly aktore eta antzezle ospetsu bilakatu zen *Crossroads* telenobelan. Haren arrakasta sekulakoa izan zen, 1960ko hamarkadako Erresuma Batuko izar nagusietako bat bilakatzeraino.

Astean bost aldiz, milioika britainiar telebistaren aurrean elkartzen ziren saioaren izen bereko moteleko bi ahizpen lehiak, negozioak eta langileen gorabeherak ikusteko. Atalak zuzenean filmatzen zituzten, eta gidoiak unean bertan egokitzen, errepikapenatarako ia aukerarik gabe. Nolly erabateko erregina zen egu-

neroko jardun horretan, hama-zazpi urte eta zazpiehun atalen ostean, kaleratu zuten arte.

Berrogei urte geroago, Russell T. Daviesek hiru ataleko fikziozko telesail labur bat osatu du Noele Gordonen arrakasta eta gainbehera modu intimoan esploratuz. Davies sortzaile eza-guna da nazioartean, *Queer as Folk* eta *Doctor Who* klasiko garaikideen gidaritzan egindako lanagatik, eta azken urteetako *Years and Years* eta *It's a Sin* telesail laudatuengatik. Oraingo honetan ere ez du hutsik egin, eta istorio biografiko gozo bezain gogoetatsu bat osatu du.

Protagonistak horrenbesteko pisua duen kasuetan, izar nagusiak distira berezia egin behar du telesailaren argia itzali ez dadin, eta Helena Bonham Carterrek

foku guztiak bereganatu ditu. Erregina indartsu baten tankeran aritu du Nollyren rolean, errealtatean pertsonaia publiko gisa eskuratu zuen boterea besarkatu nahian. Emakume hauskor eta zalantza modura ere ageri da, lana eta iparra galtzen dituen unean.

Begien aurrean duguna garai bateko fikzio arrakastatsu baten fikziozko egokitzapen bat da; alegia, istorio berberaren aldaera berri bat, eta Daviesek hori oso kon-tuan izan du alor formalean. *Nolly* telesailak *Crossroads* telenobelaren pasarte ezagunenak zehaztasun osoz birsortu ditu, baina ez da horretara mugatu. Kameraren atzean, filmaketa se-teko mugetatik kanpo gertatu ze-nari ere erreparatu dio.

Noele Gordon izarraren kalera-

tzea da hiru atalen ardatz tematiko nagusia, eta sortzaileek azpi-marra berezia egin dute garai hartako matxismoan. Nolly gizonen menderaturiko mundu bateko jostailu baten pareko irudikatu du Daviesek, telenobelaren arrakasta eta etorkizuna kudeatu zu-ten ekoizleen jokamoldearen bik-tima gisa.

Egungo gazte britainiar askok ez dute jakingo Noele Gordon nor izan zen, are gutxiago Erresuma Batutik kanpo. Ordu hartako *soap opera* estiloko kontakizun gehientsuenetan, gainera, gizo-nezkoak izan ohi ziren ardatz, eta kontrako kasuetan ere inor gutxi eskuratu zuen Nollyren ta-mainako sona.

Nolly telesail laburrak balio du oroimen ariketa bat egiteko, due-la mende erdi bere garaia aurrea

hartu zion figura femenino seinalatu bat berreskuratzeke. Baina, batez ere balio du, behinola *Crossroads* ikusten zuten milioika zaleen tankeran, telebistaren aurrean eseri eta pare bat orduz entretentitzeko. Londresko kar-toizko estudioen eta Veneziako kanalaren artean, abentura zirraragarri bat dagoelako.



'NOLLY'

Sortzailea: Russell T. Davies. **Aktoreak:** Helena Bonham Carter, Augustus Prew, Con O'Neill, Antonia Bernath eta Mark Gatiss. **Herrialdea:** Erresuma Batua. **Urtea:** 2023. **Non ikusi:** FilmIn. **Atal bakoitzaren iraupena:** 45 minutu. **Generoa:** drama.



IKER MARKINEZ



ERREZETA Iker Markinez

Sukaldaria

Tuterako orburuak, urdaiazpiko eta kinoarekin

OSAGIAK

4 LAGUNENTZAT

Hamabi orburu.

100 gramo urdaiazpiko.

50 gramo kinoa.

Oliba olio.

Gatza.

Baratzuria.

Irina.

BERRIA
Larunbata, 2023ko azaroaren 11

1 Lehenik eta behin, orburu freskoak prestatuko ditugu, oraintxe hasi baita orburuen sasoia. Lapiko handi batean, ura erdiraino bete, bi koilarakada irin gehitu, eta ondo nahastu dena. Gatz pitin bat bota, eta sutan jarri lapikoa, irakin arte. Bitartean, orburuak zuritu; txortena moztu gabe zuritu denak. Orburuaren punta moztu, pare bat zentimetro zabal, gutxi gorabehera. Ondoren, ur irakinetan sartu eta bertan irakin, hogeitatu minutuz. Dena gorde, lapikoa bertan.

2 Kinoa egosteko, lapiko txiki batean kinoa jarri, oliba-olio txorrotada txiki batekin, eta pare bat minutuz erregosi. Ondoren, ura gehitu lapikora —kinoa kantitatea halako bi—, gatz pitin bat bota, eta su oso bizian egosi hamabost minutuz. Azkenik, tapa bat jarri lapikoa-ri, eta sua itzali.

3 Zartagin zabal bat hartu, eta baratzuri aleak puska txikietan jarri. Urdaiazpikoa ere puska txikietan gehitu. Oliba txorrotada bat bota, eta sutan jarri, baratzuria eta urdaiazpikoa dantzan hasi arte. Ondoren, aurrez egositako orburuak botako ditugu bertara, erditik moztuta. Orburuak egosteko erabilitako salda buruntzali bat gehitu, eta hiruzpalau minutuz egosi.

4 Platereratzeko garaia, azkenik. Orburuak txukun-txukun jarri plateretan, zartagineko saltsarekin gainetik busti, eta, azkenik, kinoa malutak zabaldu.



ARDOXKA Roberto Sarriugarte



Mahasti menditarrak

Salamancan (Espainia) dago Sierra de Francia, Extremaduraren iparraldean, Bejar eta Gata mendizerraren artean. Nahiko toki ezezaguna eta misteriozua dela ere esango nuke. Askok eta askok uste dute Frantziaren dagoela, baina, ez, Salamancan dago, Espainian.

Beste hainbat tokitan gertatu zen antzera, Sierra de Francian ere mahastiak oso kaltetuta eta kopurua oso murriztuta geratu ziren XX. mende hasieran,

filoxera tarteko, besteak beste. Hala ere, gaur egungo mahastietan badaude XX. mende hasierako mahasti zaharrez osatutako irla txikiak ere.

Viñas Serranas upategian, ondorengoak daude proiektuaren atzean: Cesar Ruiz (Alma Vinos Unicos...), Miquel Udina —Sierra de Salamanca jatorri izeneko zuzendari tekniko moduan egindako lanari esker mahastia oso ondo ezagutzen duena—, Bosi Jimenez nekazaritza ekologikoan

eskarmentu handikoa —hamabi hektarea lantzen ditu modu horretan— eta Alberto Martin esperientzia handiko enolgoa.

Batuecas parke naturalean kokatuta dago proiektua, Sierra de Francia mendizerran, hain zuzen ere. Parke hori Biosferaren Erreserba izendatu zuten 2006an eta altuera desberdinetan eta orientazio desberdinekin kokatuta dauden herri txiki polit ugari osatua dago. Lurren osiera ere askotarikoa da: hondarra, arbela, granittoa...

Rufete mahatsa da nagusi paraje horietan. Ardo arinak, zapoetsuak, aromatikoak eta bertikalak egitea zen haien helburua.

Linares de Riofron dago upategia. Upategi txikia da eta modu apalean egiten dute lan Sierra de Franciako klima, lurzoru eta mahats mota desberdinak erakutsiko dituzten ardoak egiteko.

Lurrak pobreak dira eta oso tarte txikian desberdintasun ugari erakusten dituzte.

**Ardorik berezienak
depositu txiki
irekietan hartzitzen
dituzte,
eta erabilitako
300 litroko upeletan
ontzen dituzte
hamar bat hilabetez.
Egia esan, hain leku
txikiko ardoak
izanik, Sierra de
Franciako
aniztasuna modu
bikainean erakusten
dute Viñas
Serranaseko ardoek**

Ardorik berezienak depositu txiki irekietan hartzitzen dituzte, eta erabilitako 300 litroko upeletan ontzen dituzte hamar bat hilabetez. Egia esan, hain leku txikiko ardoak izanik, Sierra de Franciako aniztasuna modu bikainean erakusten dute Viñas Serranaseko ardoek.

Sei ardo desberdin egiten dituzte. Bost partzelarioak direla esan daiteke; hau da, partzela bakarreko mahatzetz eginak. Seigarrena, *Ciclón* izeneko, inguruko sei herrixko desberdinetako mahastietatik jasotako ardo, ardo beltza, rufetea, *calabrés*-a (garnatzaren bertoko klon bat) eta rufete zuria mahatsak erabilia egindakoa.

Beste bost ardoetatik lau beltzak dira: Renvivas, La Pivonera, Canchorrall eta Los Rodales, eta bat, zuria: El Helechal, rufete zuriz egina.

Sei ardoak, beltzak zein zuria, hamar hilabetez ontzen dituzte erabilitako 300 zein 500 litroko upeletan. Ardo bitxiak dira guztiak ere.

Eroskiren ekoizleak

«Datozen urteetan ardoak maila gorenean jarri nahi ditugu»

IÑIGO RUBIO GARAY • Labastida upategiko zuzendaria

Labastida upategiak Solaguen eta Manuel Quintano gametako ardo bikainak ekoizten ditu.

Labastida upategia Bastidan (Araba) dago. Haren inguruan 290 hektarea mahasti daude, eta bost kilometro baino gehiago ez daude upategitik urrunen dagoen lursailera. Errioxako ipar-mendebaldean dago, Arabako Errioxan.

Mahastiak eskualdeko gunerik altuenean daude. Ondorioz, ekoizten dituzuen ardoak ezagutzea bereziak dituzte?

Zenbait mahasti itsas mailatik 670-680 metrora daude, eta eskualdeko eragin atlantiko handiena dute klima mailan. Horrek esan nahi du ardo freskoak, aromatikoak eta zaintzeko ahalmen handikoak direla, azidotatunari esker. Mahatsak kotizazio gorenera iristen diren Errioxako zonan gaude.

Asmo handiko proiektu batean murgilduta zaudete duela urte gutxi batzuetatik hona.

Beste upategi eta sektore batzuetatik etorritako hainbat pertsona elkarlanean ari gara, datozen urteetan proiektuko ardoak maila gorenean jartzen saiatzeko. Duen potentzialagatik, gure upategiaren mahastiak proiektu horretan egotea merezi du.

Gure ekoizpenaren %10 baino pixka bat gutxiago ardo zuriak dira, viura edo makabeoa mahats motak oinarri hartuta, eta tempranillo zuria %20 ingururekin eta garnatxa zuria edo malvasia bezalako beste barietateren baten portzentaje txikiekin osatuta. Gainerakoak ardo beltzak dira, tempranilloarekin batez ere eta garnatxa apur batekin egiten ditugunak.

Azken aldian, hainbat aurrerapauso egin dituzue upategian.

Asko dira zuzendaritza berria iritsi zenetik inplementatzen ari garen aldaketak. Gure elaborazioak artisau bihurtu ditugu erabat, hitza erabiltzea zilegi bada, eta protagonismo handia eman diegu mahastiari eta lurzoruari. Ahal dugun guztia egiten dugu deposi-



LABASTIDA UPATEGIA

tu txikietan, lurzati bakoitzean eskuz igota eta zapalduta. Hartzidurak espontaneoak dira, mahasti bakoitzak landatzen den lurra- ren izaera adieraz dezan. Elaborazioaren ondoren, lursail bakoitzeko ardoak berezita zahartzen da, barrikan, eta, beraz, bisita bat eginez gero hainbat ardo dasta daitetzke, lursail desberdinetako dozenaka ardo, profil desberdinekin, jakina.

Elaborazioak pertsonalizatuak dira, eta uztia jaso aurretik egiten dugun mahats dastatzean oinarritzen dira. Ez daude bi elaborazio berdin. Era berean, dastatzea da upategian urte osoan erabakiak hartzeko eragile nagusia. Ez dago errezetarik, etengabe dastatzen da, eta organoleptikoki ikusten denaren arabera hartzen dira erabakiak.

Upeletan zein zur mota erabiltzen duzue?

Haritz amerikarrarekin eta frantsesarekin lan egiten dugu, nahiz eta azken urteotan erabiltzen ari garena munduko upelategi onenetako haritz frantsesa izan.

Upategiko ardo gama tradizionala da Solaguen.

Aldaketa dezenteez ardoak ditugu ardo guztietan, eta merkatuak ho-

«Elaborazioak artisau bihurtu ditugu erabat, eta protagonismo handia eman diegu mahastiari eta lurzoruari»

«Eroskirekin lanean, aitzindariak izan gara Arabako Errioxako DNA duen ardo bat merkaturatzen»

bekuntza eta estilo aldaketa nabaria aitortzen digu. Ardo gazteak, zuri erdigozo bat, eta haritz frantses eta amerikarrezko upeletan ontze mota eta denbora desberdinak dituzten ardoak dira Solaguen gamakoak.

Manuel Quintano gama zuen ardo gama altua da.

Bordelera (Frantzia) egin zuen bidaiari esker, 1786. urtean enologia modernoan Errioxan lantzen hasi zenari omenaldia egiten dio. Manuel Quintano, gainera, Bastidakoa zen. Sei ardoko sorta berri bat da, gure 50 hektarea onenekin egiten duguna. Mahasti zaharrek protagonismo handia dute gama honetako ardoak ekoizteko garaian, baita ardoak hormigoian (ardotako bat) eta haritz frantsean (gainerakoak) zahartzeak ere. Ardo guztiak depositu txikie-

tan egiten dira, bai elaborazioan, bai zahartzean, lursailen arteko gehiengoko tartearekin.

Labastida upategia kooperatiba bat da. Lan egiteko moduari buruz zerbait nabarmendu nahi duzu?

Errioxan eta Arabako Errioxan duela urte batzuetatik lurreratu diren enpresa talde handien mehatxupean, euskal kooperatibak gure barne funtzionamendua baldintzatu duten hainbat faktoreen eraginpean egon gara, eta faktore horiek antolaketa eta kudeaketa modu gero eta konplexuagoak hartzea eraman gaituzte, eta, azken batean, gaur egun nire ustez balio handikoak diren printzipio kooperatiboetatik pixka bat aldentzera. Kooperatibagisa, gure DNAn balio batzuk daramatzagu, beti egon diren bezala, guk geuk beren neurrian baloratu ez ditugunak, baina elkartasuna, interes komuna interes pertsonalaren aurrean, berdintasuna, gardentasuna, erabaki demokratikoak, ahalegin partekatua eta erantzukizun soziala, kooperatibismoari lotutako balioetako batzuk baino ez dira.

Kooperatiba batek bere bazkideen bizi kalitatea hobetzeko lan egin behar du, eta bazkide horiek bere kooperatibaren helburu, estrategia eta jarduerekin parte hartu eta konprometitu behar dute. Gure kudeaketa ereduak eduki sozial handia izan behar du, baina, aldi berean, bateragarria izan behar du kudeaketa eraginkor, garden eta profesionalarekin.

Ardoak Euskal Herrian eta Euskal Herrikan ere banatzen dituzue?

Bai. Gure merkatuak %50 nazionalak dira, eta %50 esportazioak.

Noiztik ari zarete Eroskirekin lan egiten? Gustura elkarlan horrekin?

Bai, oso gustura. Hamar urte baino gehiago daramatzagu Eroskirekin lanean. Esan genezake aitzindariak izan ginela Arabako Errioxako DNA zuen ardo bat merkaturatzen. Gaur egun, botiletan Errioxako eremu geografikoa adieraz dezakegu, baina Eroskirekin batera, duela hamar urte trazabilitate bikoitzeko produktu sorta bat egin genuen, Kontseilu Arautzaileari gure mahatsen euskal jatorria bermatzu, eta egitasmo horretako botiletan Arabako Errioxa adierazteko aukera izanirik.

@ Informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.bodegaslabastida.com

Giro «onez» zabaldu zituen ateak Miarritzeko Irati azokak atzo, Lurramaren hemezortzigarren edizioarentzat. Laborantza herrikoa eta iraunkorra sustatzeaz gain, aurten, emazte laborarien lanean jarri nahi izan dute arreta. Bihar amaituko dute aurtengo aldia, liburu aurkezpen batekin.

Emazte laborariak lehen lerrora

Julene Muruaga Hiriart Miarritze

Goiz euritsu batekin abiatu zen atzo Lurramaren 18. aldia, eta bihar arte iraunen du. Iaz, *Bizi den mendiaren alde* hartu zuen lelotzat Lurramaren antolatzaile EHLG Euskal Herriko Laborantza Ganberak. Aurtengoa, berriz, laborantza ari diren emazteak dira gertakariaren protagonistak.

Azokako atea zeharkatu eta segituan, *Emazte laborariak argitan* tematikan sartuak dira bisitariak, hainbat data afixatu baitituzte antolatzaileek, emazte laborarien buruzko eskubideen bilakaera aurkezteko: «1920: Emazteak sindikatuetakoa kide izan daitezke senarren baimenik gabe», edo «2008: Laborarien ama oporraldia beste langileena bezalakoa bilakatzen da». Pareko murrutan, Andere Nahia elkarte proiektu bat: Euskal Herriko hamar bat emazte laborariren potretak, azken horiek omentzeko.

Lehen estaian, laguntzaileak agerian dira, lepo inguruan jantziak dituzten zapi xuri eta urdinei esker. Talo gunean da Oihana –ez du abizenik erran nahi izan–, Baionakoa, ostatuan azken presakuntzak egiten. Bere lehen aldiko laguntzaile gisarentzat berantetsia da. «Giro onez hasi da aurtengo Lurrama, eta dena prest dugu asteburu on bat pasa dezagun!», poztu da.

Aurten, 22 eskola espero ziren haurren egunarentzat. Eguna hasteko, haurrek etxaldean lanei lotutako hainbat aktibitatean parte hartzeko parada izan dute; irria ahoan, ahuntzak deitzeko, kasurako. Ondotik, erlauntzaren funtzionamenduaren berri izan dute, eta Itsasutik (Lapurdi) etorritako artzain xakur bat ikusi.

Horren inguruan, ehunka haur liluratuak daude kabalak begiratzeko. Euskal Herriko hainbat lekutik etorritako abereak dira ikusgai: besteak beste, ardiak,



Emazte laborari bat, Lurramako bere postuan, bezero batekin. GUILLAUME FAUVEAU



Bernadette Oillarburu eta Mikele Berhokoirigoin laborariak. GUILLAUME FAUVEAU



Giro onez hasi da aurtengo Lurrama, eta dena prest utzi dugu asteburu ona pasa dezagun»

Oihana
Laguntzailea



Gaur egun, emazte laborari batek proiektu bat baldin badu, bere baitatik egin dezake. Nire garaian ez zen hala»

Bernadette Oillarburu
Laboraria



Zenbait haur tailer batean parte hartzen. GUILLAUME FAUVEAU



Txalo emazte gazteei, segida hartzeagatik, eta milesker gure aitzinekoei, borroka hastegatik»

Mikele Berhokoirigoin
Laboraria

ahuntzak, zerriak, zaldiak, mandoa... «Biziki irringarria da xerri hori!», edo «zer moñoñoa den ardial!» eta gisako esaldiak entzungai dira haurren ahoetatik.

Kabaletatik ez urrun, merkaturan, ekoizle bisitariarekin solastatzeko aukera izan dute, haien

bertako eta biologikoak diren produktua aurkeztu eta saltzeko, izan kosmetika, eztia, gasna, zapatak, fruitu jusak, haragia...

Ilunpeko emazteak

Azokan, hainbat lelo zintzilika-tuak dira, gehienak emazte laborari buruzkoak: «Amalurraren alabak geroa ereiten» eta gisakoak. Aurtengo parte hartzaileetarikoa bat Bernadette Oillarburu da, Irisarrikoa (Nafarroa Beherea). Txikidanik laborantza munduan murgildua da, bere buraso laborari esker. Euskal Herriko laborantza munduan leku garrantzitsua du, Euskal Herriko Laborarien Batasunaren sortzaileetarikoa bat baita. Iparraldeko hiru laborantza lizeotan klaseak eman zituen, senarrarekin ezkondu arte eta Jutsin (Nafarroa Beherea) zuten etxaldean planteatu arte.

Senarrarekin batera, etxaldean lan egiten zuen Oillarburuk, baina bere baitatik ere lan egin zuen, eta, emazte gisa, emazte laborariaren egoeraren bilakaeraren lekuko zuzena izan da. Bere garaitik gaur arte, aldatetako positiboki nabarmendu ditu: «Zoriontzin naiz; orain, emazte laborari batek proiektu bat baldin badu, bere baitatik egin dezake. Nire garaian ez zen hala». Egoera bide onean dela iruditzen zaio, ezagutza hedatuz baitoa eta hainbat eskubide lortu baitituzte; adibidez, haurdunaldi oporrei begira.

Oillarburuk Mikele Berhokoirigoin izan zuen lagun elkarte sortzeko. Berhokoirigoin, berri, 1978an hasi zen laborantzan lan egiten. Hark ere aldatetako ikusi ditu emazteen eskubideei begira. «1970eko hamarkadan ziren arrangurak hobetzen dira egun, baina oraindik hor dira», nabarmendu du Berhokoirigoinak. Hainbat arazo ikusten ditu gaur egun, ordezkatzeari dagokionez bereziki: hamasei asteko haurdunaldi oporrak lortu zituzten 2008an, baina usu ordezkaririk ez bada etxaldeak okupatzeko. «Borroka bat hasten dugularik, ez da pentsatu amorru eman behar; zaila da borroka irabazteal».

Lurramako afixa anitz maite duela gehitu du: bertan, hainbat emazte laborari ageri dira. Pozten da emazte laborari gazte anitz ikusten direlako, horiei omenaldi bat egitea garrantzitsua baita, baina uste du borroka aspaldiko emazteek hasi zutela ez dela ahamtzari behar, haiei esker gaurko emazteek erreleboa hartu baitute: «Txalo gaur egungo emazte gazteei, eta milesker gure aitzinekoiei».



LA VIA CAMPESINA

«Desafioei buru egiteko, laborantzak du kanore»

Morgan Ody • Laboraria

Via Campesina munduko ehunka laborantza mugimenduren sindikatuko bozeramailea da Ody. Asteburu honetako Lurrama azokako ugazama da. Munduko desafioen aitzinean herri laborantzak duen indarra azpimarratu du.

Iniaki Etxeleku

Munduko laborantza sindikaturik handiena da Via Campesina. Afrikako, Asiako, Ameriketako eta Europako 182 antolakunde biltzen ditu, eta berrehun milioi laborari ordezkatzen. Morgan Ody (Laval, Frantzia, 1979) Britainia Morbihan aldeko baratzetzainak da mugimendu horren bozeramailea gaur egun. Atzo hasi zen Lurrama azoka, Miarritzen, eta gaur eta bihar ere bertako ugazama izanen da Ody. *Ciaran* galeriak etxaldean egin kalteen konpontzen ari zela mintzatu da.

Etxeko segida hartuz bilakatu zinen laborari, edo berantago?

Doi bat bietarik. Etxalde batean handitu nintzen, baina ez nuen etxondoko segida hartu. Gero, bi daia anitz egin dut; besteak beste, Asia hego-ekialdean. Han, bizi-molde modernoaren desmasiak ikusi nituen, eta etxera sartzera-koan pentsatu nuen laborari izatea zela aldaketa positibo baten alde egiteko molderik hoberena.

**Zerk ekarri zaitu sindikalismo-
rak, gaur egungo Via Campesi-
nako bozeramaile izateraino?**

Laborantza sindikalismoaren bi-beroian hasia izan naiz, aita Con-federation Paysannen baitzen. Duela hogeita bat urte ezagutu nuen Via Campesina, itzultzaile boluntario gisa. Emozioen aldetik

ere hunki ninduen azkar, ohartu bainintzen mundu osoan, labora-riak hizkuntza orotakoak izana-gatik, molde ezberdinetan beztu-ak izanagatik, laborantzak oi-narri-oinarrira ekartzen gintuela denak: denek jan behar dugu. Azotaren zikloa denetan bertsua da; denetan lurra, ura eta airea behar da landareen jinarazteko.

**«Hondamendia ikusten dugu
begien bistan; laborantza
mugimenduen aldean ez da
egitasmo sinesgarri handirik»**

**Via Campesina oso indartsu go-
goratzen du jendeak topaketa
altermundialista handi batzue-
tan. Gaur egun zertan da?**

Eskuinean, ezkerrean bezala, anitzek uste izan dute laborariak ez zirela gai gizarte aldaketa batera-ko indar bat zabaltzeko. 1993an Via Campesina agertu zelarik, anitzek duda handiak zituzten. 30 urte bete ditugu, eta Via Campesi-na munduko gizarte mugimendu nagusia da; hala aitortzen du Na-zio Batuen Erakundeak ere. Ez dut uste munduan beste mugimen-durik badenik hainbesteko aniz-tasuna garraiatzen duenik. Via Campesinan, *batasuna aniztasu-nean* errateak badu zinez kanore.

**Egitasmo politiko hori zein litza-
teke?**

Janari beregaintasuna, agroeko-logia, laborarien eskubideak, la-borari feminismoa, laborantza erreformak eta partekatze zuzenak. Via Campesinako antola-kunde guziek bat egiten duten ba-liaoak dira.

**Laborarien gutitzea, lurren gal-
tzea, laborantza industrialaren
nagusitasuna; laborariak arazo
berei buru egiten ote diete mun-
du guzian?**

Arazo batzuk zinez elkarren idu-rikoak dira: belaunaldi berrikun-tzaren arazoa, adibidez. Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako lagu-nekin aipatzen dugularik, erraten digute ez dela aise gazteen atxiki-tzea baserrialdean. Bestalde, mundu guzian herri laborantzek industrialaren jazarpena pairatzen dute; industrialak lurra bereganatzen ditu. Helburu espekulatibo batekin egin bereganatzeak dira; karbono merkatuekin, gero eta gehiago badira. Finantza enpresa batzuek lurra beretzen dituzte karbono kredituak saltzeko gero. Horretarako, bertan bizi zirene-harritarrak kanporatzen dituzte. Franko arranguratzen gaitu, bai-na kolektiboki borrokatzen gara.

**Emazteak dira aitzinean ezarri
aurtengo Lurraman. Gauzak al-
datzen ari direlako, edo feminis-
moaren lanaren ondorioz?**

Biak batera, hain segur. Laboran-tza feminismo herrikoia lantzen dugu, ekofeminismotik hurbil di-ren ideiekin. Naski, mugimen-duek antolaketa biziki patriarkal batetik ateratzeko gogoia dute. Molde bertikalak baitziren, ar do-minatzaile batzuen ego handien menekoak. Eraman nahi dugun egitasmo politiko-sindikalarakin

ez du bat egiten eredu pa-triarkal horrek. Balio kolektiboak eraman nahi ditugu: elkar zaintzea, dimentsio emozionalak berriz ekartzea; sakonki

lotua da gure eremu eta lurraldeekin dugun harremanaren aldake-tekin; naturan jaun eta jabe diren gizonen ideia oso kartesiar horre-tarik ateratzen ari gara.

**Nolako aitzateke lurraldeari
lotu harreman aldaketa hori?**


Gure lurraldeetan bizitzea, ho-rien zaintzea, horiekin elkarbizi-tza harmoniatuagoan izanez, eta ez hainbeste dominazioan. Femi-nizazioarekin, beste balio batzuk aldatu dira mugimenduan, ikus-pegia ekologikoago batekin. Emazteei ere anitz kalte egin die XVI. eta XVII. mendeetan eraiki den modernitateak –gizon zuri zientifikoki dominatzailearena–. Laborantza feminista eta herri-koia mugimenduan, elkarre-kin egitean oinarritzen diren ba-lioei lotzen gataizkie.

**Ar dominatzailea ez ote da ora-
ino azkarki plantatua etxalde-
tan, eta berdintasunerako bidea
ez ote da luzatzen ari?**

Bai, luze da. Baina uste dut emaz-te gisa beste leku bat atxiki nahi dugula. Ez dut enbeiarik gizonak izan daitezkeen bezalako emazte sindikalista izateko, zeinetarik batzuek familia bereber utzi bai-tute sindikatuari dedikatzeo, halako sakrifizio alde batekin. Guk ez dugu emazte lider bat eza-rra nahi gizon lider baten lekuan. Kolektiboki antolatzeo moldea dugu kanbiatu nahi, bakoitzak bere lekua ukan dezan, gizonek ere denbora har dezaten hurbile-koen zaintzeko.

**Zer mezurekin heldu zara Lurra-
mara?**

Esperantza mezu batekin, biziki zaila den mundu batean. Honda-mendia aitzinatutik ikusten du-gu. Laborantza mugimenduen aldean ez da egitasmo sinesgarri handirik. Feminismoarekin zain-tza aitzinean ematen duen herri laborantza xede horrek jana eta bizi baldintza duinak eman die-zazkie munduko gizaki guziei, elkartasun eta berdintasun gogo batekin. Desafio guziei buru egin nahi badiugu bihar, laborantzaren xedea da kanore duen bakarra.



«Xerra baten atzean bizipen asko daude»

Josebe Blanco • Artzaina eta gaztagilea

Ardiekin bizi da Blanco, eta ez ardietatik. 'Hausnarrean. Ardiek egin naute artzain' liburua ondu du: eguneroko bat da, eta gogoeta egiten du artzaintzari, elikadurari, heriotzari eta beste gai askori buruz.

Nagore Arin Andoain
Mikel Elkoroberezibar Beloki

«Artzaintzaren estandarretik ateratzen den ikuspegitik» jorratutako liburu bat da *Hausnarrean*. Ardiek egin naute artzain liburua. Josebe Blanco artzain eta gaztagileak (Salceda, Galizia, 1973) egin du, eta *Argia*-k argitaratu. «Artalde baten bizipenak dira liburua ardatza», nabarmendu du.

Ardiek egin zaituzte artzain, baina liburuan aipatzen duzu behiak izan dituzula gustuko txikitatik.

Gure arbasoen etxean behiak presentzia sendoa izan du, eta familiari oso lotuta egon da. Gero, ardiak gurtzatu ziren, eta eurekin kateatu nintzen.

Askotan diozu ardiekin bizi zarela, eta ez ardietatik.

Bai. Esaten dugunean ardietatik, baratzetik edo lurretik bizi garela, horren atzean ezkutatzen den izpiritu zera da: jasotzekoa, ateratzekoa. Esaten dugunean lurrarekin eta ardiekin bizi garela, elkarbizitza bat osatzen da, eta sortzen den unibertso horretan denon lana da beharrezkoa baserri hori mantentzeko: bizitza horiek mantentzeko. Bizitza horiek, eta lan horren emaitza diren gazta, barazkiak eta okela jango dituzten bizitzak ere unibertso horren barruan daude.

Eguneroko forma eman diozu liburuari. Zergatik?

Bergarako [Gipuzkoa] idazle eskolan egindako lanketatik atera zen egunerokoa, eta hor Tere Irastorzak gakoa aurkitu zuen. Bizipenetan oinarritutako kontakizun bat da, eta, bizipen hori momentu batean indibiduala izan arren, unibertsala ere bada. Konkreteki abstrakzioa egiteko jauzia bikaina iruditut zait.

Poesiak, argazkiak eta ilustrazioak ere badaude. Liburua, estetiko-ki, jantzia eta berezia da.

Poesia txertatu izana ez da erabaki estetiko izan, sormenak bere bidean jarri didan elementua baizik. Uste dut liburuan gauzatzen dela nik prozesu honetan guztian bizi izan dudana.

Liburuan diozu uste zenuela artzain izateko era bakarra zegoela: gizonaren eta makilaren manera.

Gure ofizioarekin lotutako estandar horren aurrean jartzen garenean, lehendabiziko kolpean saiatzen gara geure burua egokitzen ofizio horretara, baina momentu batean zapata estu horietan ezin kabitut eta minbera egon nintzen, egonezin handiarekin. Errealitateak berak bideratu ninduen, eta ofizioa neurera ekarri nuen. Abeltzaintza indarrarekin eta animaliak gobernatzearekin lotzen dute, baina nik ez dut horrela ulertzen. Batzuetan indarra behar da, baina ez dut uste animaliekin edo lurrarekin daukagun lan hori indarrean oinarritu behar dugunik, baizik eta zaintzan.

★
ATZEKOZ AURRERA



NAGORE ARIN

Atera egiten zara euskal artzainaren estereotipotik. Galizian jaioa zara, eta emakumea.

Ez dut neure burua identifikatuta ikusten estereotipo horrekin, eta horretarako arrazoi asko daude. Ahaztu egiten zaigu gure amonek zein harreman berezia zeukaten animaliekin, eta industrializazio prozesuan emakume horiek bazterrerara joan ziren. *Artzain* hitza esan, eta zein marrazki egingo genuke? Hortxe dago.

Nolako tratua duzu lanean heriotzarekin?

Heriotza eta bizitza batera doaz, eta ezin ditugu banandu. Ardiekin bizi zarenean, distantzia desagertu egiten da: lankidea da. Amaiera hel-

tzen zaionean, hil behar dugunean, gauza asko husten dira. Batzuetan heriotza dator etorri behar duelako, eta zuk eragin behar duzu, maite duzun horrek ez sufritzeko. Arku meak hiltzera eraman behar ditugunean, ardiari arkumea kendu behar diodanean, krakateko handi bat bizi dut barruan. Elikadurarekin ere lotzen dut. Egungo gizartean, askotan haragia jaten dugu inongo erreparririk gabe, eta sobran dagoena botatzen dugu. Hor gauza asko gertatu dira. Xerra horren atzean bizipen asko daude, eta, beharbada, modu kontzienteagoan jan behar-ko genuke, eta jabetu hor dagoen zatia animalia baten zatia dela, eta errespetu osoz jan behar dugula.

LOTSABAKO

Gaur-gaurkoz, behiak ala ardiak?
Ardiak.

Gazta mota bat?
Bibirik dagoena.

Liburu bat? Lur gainean, itzal azpian [Leire Milikua Larramendi, 2022, Susa].

Hilabeterik gustukoena? Azaroa.